



**PRO
GRA
MA**

**UPV/
EHU**

**Un proyecto
compartido**

**Joxerra
Bengoetxea**

UPV/EHU-ko
Errektoregaia

Candidato a Rector
de la UPV/EHU

**denon
artean**

UPV/EHU
denon
artean_

Un proyecto compartido

Zer da unibertsitate bat?

Barruan gaudenez, akaso ahaztu egiten zaigu, arrainari uretan dabilela ahazten zaion bezala.

Edo ez, akaso jende eskolatua garenez, erraz topatu dezakegu definizio bat.

Zaildu dezagun galdera, beraz: zer izan beharko litzateke unibertsitatea?

Galdera honek definizio bat baino, amets bat eskatzen du.

Saia gaitzen erantzuten, saia gaitzen amesten: zer izan beharko litzateke unibertsitate bat?

Ezer baino lehen komunitate bat, batasun bat. Halaxe dio etimologiak ere, ez alferrik, unibertsitate izena *universitas magistrorum et scholarium* esapide latinetik dator, irakasle eta ikasleen elkarte.

Baina erdi aroko unibertsitateetan ez bezala, bere burua gotortu eta babestu behar izan zuen instituzioa izan gabe, kanpora begira dagoen komunitatea izan beharko litzateke gure unibertsitatea. Bere herrian ondo errotua, inguruko erronkei erantzuteko gauza eta mundura salto egiteko prestu.

Gure unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea,

utopia bat da berez, eta ez genuke ahaztu behar zenbat sakrifizioaren ostean lortu dugun.

“Euskaldunak ikasi egin nai degu, geroz ta geigo jakin, baña neke ta lan aundi gabe ezin ikasi degu, Unibersidadeak uruti dauzkagu-ta” esan du Julian Elorzak Euskal Ikasketen III Kongresuaren sarreran, 1922an. Alfonso XIII etorri da kongresua ixtera eta momentu hori aprobetxatu du gizon batek “Euskal unibertsitatea nahi dugu” dioen pankarta bat altxatzeko, jendetzaren bat-bateko babesarekin. Preso daramate berehala bazter-nahaslea.

Hamalau urte beranduago, gizon horrek berak, gerra betean, bonben artean, Euskal Unibertsitatea izeneko erakundea inauguratuko du, Bilboko Basurtuko ospitalean. Leizaola zuen izena gizon horrek.

Faxismoak behin-behineko zapaldu zuen Leizaola eta beste askoren utopia. Baina euskaldunok ikasten jarraitu nahi genuenez, komunitatea sortzen eta komunitateari emanaz, hamarkada batzuk beranduago posible egin zen Euskal Herriko Unibertsitatea.

Batzuetan beharrezkoa da atzera begiratzea etorkizuna asmatzen jarraitu ahal izateko.

Zer izan beharko litzateke unibertsitatea beraz?

Etorkizuneko erronken laborategia: aldaketa klimatikoa, giza eskubideak, teknologiaren etika eta gizarte berdintasunaren desafioei erantzuteko espazio pribilegiatua.

Ikerketa askearen gunea: esperimintatzeko eta probatzeko toki segurua, burokraziaren zamatik ahalik eta askeen.

Herritar libreen lantegia: izpiritu kritikoa eta tresna zientifiko oro eskuragarri dauden tokia, etorkizuneko herritarren mesedetan.

Gure jendarteko eragile aktiboa: herriaren zerbitzura, euskara eta euskal kulturaren ardatzetik abiatuta, munduko edozein txokora iristeko kapaza.

Universitas magistrorum et scholarium. Gure unibertsitateak bultzada berri bat merezi du. Segi dezagun amesten, denon artean.

Katixa Agirre

Aurkibidea

1. SARRERA: Segi dezagun amesten, denon artean.....	9
2. GOBERNANTZA: Denon artean eta denontzat.....	15
Gobernantza: Diagnostikoa	15
Gobernantza: Erronkak	18
Gobernantza: Helburuak eta ekintzak.....	19
3. IKAS- ETA LAN-BALDINTZAK: Pertsonen zaintza erdigunean	31
Ikas- eta lan-baldintzak: Diagnostikoa.....	31
Ikas- eta lan-baldintzak: Erronkak.....	39
Ikas- eta lan-baldintzak: Helburuak eta ekintzak.....	40
4. IRAKASKUNTZA: Etorkizuneko harrobia	53
Irakaskuntza: Diagnostikoa	53
Irakaskuntza: Erronkak	59
Irakaskuntza: Helburuak eta ekintzak.....	60
5. IKERKETA: Baliabide egokiak, ezagutza eta berrikuntza helburu.....	73
Ikerketa: Diagnostikoa.....	73
Ikerketa: Erronkak.....	77
Ikerketa: Helburuak eta ekintzak	78
6. KONPROMISO SOZIALA ETA KULTURA: Mundura irekita, Euskal Herritik	
Euskal Herrirako unibertsitatea.....	89
Konpromiso soziala eta kultura: Diagnostikoa	89
Konpromiso soziala eta kultura: Erronkak	94
Konpromiso soziala eta kultura: Helburuak eta ekintzak.....	95

Sarrera

Segi dezagun amesten, denon artean!



UPV/EHU maite dugunez, horren baitan bizi dugun egoerak biziki kezkatzen gaitu. Gure Unibertsitateak ilusioa eta harrotasuna piztu beharko luke kide guztiengan: ikasle, irakasle, ikertzaile, teknikari, administrari eta zerbitzariengan. Baina hori gabe **desatsekimendua, itxaropen falta eta urruntzea nabari dira**: dela egoitza-eraikin askoren egoera kaxkarrak, direla lan-baldintza eta soldata prekarioak, dela burokraziaren zama astuna, dela akademian karrera egiteko gainditu behar diren oztopoak, dela irakaskuntzaren aintzatespen murrizta, dela eginkizun asko kanpoko enpresekin azpikontratatzaren direla, dela euskara gutxi entzuten dugula geletatik at, eta ikasgela barruan ere, dela TEKAZEL/IRI ratioa estatuko baxuena dugula UPV/EHUUn, dela langileak kontuan hartzen ez direla, dela komunikazio eskasa edo komunikaziorik eza... **Horri guztiari konponbide bat jartzeko asmoa dugu.**

Horrexegatik aurkezten gara hauteskunde hauetara: gure unibertsitatea eraldatu, bere noraeza zuzendu eta denon artean adostutako norabidean kokatzeko hurrengo sei urteetan, handik aurrera bikaintasunean lora dadin: **eman ta zabal dezan!**

Gerentea alde batera utzita, Hautagaitzako gainerako kideok ez gara kudeatzaile, ez da hori gure bokazioa. Ez ginen Euskal Herriko Unibertsitatean sartu kudeaketa egiteko. Gure bokazioa bestelakoa da; unibertsitarioak gara, akademikoak: irakaskuntza eta ikerkuntza, esperimentazioa eta sorkuntza, ezagutza eta horren transmisio eta hedapena, ikusmira kritiko-zientifikoa..., horiek ekarri gintuzten Unibertsitatera. Baina **unibertsitatearen autonomia defendatzen dugu**: gure buruaren jabe izan eta gure komunitate akademikoaren autogobernua sendotu nahi dugu.

Horrexegatik hartzen dugu parte kudeaketan guk akademikook. **Guztion ongiak motibatzen gaituelako** inplikatzeko gara zeregin honetan. Guk ez badugu gure burua gobernatzen, kanpoko batek kudeatuko gaitu. Ez dugu nahi kanpoko kontsultore batek UPV/EHU kudeatu eta gobernatzea; guk egin behar dugu: **denon artean egitea proposatzen dizuegu**. Eskerrak TEKAZEL talde on bat dagoela gure eginkizunetan laguntzeko, eta eskerrak kudeaketa, giza eta lan-harremanak edo administrazio-egintzak eta kontratazioak ikasi eta ikertzen diren jakintza-arloak ditugula gure UPV/EHUUn. Horri esker izan gaitzke autonomo eta, denon elkarlanari esker, gure ekarpena egin diezaiokegu Guztion Ongiari.

Egia da ez garela guztiz autonomo. Kanpotik arautzen gaituzte, bai: Espainiako Gorteetatik eta Eusko Legebiltzarretik, askotan Europar Batasunean eta handik haratago Europako Hezkuntza Esparruan ministroen artean adostutako gidalerroak eta irizpideak interpretatuz. Hori ikusi dugu Bologna deritzon prozesua martxan jarri zenetik. Unibertsitate publiko garen aldetik, gure tituluek balio ofiziala duten aldetik, eta funts publikoekin finantziatzen delarik, kanpoko

arautze hori, heteronomia hori, neurrian onartzen dugu eta jasotako diruaren **kontu garbiak daramatzagu**, ahalik eta **modu eraginkorrean erabiliz eta inbertituz**. Gure baliabideen erabilera baldintzatuko du gure gizartearen, euskal gizartearen, etorkizuna eta ongizatea.

Unibertsitate publikoa garen aldetik, UPV/EHU Euskal herritarren zerbitzura dago. **Herriak, hiritargoak ezagutzan eta berrikuntzan oinarritutako gizarte bat eratu nahi du**, eta gure Unibertsitateak badauka ezagutza eta berrikuntza horiek eskaintzea. Ekonomiak punta-puntako profesionalak behar ditu; gure Unibertsitateak prestatuko ditu. Nahi dugu ongizate-gizartea lortu; ba gurean dago horrelako gizartea antolatzeke eta erdiesteko behar den jakintza eta *know-how*. Eta **nahi ditugu euskal gizartean euskaraz bikain lan egiteko prest dauden profesionalak** – ekonomialariak, abokatuak, osagileak, erizainak, kimikariak, botikariak, biologoak, fisikariak, irakasleak, hezitzaileak, historialariak, antropologoak, filologoak, itzultzaileak, komunikatzaileak, arkeologoak, geologoak, artistak, gizarte-langileak, arkitektoak, ingeniariak eta abar luzea, baita politikariak eta kudeatzaileak ere; ba gure Unibertsitateak prestatzen eta prestatuko ditu horiek guztiak, jakintza-arlo gehienetan eta euskaraz zein beste hizkuntzetan prestatu ere.

Unibertsitate publiko batek, UPV/EHUK, soilik egin dezake hori. Horregatik, gizarteak helburu horiek guztiak, eta beste batzuk ere, erdietsi nahi baditu, **bere erakundeetatik Unibertsitatea ondo, behar bezala, finantziatu beharko du**. Guk Unibertsitateetik erakundeek **kontuak eman behar dizkiegu bueltan**: jasotako finantziazioa nola erabiltzen dugun, ahalik eta hobe kudeatzen dugula erakutsi. Gehiago egin dezakegula diru- sarrerak hobetzen badira. Ondo azaldu behar dugu zer erants dezakegun diru-iturri horiek hobetzen direnean, eta nolako onurak ekarriko dizkion balio erantsi horrek gizarteari.

Jakina, onura horiek ziurtatzeko gu garen Unibertsitate publikoan helburu, balore eta printzipio orokor batzuk lehenetsi behar ditugu. Helburuak finkatu eta gauzatzeko, aurrebaldintza da gure UPV/EHU zein egoeratan dagoen jakitea, alegia, diagnosi-contraste bat egitea. Hots, **zer indargune eta zer ahulezia; zer mehatxu eta zer aukera ditugun**.

Diagnosi hori egitea ezinbestekoa da. **Hautagaitza honek egin du**, denon artean. Diagnosiaren ardatzak honakoak dira: **Gizartearekiko Konpromisoa, Irakaskuntza, Ikerkuntza, Lan- eta Ikas- Baldintzak eta Gobernantza**. Diagnosi hori lantzea izan da gure eginkizuna hautagaitza aurkezteko erabakia hartu genuen unetik, eta horrek ekarri gaitu honaino, egitarau eta egitasmoak zuen aurrean, Unibertsitate osoari aurkeztera. Diagnosiaren lehen zirriborroa UPV/EHUKo zenbait langileren artean (TEKAZEL, irakasle, ikertzaile, kudeaketa-ardurak dituzten pertsonak) eta auzolanean prestatu da, **Ugo Mayor Ikerbasque ikertzaile-irakaslearen koordinaziopean**. Ondoren, gure Hautagaitza Taldeak diagnostiko hori bere egin du, lanketa sakon baten bitartez eta, azkenik, **UPV/EHUKo zentro guztietan aurkeztu eta kontrastatu dugu**, azken bertsioa osatu arte. Gure aktetan **500 ekarpenetik gora** jaso ditugu.

Halaber, UPV/EHUK campus-aniztasuna dakar bere izaeran. **Campus bakoitza berezia da eta nortasun horri eusteari egoki deritzogularik**, erantzun uniformeak saihestu nahi ditugu.

Diagnosiak campus eta zentro bakoitzaren berezitasunak kontuan hartu ditu. Gure hauta-gaitzak proposatzen du campus bakoitzaren berezitasunak errespetatuz lan egitea, campus bakoitza bere lurraldean erreferente eta eragile erabakigarri bihurtzeari begira. **UPV/EHU behetik gora doan federazio modura ulertzen dugu.**

Ibilbide parte-hartzaile horren fruitu eta emaitza hemen aurkezten dugun programa da, gure bidaia-orria.

Zein dira gure balore eta xedeak?

- Euskal gizartearekiko konpromisoaren ildo nagusiak dira **gure herriak dituen erronkei aurre egiten lagundu**, munduarekiko solidario izaten jarraitzearekin batera, ingurumen osasuntsu eta iraunkorra zaindu, garapen orekatu eta bidezkoa bultzatu, eta pertsonen ongizatea babestu eta bultzatu. Bestalde, gure konpromisoa da ezagutzaren gizartea eratzen laguntzea, zientzia, ikerketa eta irakaskuntza aintzakotzat hartuta.
- Gure oinarria da **kalitatezko irakaskuntza**, behar bezala baloratua, baliabide teknologikoak erabiltzen dituen, malgutasunez erabili ere, adimen artifizialaz baliatzen dakiena, eta **jakintza-arlo guztietan** ezagutza eta mota guztietako gaitasunak transmititzeko gauza dena, **euskara eta eleaniztasuna** eta bai **ikasleen parte-hartzea** sustatzen dituen eta, azkenik, irakasleen artean egokiro eta bidezketasunez banatuta dagoena. Gradu, graduondo eta etengabeko ikaskuntza-eskaintza zabala mantendu behar dugu, mota guztietako ikasleak kontuan hartzen dituen.
- **Ikerkuntza bikaina** egin behar du UPV/EHUk, punta-puntakoa eta berriztatzailea, baina baita beste **eragileekin elkarlanean**, neurrira egindako ikerketa ere, ongi prestatutako eta ongi ordaindutako ikertzaileek egina, **nazioarteko elkarlanean**, arlo guztietan berrikuntza dakarrena, irizpide anitzetatik aitortua, ikerketa- proiektuetan garatua baina baita Unibertsitateak lagunduta ere, **diziplinartekotasuna** benetan lantzen duena beharrezkoa den kasu orotan, eta UPV/EHU barruan antzeko proiektuekin koordinatzen dena sinergiak lortzearren, ondo komunikatzen dena. Izan ere, gure unibertsitatea ardatz egituratzaile gisa sendotu nahi dugu **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean (ZTBES)**, ikerketari dagokionean erreferentziatzeko eragile nagusia baita. Sarearen beste eragileekin elkarlanean, guztiontzat onuragarria den lankidetzaren eraginkor bat finkatu eta garatu nahi dugu, gure gertuko gizartearen egungo eta etorkizuneko beharrei eta munduaren erronka globalei erantzun ahal izateko.
- **Pertsonen zaintza erdigunean** duen unibertsitatea nahi dugu, **kide eta kolektibo guztientzako** (ordezko irakasleekin hasita) lan- eta ikas-baldintza duinak eskaintzen dituen. Bigarrenik, **ikertzaileen plazak finkatu** nahi ditugu, irakasle elkartuak gehiago inplikatu, irakasle eta ikertzaile guztion **karrera lehenago kontsolidatzeko eta promozioa bultzatzeko neurriak** hartu. Hirugarrenik, pertsona guztien zaintza eta ongizatea bermatu nahi dugu, **osasan-zerbitzua eskainiz, egoera zaurgarrian daudenei laguntzak emanez, eta unibertsitateko kide guztiok elkarri lagunduz**. Azkenik, Unibertsitateko

espazioak urte osoan zabalik eduki nahi ditugu, betiere jasangarritasunaren ikuspegia ere kontuan edukita.

- **Gobernantza parte-hartzailea, federala, demokratikoa, eraginkorra eta interes kolektiboek gidatutakoa eraiki** nahi dugu, digitalizazioa burokrasia arintzeko erabiltzen duena, “buropatologiak” konpondu eta noranzko bakarreko komunikazio bertikala ahal den gehien murrizten duena.

Balore-xede hauek eskatzen digute, besteak beste, (i) gizartearekiko **transferentzia zabal**a, norabide anitzekoa eta nazioartean ere inpaktua duena egitea, (ii) Unibertsitate barruko **erakundeak ondo koordinatzea eta inguruarekiko harreman instituzionalak sendotzea** eta areagotzea gure herrian eta kanpoan, (iii) **barruko eta kanpoko komunikazioa eraginkorra** bezain arina izatea, (iv) **euskara ardatz duen hizkuntza-plangintza sendoa** diseinatzea eta ezartzea, eta (v) **kudeaketa eraginkorra eta gardena** egitea.

Helburu horiek guztiak lortzeko, UPV/EHU ordezkaturako duen hautagaitza-talde eraginkor eta sendoa behar da. **Errektoreak eta errektoreordeek estrategia eta harreman instituzionalak landuko ditugu UPV/EHUren norabidea definitzeko, zentro eta campusen arteko koordinazioa sustatuz eta helburuak betetzeko** gure Unibertsitateak behar duen finantziarioa ondo zehaztuz eta negoziatuz.

Gure Errektoretzarako Hautagaitza zazpi ardatzetan egituratzen da, eginkizun edo azpitalde funtzional bezala ulertzen direnak: pertsonak, ikasketak, ikerketa, lurraldeak, zehar-egitura, nortasuna eta gobernantza azpitaldeak:

1. **Pertsonak:** Unibertsitateko hiru kolektiboak, hau da ikasleak, irakasle-ikertzaileak eta TEKAZEL langileak.
2. **Ikas-Irakaskuntza:** Unibertsitateak eskaintzen dituen hiru mailako ikasketak eta tituluak, alegia, graduak, graduondoak (etengabeko ikaskuntza) eta doktorego-ikasketak.
3. **Ikerkuntza eta Berrikuntza:** Ikerketaren hiru izariak, hots, Ikerketa (ikerketa-masterrak eta doktorego-ikasketak barne), Transferentzia (konpromiso soziala) eta Hedapena (komunikazioa).
4. **Unibertsitateko hiru lurraldeak:** Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.
5. **Zehar-egitura:** koordinazioa, komunikazioa, harreman instituzionalak, digitalizazioa.
6. **UPV/EHUren nortasuna eta erantzukizuna:** konpromiso soziala eta kultura eta horren barruan, euskara eta hizkuntza-plangintza.
7. **Unibertsitatearen gobernantza eta kudeaketa:** Campusak, Gerentea, Idazkari Nagusia eta Errektorearen kabinetea.

Egituraketa horren baitan, honako lan-taldea eratu dugu:

1. Ikasle eta Partaidetza Errektoreordea: Asier Blas Mendoza
2. Transferentzia eta Nazioartekotze Errektoreordea: Gotzone Barandika Argoitia
3. Gradu eta Eraldaketa Digitaleko Errektoreordea: Urtza Garay Ruiz
4. Irakasle eta Ikertzaileen Errektoreordea: Efren Areskurrinaga Mirandona
5. Graduondo eta Etengabeko Ikaskuntzako Errektoreordea: Ainhoa Berasaluze Correa
6. Koordinazio, Kultura eta Konpromiso Sozialeko Errektoreordea:
Aitziber Mendiguren Ordorica
7. Ikerketa Errektoreordea: Jon Umerez
8. Harreman Instituzionaletarako eta Komunikaziorako Errektorordea:
Marian Iriarte Ormazabal
9. Arabako Campuseko Errektoreordea: Ixone Fernandez de Labastida Medina
10. Bizkaiko Campuseko Errektoreordea: Estitxu Garai Artetxe
11. Gipuzkoako Campuseko Errektoreordea: Juana Goizueta Vértiz
12. Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordea: Igone Zabala Unzalu
13. Gerentea: Javier Varona Guarás
14. Idazkari Nagusia: Leire Garmendia Arrieta
15. Errektorea: Joxerramon Bengoetxea Caballero

*Ilusioz ekin diogu bide honi eta denon
artean unibertsitateari bultzada berri
bat emango diogula sinestuta. Segi
dezagun hortaz amesten, denon artean!*

Joxerra Bengoetxea

Gobernantza

Denon artean eta denontzat



GOBERNANTZA: DIAGNOSTIKOA

Bertan lan eta ikasten dugun pertsona guztiok, gure artean garatzen ditugun harremanen bitartez, ematen diogu berez duen izaera UPV/EHUri. 50.000 pertsonako komunitatea gara, eta gure unibertsitatearekiko atxikimenduaren arabera hobeto edo okerrago funtzionatuko du sistema konplexu honek. Sail eta zentroetatik hasita Errektoretzaraino martxan jartzen diren gobernantza-ereduek horiei guztiei eragingo dietelarik, bada Gobernantza-eredua birpentsatzeko ariketa egiteko ordua. Horretarako, kontuan izan behar da nondik gatozen, eta UPV/EHUREN ezaugarri diren ardatzetan jarri arreta:

1- AUTONOMIA. Unibertsitatearen ezaugarri juridiko nagusia "autonomiaren" aitortza da. Estatutuen 1. Artikuluak indarrean jartzen du UPV/EHUREN autonomia eta honako hau ezartzen du hitzez hitz: *"Euskal Herriko Unibertsitatea zuzenbide publikoko erakundea da, gizartearen zerbitzura dagoena. Erakunde autonomiaduna da, nortasun eta ahalmen juridikoak dauzkana, bai eta ondare propioa ere."* Autonomia hainbat alorretan gauzatu beharko litzateke, besteak beste, irakaskuntzan, ikaskuntzan eta ikerketa-estrategian, ikasleen eta langileen kudeaketan, eta aurrekontuen prestakuntzan, onarpen eta kudeaketan. Eskumen horiek unibertsitate, zentro eta sail mailan gara daitezke. Beraz, autonomiak unibertsitatea bera arautzeko eta gizartearekiko dituen betebeharreri erantzuteko aukera ematen du. Horrek ahalbideratzen du unibertsitatearen finantziazioa negoziatzeko aukera. Hala ere, **gaur egungo finantziazio prozesua ez da bi norabidekoa** eta Eusko Jaurlaritzak proposatutako aurrekontuaren onarpen arina egin da. Azken urteotako bilakaerari erreparatzen badiogu, argi antzeman daiteke finantziazio prozesu horrek unibertsitatearen autonomia mugatu, estutu eta zokoratu duela, eta ez dela gai izan aspalditik CRUEk eskatzen duen eta gaur egun USLOk ezartzen duenera heltzeko (Barne Produktu Gordinaren % 1). Hortaz, ondoriozta daiteke **UPV/EHUK ez duela erabiltzen dagokion autonomia bere eskumenak bete eta finantziazioa lankidetzan eta el-karrizketa bidez negoziatzeko.**

2- UNIBERTSITATE PUBLIKOA ETA UNIBERTSALA. UPV/EHUREN jarduna hiru elementu gurutzatzen diren ardatzaren bidez ezaugarritu behar da: goi-hezkuntza, unibertsaltasuna eta zerbitzu publikoa. Goi-hezkuntza, hezkuntzaren zati denez, oinarrizko eskubidea ere bada. Halaber, goi-hezkuntza unibertsala izan behar da, hau da, ezagutza- eta jakintza-arlo guztiak barne hartu behar ditu. Zerbitzu publiko batez ari gara, eta horrek esan nahi du euskal gizarteak berezkotzat hartzen duen prestazioa eskaintzea dagokiola. UPV/EHUri herritarrei unibertsitate-ikasketak jasotzeko eskubidea bermatzea dagokio, ahalmen ekonomikoaren, merkatu-interesen eta interes pribatuen menpe egon gabe. **Eskubide eta eskaintza horiek**

bermatzea unibertsitateari dagokio, berdintasun-baldintzetan bermatu ere eta, gaur egun, ez da UPV/EHUREN izaera publikoa bereizten, ezta ahalmen guztiak gizartearen zerbitzura jarri eta haren eskuragarritasuna bultzatzen ere.

3- DEMOKRATIZAZIOA. UPV/EHUK baditu hainbat prozedura eta tresna haren gobernatze-eredua demokratikoa eta parte-hartzailea izan dadin baina, gaur egun, tresna horiek ez dute benetako parte-hartzea sustatzen eta, askotan, gobernantzaren zuriketarako erabiltzen dira; adibide nabarmenena Klaustroa edo Gobernu Kontseilua dira. Organo horietara iristen diren proposamen gehienak onartu egiten dira, inolako eztabaida edo parte-hartzerik gabe eta, desadostasunik egonez gero, gehien-gehienetan uko egiten da eztabaida argudiorik eskaini gabe. Erabakitze-prozesua teknokratikoa izaten da, goitik beherakoa eta trazabilitaterik gabekoa, "zulo beltz" batera garamatzana. Ondorioz, **arazoa da unibertsitateko erabakitze-prozesua estamentuek eskatzen duten demokratizaziotik aldentzen ari dela, erabakitze-tresnen eta prozeduren erabilera ez-egokiagatik.**

4- ERAGINKORTASUNA. Maila ezberdinetako karguek haien denbora gehiena kudeaketan ematen dute, laguntzarako giza eta teknologia-baliabide urriekin edo batere baliabiderik gabe, eta horrek, kudeaketa eraginkorraren alde ez egiteaz gain, beste lan garrantzitsu batzuei eskaintzen zaien denbora, hala nola norabide estrategikoak eta kalitatea bermatzen duten ariketetan parte hartzeko denbora edo denboraren kalitatea murriztea dakar. Bestalde, kudeaketak eskatzen duen lana ez da behar bezala baloratzen. USLOK unibertsitate bakoitzean irakasleen eta ikertzaileen dedikazioa arautzeko modua definitzeko atea ireki du. Horretarako, kreditu-poltsa batzuk sortu dira, besteak beste, zentro eta sailen kudeaketaren atxikimendurako, baina aukera hori ez da behar bezala bideratu, ez baitzaio behar duen denbora eman gogoeta eta esleipena egokiro egiteko. TEKAZELen kasuan kudeaketa eraginkorraren falta ere larria dela jaso dugu entzuketa-biran, dituzten baliabideek lan neketsua eta dedikazio handikoa eskatzen baitute. **UPV/EHUK azterketa sakona behar du kudeaketa-lana murrizteko eta lan hori beharrezko baliabide teknologiko eta pertsonalez hornitzeko.**

5- BERDINTASUNA. Azken 50 urteetako mundu akademikoan, emakumeak, irakasleen eta ikasleen arteko bazterketa nabarmenetik unibertsitatean sartzera igaro dira, baina segregazioak jarraitzen du izaten ezaugarri nagusia, bai horizontala (jakintza-arloak), bai bertikalak (prestigio eta aintzatespen akademiko handieneko postuetan presentzia txikia izatea, baita unibertsitateko zuzendaritza-postuetan ere). Joera dago mailarik gorenera heldu direnen salbuespenezko kasuak eredugarri modura aurkezteko, baina ahalegin handiagoa egin beharko litzateke aurrera egiteko oztopo handiak dituztenen kasuak aztertu eta inor atzean ez gelditzeko estrategiak garatzeari begira. **UPV/EHUK ekitatean gehiago sakondu behar du.** Guztien hezkuntzarako eskubidea ziurtatu behar du **inolako diskriminaziorik gabe.**

6- KOMUNIKAZIOA. Ezin dugu onartu gaur egun dagoen informazio-saturazioa UPV/EHUK pairatzea eta gobernantzan eragina izatea. Barne-komunikazioa egun gehienbat goitik beherakoa dela esan daiteke eta, gainera, ez da eraginkorra, sufritzen dugun informazio-saturazioagatik eta garrantzia duena nolabait identifikatu barik heltzen zaigulako; egoerari ez

diote batere laguntzen erabiltzen diren komunikazio-bideek. Bestalde, aipatzekoa da behetik gorako komunikazio-bideak ez daudela definituta eta ez dagoela informazioa helarazteko modu efektiborik. Hortaz, esan daiteke **barne-komunikazioa ez dela modu eraginkorrean bermatzen, ez goitik beherakoa, ez behetik gorakoa**. Entzute-biran jasotako zenbait testigantzatan oinarrituta, uste baino askoz larriagoa da barne-komunikazioan dugun arazoa: zenbait kasutan, lan-osasunaren inguruko erantzunak ez direla jaso, beste batzuetan proiektuetako funts ekonomikoak galdu direla. Kanpo-komunikazioari dagokionez, UPV/EHUko jarduerak, ez irakaskuntza ez ikerketa, ez dira gizartera nahikoa heltzen, eta horrek unibertsitateko jarduerak ikusgarritasuna eta balorizazioa galtzea dakar. Izan ere, **kanpo-komunikazioa ez da nahikoa lantzen, ez unibertsitateko jarduerak modu egokian gizarteratzeko, ez eta UPV/EHU marka behar bezala proiektatzeko ere**.

7- ELKARLAN ESTRATEGIKOA. UPV/EHU munduari zabalik dagoen unibertsitatea da. UPV/EHUren berezko ezaugarri bereziak eta interesak ardatz izan behar dira aliantza estrategikoak joste aldera. Euskal Herriko unibertsitatea izanik, aliantza horiek ikuspegi horretatik landu eta garatu beharko lirake, UPV/EHU hezkuntzan, ikerketan eta transferentzian erreferentziazko erakundea izan dadin. Helburu horretarako, garapen ekonomiko eta teknologikotik at, gizarte-eragileekiko elkarlan estrategikoa sustatzea falta da, behar sozialei dagokien erantzuna emateko, besteak beste, euskararen biziberritzearen ildo estrategikoekin lerratzeke. Funtsezkoa da Hezkuntzaren eta Osasun Sistemaren kalitatea, baina badira beste gai transbertsal eta emergente batzuk ere. **Ondoriozta daiteke herri-lidergoa bultzatu behar dela, gizarte-eragileekiko elkarriketa hedatuz eta egungo gai emergenteak, plan eta aliantza estrategikoetan garatuz.**

8- CAMPUSANITZA. UPV/EHUK hiru campus eta 26 ikastegi ditu, bakoitza bere lurraldean errotuta. Aniztasun horrek bakoitzak bere ezaugarriak izatea dakar, baina ezikusia eginda, erabaki zentralizatzaileak hartu dira eta polizentrismoa hein batean galtzen joan da. **UPV/EHU lurraldean errotutako campus anitzeko unibertsitatea izanik, behar bezala koordinatu eta balioetsi behar da.**

GOVERNANTZA: ERRONKAK

1. Unibertsitateari dagokion autonomia erabili, lankidetzan eta elkarrizketan oinarrituta.
2. Unibertsitate publikoa eta unibertsala bultzatu.
3. UPV/EHUko gobernu-organoen, tresnen eta prozeduren funtzionamendua parte-hartzaile (demokratiko) bihurtu.
4. Irakasle, ikertzaile eta TEKAZELEN kudeaketa-lana murriztu.
5. Unibertsitate inklusiboa eta berdinzalea bultzatu.
6. Barne- eta kanpo-komunikazio eraginkorra bermatu.
7. Herri-lidergoa bultzatu elkarlanean oinarrituta.
8. UPV/EHU lurraldean errotutako campus anitzeko unibertsitatea dela aintzat hartu.
9. Euskara eta eleaniztasuna bultzatu.

GOBERNANTZA: HELBURUAK ETA EKINTZAK

1. **ERRONKA:** Unibertsitateari dagokion autonomia erabili, lankidetzan eta elkarrizketan oinarrituta.

Helburuak	Ekintzak
UPV/EHUK izan behar duen autonomia praktikatu eta defendatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Erabakiak hartzeko autonomia maila guztietan erabili; zentro eta ikastegiei agentzia eman eta eragiten dieten erabakietan informazioa eta erabakimena bermatu. • Behetik gorako autonomia errespetatu unibertsitateko organoetan, kategoria guztien ordezkarien bitartez. Autonomia honek kontu ematea eskatzen du aldi berean. • Errektoreak eta errektoreordeek entzute-mekanismo formalak egituratzea UPV/EHUren alorrez alorreko norabidea modu partekatuan definitzeko. • Campusetako errektoreordetzen funtzioak berrikusi eta areagotu, campus bakoitzaren errealitateari eta berezitasunei egokitutako gobernantza deszentralizatua ahalbidetzeko.
Finantziak lankidetzan eta elkarrizketan negoziatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Aurrekontuak Gobernu Kontseiluan eztabaidatu eta onartu, ekarpenak jaso eta, ondoren, Eusko Jaurlaritzarekin negoziatu (ez alderantziz). • Euskal Unibertsitate Sistemaren unibertsitate publiko bakarra garen neurrian, beste agenteekiko ezberdintasuna diskurtsiboki eta politikoki lideratu eta praktikan bermatzea galdegin. • Zentro guztien azpiegituren mantentze-premien katalogoa egin, unibertsitateen azpiegituren mantentze-lanak berrikusi eta planifikatzeko.

<p>Unibertsitate-sistema zentralizatuarekiko menpekotasuna murriztea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · UPV/EHU mailan, bere esku dauden erabaki guztietan (proiektuen eta plazen ebaluazioetan kasu) gure lurraldeko adituengana jo, eta Euskal Herritik kanpora jo beharra dagoenean, Europara jo. · Euskal Unibertsitate Sistemaren Legea berritzeko lidergoa hartu, gure unibertsitate-komunitatea prozesuan integratu eta joko-zelaia aurrez definitu: unibertsitate publikoaren izaera berezitua, autonomia eta finantziarioa bermatuko duen legea. · Lege estatalak ahalik eta modu malguenean interpretatu (USLO adibidez) gure komunitatearen lan- eta ikas-eskubiak iparrorratz bezala hartuta. · USLOk irekitzen duen bidea baliatuta, Unibasq-en eskuduntzen areagotzean lan egin eta eragile aktibo izan.
<p>Autonomia digitala eta gure datuen jabetza berreskuratzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Digitalizazio-plan ambiziotsu bat egin unibertsitateko kide adituekin batera, norabide estrategikoa modu partekatuan definitzeko. · Software libre eta propioaren aldeko apustua egin ahal izateko, inbertsioa egin baliabide propioetan, erabiltzeko errazak diren tresna eta sarbideak izateari begira. · Beste erakunde publikoekin eta unibertsitateekin parteka daitezkeen tresna digitalak arakatu, sinergiak baliatuz kostuak murrizteari begira. · Eusko Jaurlaritzarekin UPV/EHUko Digitalizaziorako Plan Estrategikoa adostu eta berau finantziatzeko baldintzak ezarri.

2. ERRONKA: Unibertsitate publikoa eta unibertsala bultzatu.

Helburuak	Ekintzak
Euskal Goi Mailako Hezkuntza Eremua indartzea, UPV/EHUren lidergoaz.	<ul style="list-style-type: none"> · Akitania Berria-Nafarroa-Euskadi Euroeskualdearen babespean, UPNA eta UPPA unibertsitate publikoekiko aliantzak sendotu, eta UBM eta Bordeleko Unibertsitateak ere gonbidatu.
Ezagutza- eta jakintza-arloen eskaintza zabala bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Ikasketen eskaintza irizpide kuantitatiboetatik haratago baloratzeko, balorazio kualitatiborako baldintzak adostu.
Unibertsitate-ikasketak jasotzeko eskubidea bermatzea berdintasun- baldintzetan.	<ul style="list-style-type: none"> · Zaurgarritasun-egoeran dauden ikasleen artatzea hobetu Bigarren Hezkuntzako zentroekiko koordinazioa sustatuz.

3. ERRONKA: UPV/EHUko gobernu-organoen, tresnen eta prozeduren funtzionamendua parte-hartzaile (demokratiko) bihurtu.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
UPV/EHUko gobernu-organoei beren esku-menak berreskuratzea, eta berriz ere gardentasunez eztabaidarako eta partaidetzarako foro izatea.	<ul style="list-style-type: none"> · Klaustroaren Funtzionamenduari buruzko Arautegia aldatu, parte-hartze mekanismoak errazteko, eredu itxi batetik eredu ireki batera igaro, gardentasuna bermatuz. · Klaustroaren erabakigune izaera bermatzeko, eztabaidagaiak berrikusi, eta ondorioen arabera bileren maiztasuna areagotzea proposatu. · Zentroetako ordezkariak txandaka Klaustro ezberdinetan hitza hartzerako txanda planifikatu, zentroko kezkak beste klaustrokideei helarazteko. · Gobernu Kontseiluko kideen parte-hartzea handitu, proposamenak aurkeztuz. · Ordezkaritza demokratikoa eta orekatua ezartzeko eztabaida ireki.
Unibertsitateak dituen unibertsitate-komunitatearen partaidetzarako tresnak eta prozedurak benetan horretarako erabiltzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Erabakiek bi norabide bildu, alegia, ezagutza teknikoa aintzat hartzea, baina baita behetik gorako erabakiak bermatzea ere. · Gardentasun- eta eskuragarritasun-irizpideak indartu. · Ikasleek partehartze-kulturan sakondu dezaten haien erabakimena indartzeko plan integral bat egin eta komunikazio-bide egokiak finkatu. · Ikasleek dituzten kexa eta ezinegonak bideratzeko mekanismoak berrikusi eta zentroz zentro modu deszentralizatuan berrantolatu.
Erabakiak edo politikak xede dituzten pertsonekin eta organoekin adostea, erabakitzea eta monitorizatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Hartu beharreko erabakia kontuan hartuta, erabaki horren hartzaileak identifikatu eta lantalde bat sortu, aukerak aztertze eta baloratzeko, eta erabakitze-prozesuan parte hartzeko. · Prozedura berrien inpaktua aztertu hobekuntzak identifikatzeko. · Arlo ezberdinetan egiten diren planak konkretuak, argiak eta lotesleak direla bermatu, ikastegiekin hitzarmenak eta mikroplanak adostuz, eta planak aurrera eramateko egongo diren baliabideak zehaztuz.

4. ERRONKA: Irakasle, Ikertzaile eta TEKAZELen kudeaketa-lana murriztu.

Helburuak	Ekintzak
Kudeaketa arintzea beharrezko baliabideak ezarriz: araubidea eta baliabide pertsonalak eta teknologikoak.	<ul style="list-style-type: none"> · Legea eta aurrerapen teknologikoak kontuan hartuta, unibertsitatean dauden prozedurak aztertu, beharrezkoak ez diren urrats guztiak eta beharrezkoa ez den dokumentazioa ezabatzeari begira. · TEKAZELEk eta IRlek baliabide digitalak modu efektiboan erabiltzea sustatu, beraien potentziala aprobetxatuz. · TEKAZELen kontratazio berriak egin prestakuntza espezifikoak duten profilekin, ditugun behar ezberdinei modu egokian aurre egin ahal izateko.
Errektoreordeen arteko koordinazioa sendotzea kudeaketa efektiboa lortzeari begira.	<ul style="list-style-type: none"> · Errektoretza-kabinete indartsu bat sortu kudeaketa bideratzeko. · Kudeaketa aurrera eramaten duten arduradunak identifikatu eta haien lana aitortu JARDUN Planaren kreditu-poltsen erabilera egokia eta orekatua eginez. · Kudeaketarako organigrama definitu, bakoitzak dituen funtzio eta erantzukizunekin, edozein langilek zalantzak argitzeko norengana jo jakin dezan. · Gardentasuna bultzatu eta Errektoreordetza bakoitzak bere kanal propioa bideratu, parte-hartzea sustatzeko (ikus Agora Digitali dagokion 6.b.2 puntua).

5. ERRONKA: Unibertsitate inklusiboa eta berdinzalea bultzatu.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
Ekitatean sakontzea inolako diskriminaziorik gabe.	<ul style="list-style-type: none"> · Barne-aniztasuna, hots, UPV/EHU osatzen duten kideen jatorria, ibilbidea eta identitatea, errespetatu eta artikulatu. · Genero-ikuspegia txertatzen duen gobernantza-eredua praktikara eraman eta gobernantza feministarako planak diseinatu. · Campus bakoitzean berdintasun-bulego bat irekitzeko beharra eta aukerak aztertu.
Boto telematikoaren ahalbidetzea Unibertsitateko hauteskundeetan.	<ul style="list-style-type: none"> · Atzerrian dauden kolektiboen parte-hartzea bermatzeko, boto-sistema digitala abian jarri eta testean berme guztiak eskaini ditzan.

6. ERRONKA: Barne- eta kanpo-komunikazio eraginkorra bermatu.

Helburuak	Ekintzak
Goitik beherako komunikazio eraginkorra lortzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Gaur egungo komunikazio-bideei buruzko gogoeta bideratu, komunikazioak jarraitu behar duen bidea aztertu eta gidalerroa definitu. • Tresna digital ezberdinak bateratu eta komunikazio-saturazioa arindu eta antolatzeneko neurriak hartu. • Prozedura berrien komunikazio guztietan zalantzarik egonez gero argibideak jaso ahal izateko kontaktu-pertsona nor den zehaztu, eta formaziorako tresnak eskuratzea bermatu.
Informazio eguneratuaren jarraipena ahalbideratzea tresna digitalen bitartez.	<ul style="list-style-type: none"> • Sailek egindako plaza-eskaeren jarraipena egin ahal izateko prozedura digitala ezarri. • Ikertzaile Nagusiek haien proiektuen egoera ekonomikoaren jarraipena egin ahal izateko prozedura digitala ezarri.
Pertinentzia-sentimentua, parte-hartzea eta behetik gorako komunikazioa ahalbideratzea.	<ul style="list-style-type: none"> • UPV/EHUn kargu-ardura dutenen eta beste kideen arteko komunikazioa landu eta indartu, bi noranzkoetan egokiro funtziona dezan. Errektoreordetza estrategikoei fakultateetan zeharreko entzute-birak sistematizatu. • Behetik gorako komunikazioa jasotzeko, Agora Digital berria sortu, eta herritarren parte-hartzerako garatzen ari diren plataforma digitalak (adibidez decidim.org) unibertsitatera ekarri. Parte-hartze eta demokratizaziorako kanal berriaren baitan, Errektoreordetza bakoitzak atari propioa garatu, non unean une garatzen ari den proiektuak agertuko diren eta iruzkinak egiteko aukera zabalik egongo den, goitik erantzuna epe laburrean emateko. • Agora Digitalak gaur egungo UPV/EHUren egitura jarraituta, behetik gorako oinarriko egitura proposatuko da: Fakultateko Agora, Klaustro Digitala eta Gobernu Kontseilu Digitala. Egitura horretaz gain, gai zehatzak lantzeko batzorde digital irekiak sortzeko aukera egongo da, adibidez, Fakultateko Euskara Batzorde digitala. • Goi-karguek egiten duten kudeaketa ebaluatzeneko tresnak sortu, kontu emateko prozesuak hobetzeko.

<p>Kanpo-komunikazioa lantzea UPV/EHU marka gizar-tean behar den bezala proiektatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · UPV/EHUren marka-estrategia birdefinitu, berrindartu eta bertako lankideak prozesuaren parte egin, kanpo-proiektzioa funtsezko eragile bihurtuta. · Marka-estrategia berriaren baitan, markaren proiektzioarako praktika onen dekalogoak sortu. Ikertzaile eta irakasleei marka-proiektzioarako bitartekoak eta gidalerroak eman, besteak beste, komunikabideetako agerpenetarako, bideodeietarako eta harreman publikoak bideratzeko. · Digitalizazio Planaren baitan, web orria berriztatu eta informazio guztia hiru hizkuntzatan jarri: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. · Web orrian ingelesezko informazioa prestatu kanpoko ikasle eta ikertzaileak erakartzeari begira. · Komunikazioari buruzko formazioa bideratu zentro, ikerketa-talde edota bestelako egituretan integratzeko. · Ikerketa-talde bakoitzari komunikazio-kabinetean erreferentziako pertsona bat esleitu, transferentzia eta dibulgazioa bideratzeko. · Zientzia-komunikazio egokirako dekalogoak sortu euskal komunikabideekin batera.
--	--

7. ERRONKA: Herri-lidergoa bultzatu elkarlanean oinarrituta.

Helburuak	Ekintzak
Gizarte-eragileekiko elkarriketa hedatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Harreman Instituzionalen eta Komunikazioa eta Koordinazio, Kultura eta Konpromiso Sozialeko Errektoreorde sortu berrien bidez, gizartearekiko ardura eta konpromisoa indartu eta euskal jendarteak dituen erronkei aurre egiteko eragile anitzekiko elkarlana sustatu, UPV/EHUren lidergoa bultzatuz. · Osasun eta Hezkuntza alorretan Errektoreari Atxikitako figurak sortu, UPV/EHUK jada landu duen papera indartzeko eta politika publikoen diseinuan lidergo partekatua bideratzeko.
Gaur egungo gai emergenteen inguruko eztabaidak, plan eta aliantza estrategikoak garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Gai emergenteak identifikatzeko prozedura sistematizatu ikerketa-taldeekin eta, unibertsitate publiko unibertsala garen aldetik, gai horiek lantzeko modua finantziatu doktorego-tesien deialdi berezien bidez. · Ekimen eta jardun estrategiko desberdinak garatzeko egon daitezkeen oztopo eta arau-hesiak ezabatu edota eraldatu interes publikoa lehenetsiz. · Ezagutza-aliantzak eta -sareak sortu Euskal Herrian eta Nazioartean. · Ekimen pribatuekiko elkarlana sustatu betiere UPV/EHUko balioei eutsiz.

8. ERRONKA: UPV/EHU lurraldean errotutako campus anitzeko unibertsitatea dela aintzat hartu.

Helburuak	Ekintzak
Campus ezberdinen arteko koordinazioa bermatzea, beraien autonomia babestuz.	<ul style="list-style-type: none"> · Benetako polizentrismoa landu campus bakoitzean. · Campusen berezitasunak errespetatuz lan egin, lurraldean erreferente eta eragile erabakigarri bihurtzeari begira. · Campusetako errektoreordetzen funtzioak berrikusi eta areagotu. · Zentroetako eta Campusetako bizitza eta giroa biziberritzeko azpiegitura atseginak eta adeitsuagoak garatu, eta elkar-gune informaletarako eta atsedenerako tokiak sortu.

9. ERRONKA: Euskara eta eleaniztasuna bultzatu.

Helburuak	Ekintzak
Euskara eta eleaniztasuna bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none">· Euskararen erabilera normalizatu UPV/EHU, unibertsitateko aginte-organoetatik hasita.· UPV/EHU euskararen arnas gune bihur dadin eta praktika-toki izateko estrategiak diseinatu.· Gaztelaniari nazioartekotze-planean duen balioa eman.· Eleaniztasuna bultzatu nazioartekotze-prozesuarekin batera.

Ikas- eta lan-baldintzak

Pertsonen zaintza erdigunean



IKAS- ETA LAN-BALDINTZAK: DIAGNOSTIKOA

Unibertsitatearen komunitatea osatzen dugun guztiok baldintza egokiak behar ditugu gure egitekoak aurrera eramateko, bai ikasleriak, bai irakasleriak, eta bai teknikari, administrari eta zerbitzuetako langileriak ere. Baina baldintza horiek ez ditugu egun gure unibertsitatean hainbat esparrutan. Jarraian aipatuko ditugu zein den egoera hiru kolektiboetan bai berezkoak dituzten esparruetan, baita partekatzen ditugun alor komunetan ere.

Ikasleak

Komunitatearen eraikuntza, identitatea eta unibertsitate-bizitza

Diagnostiko partekatua da UPV/EHUko komunitate-bizitza eta nortasun-sentimendu kolektiboa ez direla behar bezain biziak eta indartsuak. Hainbat arrazoi daude errealitate horren oinarrian, besteak beste, unibertsitateak komunitateari **behar adineko zerbitzuak ez eskaintzea**, baina baita ematen dituen zerbitzu askoren **ikusgarritasuna mugatua** izatea ere. Izan ere, komunikazio-kanpainak ez dira oso eraginkorrak, eta teknologiaren eta sare sozialen erabilera nabarmen hobetu daiteke.

Ikasleen parte-hartzea mugatua da aisialdirako jarduerak eta eskaintzak eta, oro har, agenda kulturala diseinatzerakoan. Hortaz, diagnostiko eta ekintza-planen diseinu parte-hartzaileagoak behar dira baina, bestalde, agerikoa da **unibertsitateko asoziazionismo gradua mugatua** dela, oro har, eta bereziki ikasleen artean.

Tasak: UPV/EHU ikaslerik bazterrean utziko ez duen unibertsitate publikoa

UPV/EHUK oraindik arazoak dauzka ikasleentzako sarbide eta erabilera orokortua bermatzeko. Tasen existentziak berak muga sozioekonomikoak sortzen ditu; zorionez, Mendebaldeko eta Espainiako Estatuko testuinguruarekin alderatuta, gure unibertsitatean errealitate horri aurre egiteko neurriak hartu dira egoera sozioekonomiko zaugarrienean dauden ikasleek unibertsitate-hezkuntzarako eskubidea gauzatu ahal izateko eta inor bazterrean ez geratzeko. Edonola ere, neurri horiek ez dira aski, **matrikulen prezioak altuak** baitira eta ordaintze-ko moduak ez baitira izan litezkeen bezain malguak. Horrez gain, hirugarren eta laugarren deialdietako matrikulen arazoa dago, nabariki garestitzen baitira, eta maiz zaugarritasun ekonomikoko egoerak dituztenek pairatzen baitituzte, sarritan lan egin behar dutelako.

Azpiegitura eta baliabideak

Eraikin eta azpiegituren mantentzea urria da, eta higadurak eta matxurak pilatzen doaz; horrez gain, eraikin askok diseinu zaharkituak dituzte, eta ez dute bermatzen irisgarritasuna. Bestalde, ez dago atsedenerako eta bizikidetza komunitariorako aire zabaleko behar adineko espazio. Ildo berean, campus guztietan ez dago kirola egiteko instalaziorik.

Ikasleek ikasteko behar dituzten baliabideei dagokienez, **orain arte ez da posible izan ikasle guztiei ziurtatzea baliabide eta material teknologikoetarako sarbidea** lan akademikoak baldintza egokietan egin ahal izateko. Ikasteko eta ordenagailuak erabiltzeko gelen ordutegiak ikasleen beharretara hobeto egokitu beharko lirateke. Gainera, ikasleei (gutxienez egoera sozioekonomiko zaurgarrian daudenei) ordenagailu eramangarriak eta/edo tabletak maileguan uzterik balego, lan akademikoak baldintza egokiagoetan egin ahalko lituzkete.

Ongizatea eta kontziliazioa

Azkeneko urteetan Campusetara ailegatzeko **garraio publikoak** hobekuntzak izan baditu ere, oraindik ez daude behar beste linea, eta maiztasunak ere hobetu beharko lirateke. Gainera, ez dago hiru campusen arteko garraio publiko bidezko interkonektibitaterik.

Fakultate guztietan ez dago segurtatua **jatetxe/jantokien eskaintza**. Horrez gain, dauden jantokietako eta *vending* makinetako elikadura-eskaintza ez da kasu guztietan osasungarriena eta, gainera, ez da behar bezain jasangarria eta elikagai-behar desberdinetara egokitua.

Ikasleen ordezkariak **ikasteko konpatibilitate-arazoak** izaten dituzte, eta horrek zaildu egiten du ikasleak karguetara aurkeztea, zenbait traba izateaz gain, ez baitute pizgarri askorik.

Ongizatean eragiten duten faktoreei dagokienez, Entzute eta Erantzute Sarearen proiektuak behar batzuk betetzen baditu ere, **zailtasun akademiko, psikologiko, ekonomiko edo sozialak dituzten ikasleentzako arreta** ez da oraindik laguntza eta irtenbideak eskaintzeko behar bezain eraginkorra.

Berdintasunerako Zuzendaritza eta UPV/EHUko Genero Indarkeriaren Aurkako Protokoloaren ezagutzaren gradua ez da oso altua, eta ikasle batzuek salatu dute ez duela behar bezala funtzionatzen.

Azkenik **“Desgaitasuna duten Pertsonentzako Arreta Zerbitzua”** aurrerapauso bat izanik ere, haren jarduera-eremua mugatua da oraindik, eta zentzuzkoa izan daiteke zabaltzea egungo errealitateei eta beharrei ondo egokitzeko, eta Behar Espezifikoak dituzten Pertsonentzako Arreta Zerbitzu integral bat osatzeko.

Irakasleak eta Ikertzaileak

Irakasle eta ikertzaileen taldea eta ibilbidea

Egun UPV/EHUK irakasle eta ikertzaile **talde kontsolidatua du jakintzaren arlo guztietan**, bai irakasle funtzionarioenean, bai irakasle laboral iraunkorrean. **Promoziorako bidea ere sendotuta dago bi kolektibo horietan**, tarteka horren gauzatzea zaila izan bada ere. Bereziki zaila izan da egonkortasunerako bidea ia itxita egon den urteetan; izan ere, hainbat urteko itxaronaldia jasan behar izan dute irakasleek promoziorako baldintzak beteta izanda ere. Nolanahi ere, esan daiteke promoziorako bidea indartsua eta zabala izaten ari dela azken aldian. Hala eta guztiz ere, **maila goreneko plazen itxaron-zerrenda hazten hasi da dagoeneko sailetan**. Bestalde, azpimarratzekoa da **irakasle katedratiko eta osoen artean dagoen genero-arrakala nabarmena**. Seiurtekoak dira irakasleen artean dagoen genero-arrakalaren eragile nagusia, UPV/EHUn eginiko diagnosiaren arabera.

Nolanahi ere, **egonkortzeko zain dauden behin-behineko irakasleen multzo esanguratsua ere badugu**. Egonkortzeko jarritako baldintza zorrotzek eta aurrekontuetan egindako murrizketek nabarmenki zaildu dute egonkortze prozesua eta, ondorioz, **urteetan modu esanguratsuan atzeratu dute irakasle horien egonkortzea: 40 urteko adinetik gora**. Birjartze-tasaren malgutzeak eta irakaslearen ibilbidean hasierako derrigorrezko akreditazioa kenduta USLOk irekitako bide berriak irakasleen kolektibo horren egoera hobetze bidean jarri dute, baina ez dute inola ere guztiz konpondu, 600 irakasle inguru baitaude oraindik ere egonkortzeko zain. Izan ere, USLOren ezarpenak aukera ona eskaintzen zuen plangintza akademikoa (JARDUN) eta plantillaren planifikazioa bezalako gai garrantzitsuei modu garden eta adostuan heltzeko, betiere unibertsitate publikoaren behar eta interesen ikuspegitik baina, aukera berriak aprobetxatu beharrean, **kudeaketa bertikala eta Madriletik ezarritako irizpide eta baldintzei makurtutakoa egin da nagusiki**.

Gainera, irakasleen artean badira beste **bi kolektibo irakaskuntza bermatzeko beharrezkoak direnak** baina ezaugarri bereziak dituztenak. Batetik, unibertsitatetik kanpo ere lan egiten duten **irakasle elkartuak**. Irakasle horiek arduraldi partziala dute, eta sarritan irakaskuntzarako lanpostu osoen ordez erabiltzen dira, dirua aurrezteko. Orain USLOk mugatu egin du eman dezaketen kreditu kopurua, eta horrek zaildu egingo du horrelakoak osoko plazen ordez erabiltzea. Bestetik, **irakasle ordezkak** ditugu, sortzen diren hutsuneak betetzen dituztenak. Batetik daude behin-behineko bajak eta lizentziak direla eta sortzen diren hutsuneak estaltzen dituztenak eta, bestetik, bete gabe geratzen diren arduraldi osoko lanpostu hutsak betetzen dituztenak.

UPV/EHUn, hutsune horiek 2005etik arlo laboraleko arduraldi osoko behin-behineko langileekin bete dira, eta normaltasunez aritu dira ordezkako irakasle horiek irakaskuntzan, ikerketan eta kudeaketan, baina **USLOk ordezkak irakats-jardun soilera mugatuz eginiko arautzeak bajak eta lizentziak hartzen dituzten irakasleen ordezkapenak egiten dituzten irakasle horien egitekoa aldatu du**, eta irakaskuntza soila eta arduraldi partziala baino ez zaie aitortzen;

horrek soldata-murrizketa handia dakarkie, eta **prekarietate-poltsa berria sortu du**. Arazoa plantillako lanpostu berrien bidez konpontzeko egiten ari den ahaleginak mota honetako irakasleen beharrak mugatu ditzake, baina inolaz ere guztiz desagerrarazi. **Prekarietate-poltsa berri hori arduraldi osoa berreskuratuz edota haien egiteko guztiak aitortuz eta ordainduz baino ezin izango da konpondu.**

Horiekin guztiekin batera, irakasle-ikertzaileen kolektiboan **hainbat motatako ikertzaileak** ditugu. Gehien-gehienek behin-behineko izaera dute, bai ikerketa zehatzak egiteko kontratatutakoek, bai doktore aurreko ikertzaile gisa ikerketa-bidea egiten dutenek, baita doktoretza osteko espezializazio-lanetan deialdi zehatzen baldintzen pean lan egiten dutenek ere. Egonkortzea ahalbidetzen duten deialdiak bakanak dira arlo honetan, **eta egundo ez da egin inolako garapenik ikertzaile iraunkor mugatu horien promozio-aukeretan**. Hori bai, azkenaldian, egonkortze-aukerak zabaldu dira irakasle-esparruan kalitate handikotzat hartzen diren eta ebaluazioa gainditu duten zenbait ikerketa-deialditako ikertzaileentzat. Kolektibo horretan ez da gertatzen irakasleen esparruan dagoen jakintza-alorretan zeharreko presentzia orekatua, eta zientzien alorretakoak dira horrelako ikertzaile gehienak; hortaz, hutsune esanguratsuak daude, irakasle doktoreen gabeziak dauden jakintza-alorretan.

Ikertzaileen artean kolektibo nagusiak dira kanpoko funtsekin kontratatutako ikertzaileak eta doktoretza aurreko formazio-deialdietako ikertzaileak, baina aitortza txikia du haien lanak. **Doktoretza aurreko ikertzaileen ordaina ozta-ozta gainditzen du lanbide arteko ordainsaria**, eta **kanpoko ikertzaileetako asko lanaldi partzialean ari dira**, kanpoan lortutako dirua ez delako nahikoa arduraldi osoko kontratuak eskaintzeko. Egungo kontratu mugagabeek kolektibo horien ziurgabetasuna arindu badute ere, kanpoko finantziarioa edo finantziabide bermatzeko zailtasunak ziurgabetasun-egoeretan lan egitea dakarkie.

Ordainsariak

Irakasleen eta, neurri txikiagoan, ikertzaileen kasuan, lanaren aitortza eta ordaina **hainbat motatako norbanako-ordainsari osagarrietan dago oinarrituta aspaldidanik**. Ordainsari apalak ematen dira ibilbidearen hasieran, eta horrek hasierako lanpostuen erakargarritasuna mugatzen du, jarduera akademikoak garatu ahala norbanako osagarriak jasotzeko aukerak zabaltzen badira ere. Nolanahi ere, aukera horiek **kasuan kasuko baldintzak betez gero baino gauzatzen ez direnez, irakasleen arteko diskriminazio-egoerak sortzen dituzte**, bai arlo akademikoan eta bai kontratu eta kategoriaren arabera ere. Diskriminazio-iturri nagusiak dira irakasle finkoen eta behin-behinekoen artekoak, esaterako, bosturteko eta seiurteko dagozkienak, eta antzinatasunaren arabekoak, besteak beste, norbanako ordainsari gehigarriei dagozkienak. Gainera, **ordainsarien balioa eguneratu gabe dago** indarrean sartu zirenetik, eta haien balioaren % 30 galdu dute, inflazioa tarteko. Gauza bera gertatzen da ordainsari orokorren kasuan ere, horien hazkundera inflazioaren azpitik baitago azken hamarkadetan. Izan ere, erosteko ahalmenaren % 10eko galera jasan dute krisiari aurre egiteko propio hartutako murrizketa-neurrien ondorioz, eta jaitsiera horri gaineratu behar zaio **infla-**

zioaren gorakadak eta aurrekontu-igoera eskasek eragindako eros-ahalmenaren % 10eko galera.

Transferentziaren aitortza eta ebaluazioa

ANECaK ebaluatzen dituen **transferentzia-seiurtekoak** tresna aitzindaria dira Estatu mailan ikertzaileen ezagutza-transferentziarako jarduera ebaluatu eta aitortzeko. Seiurteko horiek kontuan hartzen dituzte, besteak beste, norbere ikerketa transferitzea beste erakunde bazueta, adibidez, hedabide, enpresa edo aditu-komiteetara, edo hitzarmenetan jasotako parte-hartzeak, esaterako, administrazio publikoekiko kontratuak. Zoritxarrez, ordea, transferentzia-seiurtekoak ez dira jarraipenik izaten ari eta haien irismena mugatua da, ez dutelako kontuan hartzen ez lurraldearen gobernantzan aritzea, ez euskarazko dibulgazioa eta produkzioa egitea, ez eta euskal ondarea berreskuratu edo zaintzeko transferentzia-lanak egitea ere. Egungo ereduak sari-sistematik kanpo uzten ditu Euskal Herrian hain beharrezkoak diren zeregin, konpromiso eta lan horiek guztiak.

Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak (TEKAZEL)

TEKAZEL langileen taldea eta ibilbidea

USLOk ekarritako izen-aldaketaz aparte, kolektibo honen egoera ez da askorik aldatu azken urteetan. Batetik, kolektibo honetako langileen kopurua ez da askorik handitu, eta TEKAZEL langile / irakasle-ikertzaile ratioa estatuko txikienetakoa da oraindik egun. Azkeneko datuen arabera, 5.269 arduraldi osoen pareko irakasle-ikertzailek eta 1.948 TEKAZELEk egiten dugu lan UPV/EHU gaur egun eta, beraz, bi kolektiboen arteko ratioa gordina 0,37 TEKAZEL da baliokidea den arduraldi osoko irakasle-ikertzaile bakoitzeko; 0,51ra igotzen da behin-behineko ikertzaileak kenduta. **CRUEk berak esana du ratio hori gutxienez 1era igo beharra dagoela kalitatezko zerbitzua eman ahal izateko.** Horrek esan nahi du gaur egun TEKAZELen plantilan ia 1.903 langile gehiago behar ditugula ratio horretara iristeko. Defizit hori konpondu ezean eta **ratio txikietan mantenduz gero, TEKAZEL langileek lan-zama handiei aurre egiten jarraitu beharko dute, horrek dakartzan ondorio guztiekin.** Ezagunak dira hainbat zerbitzutan egun dauden langile gabeziak (Irakasleen Errektoreordetzan, IKTetan, ikerketari laguntzeko administrazio-postuetan, SGIKER zerbitzuetan...), eta gabezia horiek kalte handia eragiten dute irakaskuntza- eta ikerketa-eginkizunetan, besteak beste, atzerapenak eta kideen zamak areagotzea.

Bestetik, **ez dago epe luzerako plantillaren planifikaziorik unibertsitateak dituen erronka berriei aurre egiteko** beharrezkoa duen lanpostuen zerrenda definitu eta osatzen hasteko. 2008tik horretaz hitz egiten bada ere, egiteke dago oraindik, eta postuen moldaketa banaka eta ikuspegi orokorrik gabe egin izan da urte hauetan.

Azkenik, **plantillaren behin-behinekotasun tasa oso handia da, bi herenetik gorakoa egun.** Horrek, era berean, galarazi egin du behin-behineko langile horiek promozionatu ahal izatea, urteak aurrera joan ahala zerbitzu-eginkizunak zein eginkizunen esleipen-eskubideak finkoei bakarrik onartzen baitzaizkie. Izan ere, TEKAZELen kolektiboa urte luzez izan da Enplegu Eskaintza Publikorik gabe. Egund indarrean diren 2019, 2020, 2021 eta 2022ko EPEak 2024ko abenduaren 31rako burutu behar dira, eta burututakoan behin-behinekotasun tasa nabariki murriztuko da baina, hala ere, **denbora beharko da urteetako pertsonal-politika desegokiek eragindako kalteak eta haserreak baretzeko.**

Ordainsariak

Lanpostuen lan-kargen azterketa eta balorazio ekonomikoa aspaldi eginikoak dira, eta oso urrun daude egungo errealitate eta eginkizunetatik. Premiazko eta, areago, atzera ezinezko eginkizuna da soldata-arrakala murriztea. Adibidez, atezaintza bezalako postuetan garaian egindako balorazio ekonomikoak erakutsitako mailak ozta-ozta ematen du bizitza aurrera ateratzeko. Beste adibide bat ematearren, aurrez aurrekoa den unibertsitate publikoaren betebeharrak sekula ahaztu gabe ere, badago egiteko bidea zerbitzu ona eta kontziliazioa errazteko lanaldi malguagoak uztartzeko estrategietan, besteak beste, telelanak ematen dituen aukerak hobeto baliatuz. Kolektibo honi dagokionez ere, ezin da aipatu gabe utzi azken urte hauetan izandako **eros-ahalmenaren galera (% 20koa)**, murrizketa-politiken eta inflazio altuari aurre egiteko politika ezaren ondorio dena. Nabariak dira horrek guztiak TEKAZELen artean sortutako mesfidantza eta ezinegona, unibertsitatearekiko atxikimendu faltan islatzen direnak. Lan-giroa hobetzeko, ezinbestekoa da lotura hori berreskuratu eta sendotzea.

Langile guztien gai komunak

Ikasteko eta lan egiteko baldintzetan eragiten duten eta aipamen berezia behar duten **zenbait gai komun daude, hiru kolektiboetara eragiten dietenak. Adibide batzuk ematearren, batetik, unibertsitatearen finantziazioa eta digitalizazioa daude eta, bestetik, buru-osasuna, garraioa eta campus desberdinen zerbitzu eta azpiegiturak.** Azkenik, badaude hiru kolektiboetara, ikasleei, irakasle-ikertzaileei eta TEKAZELei, dagozkien lan-baldintza komunak: lan-osasuna, formazioa eta kontziliazio-aukerak.

Unibertsitatearen finantziazioa

Unibertsitatearen finantziarioari dagokionez, **Eusko Jaurlaritzak UPV/EHU finantziazteko egiten duen ekarpena ez da nahikoa eta, gainera, termino errealetan – hau da, inflazioa kenduta – behera egiten ari da 2012tik hona.** Termino nominaletan (euro arruntak), Eusko Jaurlaritzaren ekarpena 2012ko 331 milioi eurotik 2024ko 386 milioira igo da. Baina 2021eko euro konstanteetan, 2012ko 357 milioi eurotik 2023ko 325 milioira jaitsi da. Areago, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Barne Produktu Gordinaren (BPG) ehuneko gisa, 2012ko % 0,50etik 2018tik gaur arteko % 0,40ra igaro da. Hau da, 2008an hasi zen atzeraldi handiaren ondorio modura justifikatutako **murrizketak, 2013tik aurrera bereziki bortitzak izan zirenak,**

sendotu egin dira gerora, eta UPV/EHUREN finantziario publikoa are gehiago urrunduta Espainiako Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoak 2030ean lortu nahi duen BPGko % 1etik. Horren ondorioa izan da unibertsitatearen gastu arrunta eta eros-ahalmenaren murrizketa (% 20 azken hamarkadan) baina baita azpiegituretan inbertsiorik ez egitea eta lehendik zeuden azpiegituren mantentze-beharrei ez erantzutea ere. Horren guztiaren ondorioz, kalte nabarmenak pairatu dituzte ikastetxe eta campusetako azpiegitura eta zerbitzuek, eta ikasteko eta lan egiteko lan-baldintzak nabarmen okertu dira ikasle eta langile guztiontzat, bereziki, baldintza zaurgarriak eta soldata-maila baxuak dituztenentzat. Horri guztiari gaineratu behar zaio unibertsitatean ikasi ahal izateko emandako beken kopurua jaitsi egin dela eta ikasteko tasen prezioak nabarmen igo direla bereziki 3. eta 4. deialdietan. Unibertsitate pribatuei, aldiz, finantziarioa handitu zaie, eta horien garapena bultzatu da nabarmenki diru publikoaren bidez: BCC, EUNEIZ, etab. Jokabide hori ez da bidezkoa eta borrokatu beharra dugu, unibertsitate publikoak bere lana duintasunez egiteko beharrezkoa den finantziarioa exijituz. Azken egunotan, eztabaida hau gaindituta dagoela dirudi. Alde batetik, gaur egungo Errektoreak, hasiera batean UPV/EHUK jasotzen zuen finantziarioa nahikoa zela esan arren, orain helburutzat jarri du “alcanzar un mínimo de financiación pública del 1% del PIB antes de 2030 y llegar, al menos, al 0,8% en 2026”. Bestetik, Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza Sailburu berriak esana du “Vamos a dotar a la UPV de la financiación suficiente para desempeñar su función”, inplizitoki onartuta orain artekoa nahikoa ez zela. Beraz, finantziarioaren igoera segurutzat eman genezake, eta fokua jarri premien eta lehenasunen hurrenkera ezartzean.

UPV/EHUko ikastegiz ikastegi egindako entzute-biran jasotako zenbait testigantzatan oinarrituta, fakultate batzuen (Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, ZTF/FCT) eraikin eta azpiegituren mantentze-egoera legez kanpokoa izatetik oso hurbil dago. Fakultate horiek funts ekonomiko nahikorik ez dute arazo larrienei aurre egiteko ere, eta UPV/EHUREN aldetik arazoei bizkar ematen zaiela jakinarazi digute. Baliteke arazo horiei aurre egiteko ezintasuna UPV/EHUREN egoera ekonomikoaren ondorio izatea, edota lehenasunak beste nonbait jarri izanarena. Gaur egun dugun egoeraren dimentsioa eta arrisku mailak kuantifikatzeko, diagnostiko sakona egin beharko litzateke ahal den eta arinen.

Digitalizazioa

Gizartean eta unibertsitatearen esparruan bizi dugun digitalizazio-prozesuak ere kolektibo guztioi eragiten digu, dakartzan arrisku eta aukerak tarteko. Digitalizazioak eragina du bai gure ikas-irakats eginkizunetan, bai ikerketa- eta lan-eginkizunetan, eta bai horiek guztiak antolatzen eta lotzen dituzten administrazio-lanetan ere. **Teknologiak gure lana hobetzeko eta ditugun lan burokratiko errepikakorren karga arintzeko bidea izan behar du.** UPV/EHUn hasiak gaude zenbait pauso egiten ildo horretan, baina oraindik **urrun gaude dituen potentzialtasunak guztion lan-kargak arintzeko baliatuzetik.** Baditugu zenbait zerbitzu digital eskura, baina behartuta gaude baita papera erabiltzeko eta lan burokratiko errepikakorrek egiteko ere. Hori guztia bideratzeko araudia oraintsu onartu da, baina garapena eta eralda-

keta aurrera eraman behar dira lehenbailehen eta, gainera, guztiontzako formazio-bideak bermatu behar dira.

IKTen erabileran erronka ugari ditugu, besteak beste, geure beharretarako tresna eta zerbitzuak geurean garatu eta sortzearena. Bide honetan gogoeta sakona egin beharra dago, ditugun ahalmenak aztertu eta beharizanak zehazteari begira. Gogoeta horren bidez, barnean garatu ditzakegun tresnak eta baliabideak eta kanpotik ekarri behar ditugunak zehaztu eta bidea egiten joan behar dugu.

Lan-osasuna, formazioa eta kontziliazioa

Garrantzi handia du langileen ondorengo jardun profesionalean, bai irakaskuntzan, bai ikerketan, bai TEKAZEL-arloko postuetan ere, lan-osasuna, formazio-aukerak eta -baldintzak, eta lan ordaindua eta zaintza-lanak uztartu eta kontziliatu ahal izateak. **Gurean arlo horiek nolabait zaintzen badira ere, bada zer hobetua.** Esaterako, lan-osasunaren arloan zailtasun handiak ditugu osasun-arreta egokia emateko, campusetako osasun-langileen falta dela eta; izan ere, aspaldi bete gabeko hutsuneak daude eskaintza erakargarrien faltagatik. Bestalde, buru-osasunari dagokionez, eskaintzen den arrisku psikosozialen artatzea oso ahula da, batez ere ikasle eta langileen estres-egoerak identifikatzeari begirakoa; alor honetan ere, langile kualifikatuen falta nabaria dago. Formazioaren esparruan eskaintza zabala dago irakasle eta ikertzaileentzat, eta bai TEKAZELentzat ere, baina gehiegitan *on line* eta lan-ordueta-tik kanpoko eskaintza izaten da, eta unibertsitatez kanpoko formatzaileak kontratatzen dira maiz, unibertsitate barruko potentziala behar beste erabili gabe.

Lan ordaindua eta zaintza-lanak bateragarri egiteko egun ematen diren lizentziak eta baime-nak **familia tradizionalera begirakoak dira, eta hori gainditu beharra dago**; izan ere, guztiok dugu zainduak izateko eta zaintzeko eskubidea, izan familia ensanblatuak, izan familia gabeko langileak (nahita edo behartuta). **Beraz, aitzindariak izan beharko ginateke eta euskal gizartearen aniztasunarekin bat egin.** Lotugrama (*vinculograma* gaztelaniaz) formula aitzindaria gauzatu beharra dago lan-hitzarmenetan, eta **lanaldiak malgutu egin behar dira** gure lan presentzialaren beharren betetze maila kaltetu gabe, **bai TEKAZELen eta bai irakasle eta ikertzaileen kasuan.**

IKAS- ETA LAN-BALDINTZAK: ERRONKAK

1. Ikasleen parte-hartzea indartu unibertsitateko bizitzan eta organoetan.
2. Ikasleen unibertsitaterako sarbidea eta jarraipena erraztu.
3. Ikasleentzako zerbitzuen hobekuntza, integrazioa eta erabilerraztasuna bultzatu.
4. Irakasle, Ikertzaile eta TEKAZEL kolektiboetako prekarietate-poltsei aurre egin eta behin-behineko langileak egonkortzeko prozesuak sendotu.
5. Irakasle, Ikertzaile eta TEKAZELen promoziorako aukerak areagotu, eta bakoitzaren formazio-beharrei modu integral eta antolatuan erantzun.
6. Generoaren araberako soldata-arrakala ezabatu eta kontziliaziorako bide berriak urratu.
7. Kolektibo guztien ordainsariak hobetu, bereziki maila apalenekoenak eta erretiroa baldintza duinetan egitea gauzatu.
8. TEKAZEL pertsonala handitu eta unibertsitateko TEKAZEL/IRI ratioa hobetu.
9. USLOk unibertsitate publikoetarako ezartzen duen BPGaren % 1eko finantziazio-helburua bete 2030erako.
10. Digitalizazioaren potentziala baliatu tramite burokratikoaren karga arintzeko eta kudeaketa eraginkorrago bihurtzeko.
11. Campus ezberdinetako garraio- eta zerbitzu-gabeziak zuzendu.
12. Zentroen erabilera zabala eta segurua bermatu.

IKAS- ETA LAN-BALDINTZAK: HELBURUAK ETA EKINTZAK

1. **ERRONKA:** Ikasleen parte-hartzea indartu unibertsitateko bizitzan eta organoetan.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
Kultura parte-hartzailerik ikasleen artean hedatzeko baldintzak sortzea behetik gorako eta goitik beherako informazio-kanalak eta formazioa hobetuz.	<ul style="list-style-type: none"> Goitik beherako eta behetik gorako komunikazio-plan eta egituratze berri bat egin. Leihatila bakarreko proiektu pilotuak martxan jarri. Unibertsitateko parte-hartze eskola sortu. Parte-hartzerako Agora Digital berrian ikasleen protagonismoa bultzatu.
Ikasleen autonomia parte-hartzailea bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleen elkarteak sortu eta sustatzeko plan bat abian jarri UPV/EHUren laguntza logistikoarekin. Ikasletxea bezalako espazio autogestionatuen hedapena bultzatu zentro eta ikastegietan. UPV/EHUren II. Partaidetza Planean jasotzen diren parte-hartzerako ekimenak martxan jartzen hasi, besteak beste, aurrekontu parte-hartzaileak bultzatuz. Ikasleek ikasleentzat sortutako komunikabideak bultzatu eta diruz lagundu: aldizkari (fisiko eta digitalak), irrati saioak, EHU telebista eta podcast edo bideopodcastak.
Ikasleen partaidetza erraztu eta aintzatestea.	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleen ordezkarietarako ikasteko bateragarritasuna bermatzeko sistema bat arautu. Parte-hartze portfolio digital bat sortu ikasle bakoitzak egindako jarduera guztietarako lotutako ziurtagiriak eta diplomak jasotzeko. Ikasle-elkarteei komunikazio-laguntza eskaini komunikazio-kabinetetik, egiten dituzten jardueren ikusgarritasuna areagotzeko.

2. ERRONKA: Ikasleen unibertsitaterako sarbidea eta jarraipena erraztu.

Helburuak	Ekintzak
Ikasleentzako sarbide eta erabilera orokortua bermatu egoera sozioekonomiko zaurgarriengatik inor bazterrean utzi gabe.	<ul style="list-style-type: none"> · Matrikulen ordainketa-moduak malgutu, epeak luzatuz edota hileroko ordainketa ahalbidetuz. · Zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleei laguntzeko deialdiekin jarraitu, horiek ebaluatuz eta indartuz. · Ikasleen etxebizitza-arazoa konpontzeko plan berezia garatu, besteak beste, erresidentziako plaza publikoak handitu eta eskuragarri egin, pisuak alokatu eta bilatzeko prozedura unibertsitatearen bidez sistematizatu, udalekin eta beste erakundeekin ikasleentzako alokairu sozialeko programak garatu.
Ikasleei ikasteko prozesuan beharrezkoak dituzten baliabide materialak segurtatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Ikasteko eta ordenagailuak erabiltzeko gelen ordutegiak zabaldu. · Egoera sozioekonomiko zaurgarrian dauden ikasleei ordenagailu eramangarriak eta/edo tabletak maileguan utzi.

3. **ERRONKA:** Ikasleentzako zerbitzuen hobekuntza, integrazioa eta erabilerraztasuna bultzatu.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
Egun dauden zerbitzu desberdinen arteko konexioa edota integrazioa egitea, teilkatzeak saihesteko eta efikazia handiagoa izateko.	<ul style="list-style-type: none"> · Ikasleentzako dauden zerbitzuen mapa eta ebaluazioa egin ikasleen parte-hartzearekin. · Leihatila bakarreko proiektu pilotuak martxan jarri. · Zerbitzuen ikusgarritasuna hobetzeko kanpainak egin.
Ikasleen parte-hartze handiagoa bultzatu zerbitzuen eskaintza diseinatzerakoan.	<ul style="list-style-type: none"> · Zerbitzuen sorrera eta berregituraketa egiteko plan parte-hartzaile bat aurrera eraman.

4. **ERRONKA:** Irakasle, Ikertzaile eta TEKAZEL kolektiboetako prekarietate-poltsei aurre egin eta behin-behineko langileak egonkortzeko prozesuak sendotu.

Helburuak	Ekintzak
Irakasle ordezkoen lan-baldintzak hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"> Ordezkapenak arduraldi osoan egiteko akordio sindikala bilatu eta gauzatu. Arduraldi partzialeko irakasle ordezkoen soldatak duintzeko negoziazio-bidea ireki alde sozialarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin, ordainsarrietan egiten duten lana eta benetako proportzionaltasuna kontuan har daitezten.
Doktore aurreko formazioko ikertzaile-kontratuen ordainsariak hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"> Alde sozialarekin adostu doktore aurreko ikertzaileen kontratuen egungo proportzioen igoerak irakasle atxikien % 100ekiko, 70-70-80-80 norabidean.
TEKAZELen 13, 14 eta 15 mailen ordainsariak hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"> 13 eta 14 eta 15 mailako TEKAZELen ordainsarien hobekuntza negoziatu alde sozialarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin.
Hiru kolektiboentzako (Irakasleak, Ikertzaileak, eta TEKAZEL) Enplegu Eskaintza Publikoak sustatzea, ondo planifikatzea eta behar bezala gauzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Urtero gauzatu alde sozialarekin negoziatutako irakasle eta ikertzaileen EPEa, eta bi urtean behin egin TEKAZELen kasuan, kasu bietan arau-esparruak baimentzen duen gehieneko lanpostu kopurua ateraz egonkortzeko eta promozionatzeko. Irakasle, ikertzaile eta TEKAZEL berrientzako harrera, zerbitzu-gidak eta formazio-plana zehaztu. Irakasle-plaza berrien ebazpena ikasturtea hasi baino lehen bukatu, klaseak ongi prestatu ahal izango direla bermatzeko.

5. ERRONKA: Irakasle, Ikertzaile eta TEKAZELen promoziorako aukerak areagotu, eta bakoitzaren formazio-beharrei modu integral eta antolatuan erantzun.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
Irakasle eta Iker-tzaileen promozioa egungo errealitateari egokituta eta berdintasun-baldintzetan egitea.	<ul style="list-style-type: none"> Sailetan Katedrak eta Irakasle osoen plazak ateratzeko urteko bakarreko muga kendu eta sailen egoeraren arabera baldintza berriak adostu eta ezarri.
TEKAZEL langile guztien lanbide-karrera bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Eusko Jaurlaritzak araututako langile publikoen lanbide-karrera unibertsitatera egokitu eta bertan indarrean jarri.
Hiru kolektiboentzako formazio-plan integralak diseinatzea eta abian jartzea.	<ul style="list-style-type: none"> Hiru kolektiboen ezaugarri bereziak kontuan hartuta, egungo lanei eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko formazio integrala diseinatu, postuen ezaugarriei eta langileen ibilbidearen uneari egokituz.

6. ERRONKA: Generoaren araberako soldata-arrakala ezabatu eta kontziliaziorako bide berriak urratu.

Helburuak	Ekintzak
Ordainsari orokorren bidea indartzen joatea, norbanako-osagarrien pisua berraztertuz, ordainsarrietan duten pisua orekatuz.	<ul style="list-style-type: none"> · Eusko Jaurlaritzarekin batera aztertu irakasle eta ikertzaileen ordainsari-sisteman oinarrizko soldatak duen pisua igotzearen aukera.
Ordutegiak eta lanaldiak zaintza-premiak kontuan izanda malgutztea.	<ul style="list-style-type: none"> · Presentziasuna bermatuta, zaintza-premiei erantzuteko lanaldi eta ordutegi malguak negoziatu ordezkariarekin. · Kontziliaziorako egungo neurriek familiakoak ez diren harremanetarako itxita dituzten bideak ireki negoziazio sindikalaren bidez. · Edoskitze-gelak izateko beharra eta aukerak aztertu.

7. ERRONKA: Kolektibo guztien ordainsariak hobetu, bereziki maila apalenekoenak eta erretiroa baldintza duinetan egitea gauzatu.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
Galdutako eros-ahalmena berreskuratzeko bidea irekitzea Eusko Jaurlaritzarekin: azken urteetako % 10eko galera berehala eskuratzea, eta murrizketekin galdutako beste % 10a aurrerago.	<ul style="list-style-type: none"> · Hurrengo hiru urteetan langile guztientzako KPlaren gainetiko soldata-igoerak adosteko bidea ireki Eusko Jaurlaritzarekin eta eragile sozialekin. · Irakasle eta ikertzaileen norbanako osagarrien ordainen eguneratzea adostu Eusko Jaurlaritzarekin eta eragile sozialekin.
Irakasle eta ikertzaileen ordainsariak eguneratzea eta sinplifikatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Irakasle eta ikertzaileen ordainsarien 41/2008 ordainsarien dekretuaren eguneratze- eta hobetze-bidea adostu Eusko Jaurlaritzarekin eta eragile sozialekin. · Norbanako osagarrien metaketaren bidea sinplifikatu eta oinarrizko soldataren bidea indartu euskal funtzio publikoaren erreferentziarekin. · Norbanako osagarri gehigarrien C tarteak eskuratzeko antzinate eskakizunak gutxitu (1 eta 3 urtera), deialdi galdua berreskuratu eta tarte guztien ondorio ekonomikoak aurreratu ebaluazio urtera
TEKAZEL langileen lanpostuen balorazio berria egitea berehalako ondorio ekonomikoekin.	<ul style="list-style-type: none"> · TEKAZEL langileen monografiak gaurkotu eta lanpostuen balorazio ekonomiko berria egiteko prozedura adostu eragile sozialekin, eta dagozkien ordainketa berriak gauzatzeko beharrezko ekarpena adostu Eusko Jaurlaritzarekin.
Erretiroa hartzea errazteko negoziazioaren bidetik adostutako neurriak mantentzea, ebaluatzea, egokitzea eta bide berriak urratzea.	<ul style="list-style-type: none"> · 2024ko deialdien aplikazioa eta emaitzak aztertu jarraipen batzordean. · Identifikatutako hutsune eta gabeziak zuzentzeko neurriak adostu. · Neurri berriak ezartzeko negoziazio bidea ireki (adinari- ez erretiroari-lotutako kreditu murrizketak ezarri, genero arrakalaren baimen bereziaren konpentsazio hobeagoak, metaketa aukera berriak eskaini, erretiroa hartzeko eguna malgutu, baimen ordainduaren bidea gehiago urratu...).

8. **ERRONKA:** TEKAZEL pertsonala handitu eta unibertsitateko TEKAZEL/IRI ratioa hobetu.

Helburuak	Ekintzak
CRUEk gomendatutako 1/1 TEKAZEL/IRI ratiara heltzea modu mailakatu.	<ul style="list-style-type: none"> · TEKAZELen defizit larrienak non dauden identifikatzeko egoeraren azterketa egin. · TEKAZELen defizita konponbidean jartzeko adostasuna bilatu Eusko Jaurlaritzarekin eta ordezkari sozialekin. · Urtean TEKAZELen plantillako 200 postu berri sortu.
TEKAZEL langileen erreferentzia-plantilla identifikatzea eta osatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · TEKAZEL langileen egoeraren azterketa egin, langileen beharren dokumentua osatu eta etorkizuneko erreferentzia-plantilla identifikatu eta martxan jarri Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean.

9. ERRONKA: USLOk unibertsitate publikoetarako ezartzen duen BPGaren % 1eko finantziazio-helburua bete 2030erako.

Helburuak	Ekintzak
<p>Eusko Jaurlaritzaren ekarpena gaur egungo % 0,4tik %0,9ra handitu 2030 bitartean, lehen urteetan gabezia larrienak estaltzeko ahalegin berezia egingenez.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Unibertsitatearen finantziazio-beharren memoria integrala osatu, azpiegituren inbertsioetan eta mantentze-lanetan, iraunkortasuna hobetzeko, TEKAZEL pertsonala handitzeko, IRlen plantilla- beharrei erantzuteko, eta ordainsariak hobetzeko. · Finantziazio-beharren memoria osatu eta egoera larrienak (bai azpiegituren bai pertsonalaren aldetik) identifikatu, lehentasuna eman ahal izateko. · Finantziazioa bermatzeko egutegi bat adostu Eusko Jaurlaritzarekin.

10. ERRONKA: Digitalizazioaren potentziala baliatu tramite burokratikoaren karga arintzeko eta kudeaketa eraginkorrago bihurtzeko.

Helburuak	Ekintzak
Digitalizazio-plan integrala osatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Identifikatu digitalizazioak burokrasia murrizteko onurak ekarriko dituen esparruak eta bikoiztutako tramiteak berrikusi eta zuzendu. • Lan-zama arinduko duten prozedura digital egokiak ezarri. • Aztertu ea kanpoko enprekin azpikontratatzeko diren zerbitzuak erabiltzaileen eta UPV/EHUren beharrak betetzen dituzten. • UPV/EHUK duen ikertzaile eta irakasleei buruzko informazioa digitalizatu, zenbait prozeduratan eskuz berriro bete behar ez izateko. • Digitalizazio-prozedurak definitu eta martxan jartzeko UPV/EHUko langileen beharrak eta digitalizazioaren gaian adituak diren UPV/EHUko profesionalen ekarpenak kontuan izan. • Langile guztiok gure eginbeharrak aurrera eraman ahal izateko ordenagailu aproposa dugula bermatu. • Ahalmen ekonomiko mugatua duten ikasleei ordenagailu bat eskaintzeko aukerak aztertu.
2030erako tramite administratibo guztiak modu digitalean egin ahal izatea.	<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzu administratiboaren eginkizunen karta egin, eginkizun horiek digitalizatzeko bitarteko egokiak identifikatu eta martxan jartzeko pausoak zehaztu. • Beharrezko formazioa garaiz eman langile guztiei beren lan-orduetan.

11. ERRONKA: Campus ezberdinetako garraio- eta zerbitzu-gabeziak zuzendu eta kultura ekintzak garatu.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
Campusetarako eta campusen arteko garraio-zerbitzua hobetzea eta jasangarritasuna bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Campusetara bidaiatzeko modu nagusi bezala garraio publikoa kontsolidatzeko neurriak hartu: doakotasuna bultzatu, maiztasunak hobetu, linea berriak esploratu eta campusen arteko interkonektibitatea indartu eta berriak sortu, Leiorako tranbiaren proiektua berreskuratu, metroa baztertu gabe, eta bestelako alternatiba batzuk ere aztertu. · Bidegorriak eta bizikleten herri-zerbitzuak campusetaraino ailega daitezen beharrezkoak diren pausoak egin. · Auto elektrikoetarako karga-puntuak ipintzeko aukerak planifikatu.
Lan-osasunerako zerbitzua izatea campus guztietan.	<ul style="list-style-type: none"> · -Medikuntza Fakultatearekin eta Osakidetzarekin lankidetzan birpentsatu osasun -zerbitzuko lanpostuen eskaintza nola egin erakargarri, behar diren profesionalak lortzeari begira. · Berreskuratu lan-osasunerako zerbitzua campus guztietan.
Arreta psikosozialerako zerbitzu integrala sortzea eta indartzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Arreta psikosozial integralerako zerbitzua hedatzea figura profesional berriak gehituz eta baliabide gehiago jarriz, ikasleen eta komunitate osoaren arreta psikosozialaren premiei egokiro erantzun ahal izateko.
Kirol- eta jantoki-zerbitzuak izatea campus guztietan.	<ul style="list-style-type: none"> · Behar diren kudeaketa-lanak egin egun falta diren kirol- eta jantoki-zerbitzuak jartzeko campus guztietan.
Aktibitate kulturalak campus guztietan bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Koordinazio, Kultura eta Konpromiso Sozialeko Errektoreordetzarekin lan egin politika eta ekintza kulturalak hiru campusetan ezartzeko.

12. ERRONKA: Zentroen erabilera zabala eta segurua bermatu.

Helburuak	Ekintzak
Unibertsitatea bere funtzioak bete ahal izateko urte osoan irekita mantentzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Zentroen irekiera berregituratu zerbitzu publikoaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik, une oro langileen sarrera bermatzeko. • Jai-egunetan langileak zentroetara sartzeko prozedura malgutu eta sinplifikatu.
Zentroetan lan-osasuna eta segurtasun-baldintzak ziurtatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Lan-baldintza termiko egokiak ziurtatzeko zentro guztien azterketa egin eta muturreko egoerak lehenetsiz instalazioen erabilera-arauak birdefinitu (kalefakzioarenak kasu) eta instalazioen berregokitze-planera gehitu. • Lan-baldintza egokiak ziurtatzeko, epe labur, erdiko eta luze-ko mantentze-plana definitu, egoera larrian dauden eraikin eta azpiegituren konponketari edota mantentzeari lehentasuna eman ahal izateko. • Mantentze-zerbitzu propioa indartu eta kanpo-enpresekiko azpikontratazioak murriztu. • Ikerketarako eta irakaskuntzarako erabiltzen diren laborategi, simuladore eta bestelako azpiegitura guztiek behar diren akreditazioak dituztela bermatu.
Zentroen eta campusen jasangarritasun eta efizientzia energetikoaren planak eta ekintzak bultzatzea: zentro eta campus berdeak.	<ul style="list-style-type: none"> • TEKAZELei campusen arteko birkokatze boluntarioa eskatzeko aukera eman, kontziliazioa eta jasangarritasuna bultzatzeko. • Jasangarritasun azterketa egin, energia-galerak nola murriztu daitezkeen, unibertsitatea itxi beharrean. • Espazio ezberdinen bentilazioa aproposari dagokion azterketa egin eta instalazioak berregokitzeko plana egin.

<p>Azpiegituren mantentze-egoeren inbentarioa egitea, eta hondatutako azpiegiturak eta eraikinak konpontzeko eta ikastegietan dauden espazioen eta azpiegituren hutsuneak betetzeko lehentasunak ezartzea, modu progresiboan konpontzen joateko.</p>	<ul style="list-style-type: none">· Arazo larriak dituzten bulegoak edota laborategiak identifikatu.· Ikasgeletan dauden entxufe-beharrak identifikatu, ikasleek haien ordenagailuak eta bestelako gailu elektronikoak kargatu ahal izatea bermatzeko.· Laborategietan dauden premiak zehaztu, ur beroa adibidez.· Fakultate batzuek dituzten espazio-beharrak aztertu, eta konponbiderako bideak proposatu, besteak beste, Arabako Campusetakoak eta Leioako Zuzenbide Fakultatea.
--	--

Irakaskuntza

Etorkizuneko harrobia



IRAKASKUNTZA: DIAGNOSTIKOA

Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) ikaskuntza-ikur nagusiak dira kalitatezko irakaskuntza, publikotasuna, unibertsaltasuna eta euskarazko irakaskuntza-eskaintza. Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate publikoa delarik, prestakuntzaren kalitatea eta sarrera unibertsala bermatu behar ditu, eskaintza zabala izan behar du jakintza-arlo guztietan eta, bereziki, euskarazko irakaskuntza-eskaintza bultzatu behar du.

Kalitatezko irakaskuntza

UPV/EHUren oinarrietako bat da kalitatezko irakaskuntza, eta horrek eskatzen du, besteak beste, ekitatea zaintzea, hau da, pertsona guztien hezkuntzarako eskubidea ziurtatzea, generoa, adina, maila ekonomikoa, sexualitatea eta jatorriaren gainera. Horretarako, orain arteko zenbait programari jarraipena eman behar zaie, eta bide berriak jorratu behar dira, ikasle guztien eskubideak eta zaintza bermatu ahal izateko.

Europako Goi Hezkuntzako Esparruaren irizpideak jomugan, 2010ean irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko mugari izan zen Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa deritzon hezkuntza-eredua (IKD) jarri zen martxan. UPV/EHUko ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak bideratzen dituen eredu propio, kooperatibo, eleanitz eta inklusibo horrek ikasleek beren ikaskuntzaren jabe izatea lehenesten du, baita prestakuntza integrala, malgua, etengabekoa eta gizartearen beharretara egokitua izatea ere.

Orduz geroztik, hainbat erakunde-programa sortu ditu UPV/EHUK, metodologia aktiboak eta berritzaileak sustatzeko (Eragin, FOPU ikastaroak...), hezkuntza-berrikuntzako taldeei laguntzeko (oinarrizko taldeak eta talde aurreratuak), irakasleen irakats-garapena indartzeko, irakaskuntza-lana ebaluatzeko eta titulazioak nahiz ikastegiak akreditatzeko. Kudeaketa-tresnak eta laguntza- eta orientazio-materialak ere sortu dira.

Ildo beretik, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura (GHEE) eta 2030 Agendara egokitzeko IKD ereduaren berrirakurketa eta moldaketa egin dira, IKDi3 estrategia eraikiz (Ikaskuntza x Ikerkuntza x Iraunkortasuna). Estrategia horren oinarri nagusia den "UPV/EHUren zeharkako gaitasunen katalogoa" eta horren zabalkunderako zenbait programa garatu dira, hala nola Ocean i3, Campus Bizia Lab eta IKD irakasle talde egituratuak. Horietatik abiatuta, Ikerketan Oinarritutako Ikaskuntza metodologia bultzatu nahi izan da (Inquiry-based Learning eta Research-based Learning). Hala ere, bide horretan **bai IKD ereduaren eta bai IKDi3**

estrategia bideratzeko oraindik irakasleen formazio-beharra dagoela somatzen da, baita irakasle lanetan era kooperatiboan aritzeko espazio eta bideak eraikitzea ere.

Baina horrek guztiak eta unibertsitateko irakaskuntzak gizartearen erronkei erantzun ahal izateko garrantzitsua da beste pauso bat ematea, hots, ikasleak kontsumitzaile izatetik irakatsi eta ikasteko prozesuen prosumitzaile izatera igarotzea, erronka sozial eta zientifikoei erantzutea sustatzen duen prestakuntza jasoz, eta haien ezagutza-arloko zein zeharkako kompetentziak garatu ahal izatea bermatuz. Izan ere, UPV/EHU egiten diren irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuek ikasleen artean pentsamendu kritikoko gaitasunen garapena sustatu behar dute, erantzukizunez jarduteko, erabakiak hartuz eta diziplinarako lankidetzaren bidez. Bestalde, diziplinazko prestakuntza sendo batetik abiatuta, erronketan, arazoetan, ikerketan eta/edo zerbitzuan oinarritutako irakaskuntza sustatu behar da, oinarri zientifiko eta teoriko sendoak dituen, eta ebidentzia zientifikoetan oinarrituta dagoena. **Unibertsitatea ezagutzaren eta zientziaren egoitza ez ezik, irakatsi eta ikasteko prozesuetatik hasita, gizartea eta bizitzak eraldatzeko eragile ere izan behar da:** unibertsitatean ikastea bizi-esperientzia paregabea da.

Horretarako, zenbait ekimen eta gogoeta jarri behar dira abian:

- Irakasle-sareen sorrera sustatu behar da, bai eta berdinen arteko irakasleen prestakuntza ere, lankidetzaren eta esperientzien sozializazioa bultzatuz.
- Irakasle etorri berriak gaitzeko programak antolatu behar dira, oraingo gaitasuna eta jarraipena areagotzeko begira.
- Jaitsiera demografikoak eta bizi-itxaropenaren handitzeak dakartzaten ondorioak aztertu behar dira, eta aipatutako metodologia aktiboak eraginkortasunez garatzeko irakaskuntza-testuinguru egokiagoak sortzeko aukeratzat hartu, horrelako metodologietan aitzindariak diren Europako nahiz munduko beste herrialde batzuetako unibertsitateen jardunbide egokiak erreferentziatzat hartuta.

Kalitatezko irakaskuntzaren oinarrizko gakoak dira ebaluazio-sistemen diseinua eta aplikazio eraginkorra. UPV/EHUK hainbat urte daramatza irakaskuntzaren ebaluaziorako ikasleen iritziari buruzko inkestak eta DOCENTIAZ programa aplikatzen. Ikasleen iritziari buruzko inkestak duela zenbait hamarkada diseinatu ziren, eta oro har onartuta dago oraingo testuinguruari egokitu beharko litzazkiokeela. **DOCENTIAZ** programa berriagoa da, baina hamarkada eta erdiko ibilbidea egin du lehen fase pilotua abian jarri zenetik. Programa horri dagokionez ere **iritzi hedatua da funtsezko egokitzeak behar dituela.**

Bestalde, teknologiaren garapenak erronka ugari dakarzkigu irakaskuntza arloan. Hasteko, garbi dago egun egiten dugun hizkuntzen erabileraren zati handia tresna teknologikoekin egiten dugula. Hala ere, euskaldunen oso portzentaje txikiak du lehenetsia euskara erabiltzen dituen tresnetan eta aplikazioetan (telefonoa, tableta, ordenagailua, eGela, nabigatzaileak, Google aplikazioak). **UPV/EHUko aplikazioetan defektuz euskarazko interfazeak eskaintzeak** erraztuko luke euskaldunek horiek erabiltzea; euskaraz ulertzen ez dutenek, aldiz, aldatu ahal izango lukete lehenetsitako hizkuntza ulertzeko beharrak gidatuta. **UPV/EHUkoak ez diren**

tresna elektronikoak eta aplikazioak euskaraz erabiltzeko gomendioak ere zabaldu beharko lirateke. Horretaz gain, askotarako **hizkuntza-tresnak** erabiltzen ditugu egunerokoan, besteak beste, **ortografia-zuzentzaileak eta itzultzaile neuronalak**, eta ezaguna da horien erabilera euskararen normalizaziorako badituela hainbat onura baina baita hainbat arrisku ere. Ikasle-irakasleen eta TEKAZELen artean, **hizkuntza-tresnen erabilerari buruzko praktika onak zabaltzeko kanpainak edo formazio-ekintzak** antolatu eta sustatu behar dira. Aipamen berezia behar dute hizkuntza-teknologia sortzaile berriek; izan ere, funtsezkoa da une honetan arretaz aztertzea eta zaintzea **adimen artifizialaren garapena nola bideratu, ikasleek eta irakasleek gaitasun digitalak garatu ditzaten**. Hortaz, beharrezko ikusten da UPV/EHU adimen artifizialaren gaineko politika-lerro bat zehaztea, AAren erabilera arduratsua bultzatuko duena, eta AAa irakaskuntzaren alorrez alorreko aplikazioak eta formazio-beharrak aseko dituen.

Aurreko guztiaz gain, **irakaskuntzaren kudeaketarako programa informatiko integral berri baten premia** handia da.

Ikasleei begirako unibertsitatea

Ikasleak dira unibertsitateko kide ugariak eta horren jardunaren funtsezko nagusia. Hortaz, **eragile aktiboak izan behar dira unibertsitatearen gobernantzan eta ikaskuntza-irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko prozesuetan**.

Unibertsitate aurreko etapetako ikasleekiko loturak estutu behar dira jasotzen duten orientazioa hobetzeko, Lau Haizeetara programa indartuz eta Bizkaiko Campusetik Araba eta Gipuzkoakora hedatuz. Garrantzitsua da **unibertsitate sartzeko probak (EBAU) egiten dituzten ikasleen eta gure graduatan matrikulatzen diren ikasleen profiletan sakontzea**: lehen eta bigarren hezkuntzako hizkuntza-ereduak, funtsezko soziolinguistikoa, jatorria, maila sozioekonomikoa, ikasketa jakin batzuk eta hizkuntza jakin bat(zuk) hautatzeko dituzten motibazioak eta mugak. Parametro horiek guztiak **monitorizatzea** funtsezkoa da unibertsitatearen eskaintza jendartearen ezaugarrietara eta beharretara etengabe egokitzeko. Ildo beretik, graduoko ikasketen eta graduondoko ikasketen arteko loturak sortu behar dira, ikasleek jarraitutasuna ikusi ahal izateko. Graduondoko eskaintza zabala da baina informazioa ez da argi iristen ikasleengana eta, askotan, noraezean sentitzen dira.

Unibertsitate lehen aldiz heltzen diren ikasleei harrera egokia egitea ere funtsezkoa da. Hortaz, BAT programa fakultate guztietan sendotu eta indartu beharko litzateke, besteak beste, ikasle parte-hartzaileek ikaskideei ezagutza behar bezala transmititzeko behar den prestakuntza eta informazioa jasoko dutela bermatuz. Ildo horretan, ikasleentzako etengabeko prestakuntzaren eskaintzan sakondu beharko litzateke eta *soft skill* edo trebetasun bignun garapena sustatu titulazioen prestakuntza-eskaintzen baitan.

Ikasleak behatzaile ezin hobekak dira irakasleok, TEKAZEL langileek eta unibertsitatearen beste gobernu-organo eta zuzendaritza batzuentzat ikusezinak diren jarduerak, dinamikak eta praktikak ikusteko. Hortaz, irakaslan ebaluatzeko inkestetan ematen duten iritzia ez ezik,

beren gogoetak, kezak eta kexak entzuteko tresnak eta dinamikak garatu behar dira. Izan ere, ikasleek lehen eskuko informazioa dute, besteak beste, irakaskuntza-gidetan zehaztuta-koaren betetze-mailaz, irakasleen praktika didaktikoez eta hizkuntza-praktikez, baita irakasleek sustatzen dituzten baloreez ere.

Euskara eta eleaniztasuna

UPV/EHU nahitaezkoa da euskal gizartea denetariko profesional euskalduneh hornitzeko. Azken hamarkadetan aurrera eraman den kontratazio-politikari esker, irakaslegoaren zati handi batek irakaskuntza eta ikerketa euskaraz egiteko gaitasuna du. Hori dela eta, egun UPV/EHU edozein gradu eta graduondoko batzuk osotasunean euskaraz ikasteko aukera ematen duen unibertsitate publiko bakarra da. Gainera, espezialitate-alor guztietarako hizkuntza-baliabideak (terminologia eta fraseologia) garatu behar izan dituzte komunitate akademiko euskalduneko kideek eskolak eman ahal izateko eta lan akademikoak eta denetariko artikuluak eta liburuak euskaraz idatzi ahal izateko. Prozesu horretan laguntzeko, azpiegitura ere garatu du UPV/EHUk hamarkada hauetan: Euskara Plan Gidariko Irakasgaiak, Euskara Zerbitzua, Euskara Institutua. Horrek denak erakargarri egiten du UPV/EHU euskaraz ikasi nahi duten EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko ikasleentzat eta, gainera, estrategiko bihurtu du Euskal Unibertsitate Sistema Nazionala garatzeari begira. Areago, euskarazko irakaskuntza gaztelaniazko irakaskuntza ere mantenduta garatu da, eta EAEko hizkuntza ofizialkide horrek erakargarri egiten du UPV/EHU baita euskaraz ikasi nahi ez duten edo euskaraz ez dakiten bertako biztanleentzat eta estatuko beste komunitateetako eta Latinoamerikako biztanleentzat ere.

Azken urteetan, nazioartekotzeko ahaleginak areagotzeko eskariak handitu dira, ikerketan ez ezik baita irakaskuntzan eta etengabeko formazioan ere. Horren ondorio bat izan da hizkuntza ez-ofizialak, bereziki, ingelesa, graduatan eta graduondokoetan txertatzeko plangintzak diseinatu behar izatea. Azken helburua da beste herrialde batzuetako ikasleak erakartzea eta bertako ikasleei nolabaiteko esperientzia linguistikoa eskaintzea egun komunikazio akademikorako *lingua franca* den ingelesez ere. Ingelesa irakaskuntza-sisteman txertatzeko prozesua gidatzen duten dokumentuei "Eleaniztasun Plan" izena eman zaie, baina gure unibertsitatean funtsezkoak diren hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) plan horretatik kanpo utzi dira, eleaniztasunak jokoan dauden hizkuntza guztiak barne hartzen dituela ahaztuta. Areago, nazioartekotzeko helburu horietan maiz ahaztu egiten da gaztelaniak gure unibertsitatean duen ezarpen handia eta, adibidez, 27 urtez garatu den Graduondoko Sare Latinoamerikarra (GSL).

Nazioartekotzeak baditu beste aurpegi batzuk ere, UPV/EHUren irakaskuntzaren kalitateari eragiten diotenak, besteak beste, ikasleek eta irakasleek beste herrialde batzuetan egonaldiak egin ditzaten sustatzen duten mugikortasun-politikak. Zalantzarik ez dago egonaldi horiek oso onuragarriak direla ezagutzaren eta komunikazio-gaitasun akademikoen garapenerako, baina zenbait ondorio ere badituzte bertako irakaskuntzan, besteak beste, hizkuntza ofizialetan eskaintzen diren hautazko irakasgaien ikasle kopuruetan eragiten baitute, baita sailen urteko irakats-ahalmenean ere. Nahitaezkoa da ondorio horiek ere arretaz aztertzea, mugikortasunak

irakaskuntzaren kalitateari bere ekarpena egin diezaion bestelako eremu batzuk kaltetu gabe. **Funtsezkoa da hizkuntza guztiak kontuan hartzen dituen hizkuntza-plana egitea.**

Nazioartekotzearen beste aurpegietako bat dira UPV/EHUra kanpotik datozen ikasleak. Zenbait ekimen daude gurera kanpotik ikastera datozenei Euskara eta Euskal Kultura transmititzeko, besteak beste, dohainik eskaintzen zaizkien euskara-ikastaroak, eta zenbait gradu eta graduondokotan eskaintzen diren **Basque Language and Culture irakasgaiak**. Nolanahi ere, eremu honetan egiten diren ahaleginak koordinatu, sistematizatu eta, agian, intentsifikatu egin beharko lirateke.

Ikasketen eskaintza

Garrantzitsua da azpimarratzea UPV/EHU unibertsitate presentziala dela, eta presentzialtasun horri esker ikasleek gaitasun konplexuak eskuratzen dituztela. Hala ere, etorkizunean irakaskuntzaren alorrean hartuko diren erabakiek gertatzen ari diren aldaketa demografiko eta soziokulturaletara egokitzeko balio beharko dute, eta teknologiaren eta adimen artifizialaren garapena aintzat izan beharko dute. Ildo horretatik, presentzialtasunaren garrantzia zalantza ezinezkoa bada ere, aitortu beharra dago online irakaskuntzaren garapena urria dela, eta **ikasi, bizi eta lan egiteko modu berriek online irakaskuntzaren estrategia birdefinitzea eskatzen dutela**. Pandemia garaian UPV/EHUko irakasleok frogatu genuen kalitatezko online irakaskuntza eskaintzeko, eta horren tresnak menperatzeko gauza garela. Gaitasun eta ikaskizun horiek bertan behera utzi behar ote diren, eta horrela balitz, zer alternatiba pedagogikoaren alde egin beharko genukeen pentsatzeko beharra ikusten da. UPV/EHUko ikasleen profilak askotarikoak dira, batxilergotik datozenetatik hasi, lan eta ikasi aldi berean egiten dutenekin jarraitu eta erretiroa hartu ostean Esperientzien Geletan ikasten dutenekin bukatuta. Alde batetik, **online irakaskuntzak graduondokoen eskaintza zabaltzeko** dakarzkigun aukerak landu eta ustiatu behar dira. Bestetik, **Esperientzia Geletan dauden ikasleentzat oso interesgarria izan daiteke presentzialtasuna eta online modalitatea uztartzea**. Izan ere, ikasle gehienek presentzialtasunak ematen dizkien sozializatzeko aukerak balioesten badituzte ere, mugitzeko arazo puntual edo iraunkorrak dituztenei konektatuta jarraitzeko aukera eman diezaieke online ereduak. Azkenik, azpimarratzekoa da on line modalitateak **euskarazko eskaintza handitzeko** aukera ere eman dezakeela.

UPV/EHU neurri handian Europatik eta Estatuko markoetatik datozen irakaskuntza antolatzeko eta garatzeko ereduak ezarri dira, kasu askotan araudiak hala eskaturik baina, beste zenbaitetan, inguruko unibertsitateekin lehiatzeko helburuarekin. Besteak beste, gradu bikoitzak eta dualak abian jarri dira proiektu horiek eskatzen duten eztabaida sakonik gabe. Gradu bikoitzetan bi gradu integratu beharrean, hautazko guztiak edo gehienak kendu, eta aparteko bi gradu izango balira bezala tratatzen dira, eta ikasleek bi GrAL egin behar dituzte. **Gradu bikoitzak hobeto aztertu beharko lirateke eta diziplinartekotasuna lantzen duten irakasgaiak txertatu beharko lirateke, baita ikasleei graduen gaitasunak elkartzen dituen GrAL bakarra eskatu ere**. Gradu dualak, aldiz, enplegarritasunarekin lotu dira, ikasleen formazioan eragin behar dituzten onurak lehenetsi gabe. Zenbaitetan horrek eragiten du

ikasleek unibertsitatean bertan garatu behar dituzten gaitasunen garapenari denbora eta lekua kentzea, trukean onuragarriagoak diren gaitasunak garatu gabe. **Gradu dualak enplegagarritasunetik deslotu beharko liriateke**; izan ere, egungo lan-merkatuaren aldakortasun azkarrak, epe luzeko enplegagarritasunari begira, aldaketetara egokitzeko oinarritzko gaitasunak eskatzen ditu, lanpostu baterako unean-uneko berariazko gaitasunak baino areago.

Euskal gizartearentzat estrategikoak diren ikasketak, besteak beste, osasun arloko graduak eta hezkuntzakoak sakonki aztertu behar dira, gizarteari behar dituen profesional euskaldun nahikoa eskaintzeari begira. **Ondo aztertu behar dira ikasle eta irakasle nahikoa lortzeko kanpo eta barne mugak**, eta bermatu behar da alor horietako ikasleek kalitateko formazioa ez ezik, **euskarazko komunikazio-gaitasun egokiak lortzen dituztela**.

Ikasleen mugikortasuna eta etengabeko ikaskuntza errealitate bat dira dagoeneko, eta horrek berekin dakar **graduondoko prestakuntzaren eta etengabeko prestakuntzaren eskaria handitzea**. Bost ikasle potentzial talde handi identifika daitezke: a) graduiko ikasketak UPV/EHU egin dituzten ikasleak, b) graduiko ikasketak beste unibertsitate batzuetan egin dituzten ikasleak, c) beste herrialde batzuetako ikasleak, d) lanbide-profila indartu nahi duten profesionalak, eta e) lanbide-etapa amaitu eta ikasten jarraitu nahi duten pertsonak. Unibertsitate publikoak bost kolektibo horiei erantzun behar die. Horretarako, gizarte-testuinguruko prestakuntza-beharrak etengabe aztertu behar dira, eskaintza-formatu berriak esploratu, atzerriko ikasleak erakarri, baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak bideratu eta, azken batean, epe ertain-luzerako estrategia bat diseinatu behar da, modu planifikatuan aurrera egin ahal izateko.

“Graduondoko ikasketak” aterkiaren azpian, ikasle-profil desberdinei zuzendutako eta prestakuntza-helburu desberdinak dituen prestakuntza-eskaintza zabala dago, 2023-2026 Graduondoko Ikasketen II. Plan Estrategikoan hiru jarduera-eremutan egituratzen dena: **unibertsitate-masterrak, doktorego-programak eta bititza osoko prestakuntza** (etengabeko prestakuntzako masterrak, espezializazioko diplomak, aditu-diplomak, etengabeko prestakuntzarako ikastaroak eta mikrokredentzialak). Prestakuntza-eskaintza anitza eta aldakorra da, eta, horren ondorioz, askotan, ikasleak galduta egoten dira prestakuntza bat edo bestea ezagutzeko eta aukeratzeko garaian. Hortaz, informazio eta orientazio ona behar izaten dute. Gainera, **graduondoko gehienak modalitate presentzialean eta gaztelaniaz** eskaintzen dira, eta beren prestakuntza euskaraz, modalitate birtualean edo ingelesez jarraitu nahi dutenek oso aukera mugatuak dituzte. Graduondokoen zuzendaritzen ikuspegitik, ukaezinak dira egungo **burokratizazioa, malgutasun eza eta kudeaketan laguntzeko bideratzen diren giza baliabideen urritasuna (TEKAZEL)**. Berezko Tituluei dagiokienez, azpimarratu behar da autofinantziatuak izan behar direla eta aurrekontuaren % 18 unibertsitateko zerbitzu zentraletarako dela; gainera, kudeaketa ekonomikoarekin konprometituko den TEKAZEL bat behar da. Baldintza horietatik abiatuta, oso zaila da **kalitatezko graduondokoen eskaintza irekia, malgua eta eguneratua** artikulatzea. Bukatzeko, **Doktoregoaren formazio-atala indartu** behar da, doktoregaiei eta tesi-zuzendariei berariazko eta zeharkako formazioa eskainiz.

IRAKASKUNTZA: ERRONKAK

1. Ekitatean sakondu, irakaskuntzaren kalitatea hobetuz eta guztien hezkuntzarako eskubidea bermatuz.
2. Ikasleak unibertsitatearen gobernantzan eta ikaskuntza-irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko prozesuetan eragile aktiboak izan daitezela sustatu.
3. Nazioartekotze- eta eleaniztasun-planetan hizkuntza ofizialak eta ez-ofizialak kontuan hartu, euskarazko kalitatezko eskaintza lehenetsiz.
4. Irakaskuntzaren bikaintasunerako, IKDi3 hezkuntza-eredua eta haren ezarpena aztertu, irakaskuntza-egoeren eta ikasleen aniztasuna kontuan hartzen dituen eredua garatzeko.
5. Irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzarako ebaluazio-sistemen diseinu eta aplikazio eraginkorra egin eta ikerketarako bidea erraztu.
6. Teknologiaren garapenak ikaskuntza-irakaskuntzaren arloan ekartzen dizkigun erronkei aurre egin.
7. Eskaintzen diren graduak eta graduondokoak aztertu eskaintza hobetzeari begira.
8. Bizitza osoko formazioa sustatu.
9. Doktoregoaren formazio-atala indartu.

IRAKASKUNTZA: HELBURUAK ETA EKINTZAK

1. ERRONKA: Ekitatean sakondu, irakaskuntzaren kalitatea hobetuz eta guztien hezkuntzarako eskubidea bermatuz.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
UPV/EHUra jotzen duten ikasleen ezaugarriak eta motibazioak monitorizatzea, ekitatean aurrera egin ahal izateko bideak identifikatzeari begira.	<ul style="list-style-type: none"> UPV/EHUra jotzen duten ikasleen profilari buruzko datuak biltzeko galdetegi(k) prestatu eta landu: generoa, adina, maila ekonomikoa, jatorria, eremu soziolinguistikoa, etab. Ikasleek gradu jakin batean eta hizkuntza jakin batean matriculatzeko dituzten motibazioak, aurreikuspenak eta oztopoak jasotzeko galdetegiak prestatu eta landu.
Ikasleek ibilbide akademikoan arrakastaz aurrera egiteko dituzten oztopo eta zailtasunak identifikatzeko eta konponbideak emateko azterketak egitea.	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleek ibilbide akademikoan aurrera egiteko dituzten zailtasunak eta oztopoak identifikatzeko galdetegiak prestatu eta landu. Gure eskuetan dauden ekimenak abian jarri ikasleek beren ibilbide akademikoan arrakastaz aurrera egiteko dituzten zailtasunak eta oztopoak desagertzen laguntzeari begira. Ikasleek egin behar dituzten urratsetarako egutegiak ondo aztertu, egutegia ez izateko aurrera egiteko oztopo. Campusetako ikasleen leihatila bakarra sortu: ikasleek izan ditzaketen oztopo anitzei aurre egiteko campusetan informazio, orientazio eta arreta integralerako zerbitzua sustatu, egun ditugun programa espezifikoak barne bilduz: ezgaitasunak, indarkeria, arazo sozio-familiarrak, arazo psikologikoak, arazo ekonomikoak...

2. **ERRONKA:** Ikasleak unibertsitatearen gobernantzan eta ikaskuntza-irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko prozesuetan eragile aktiboak izan daitezela sustatu.

Helburuak	Ekintzak
Unibertsitate aurreko etapetako ikasleekiko loturak estutzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Unibertsitate aurreko etapetako ikasleei zuzendutako orientazioa hobetu. · Lau Haizetara programa indartu eta Bizkaiko Campusetik Arabako eta Gipuzkoako Campusetara zabaldu.
Graduondoko ikasle potentzialei informazio eta orientazio egokia bermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · UPV/EHUko web-orrian jasotako informazioa osorik eta eguneratuta dagoela bermatu. · UPV/EHUK eta kanpoko eragileek antolatzen dituzten graduondoko azokak eta jardunaldiak bultzatu. · Masterretako ikasleen eta doktorego-ikasketetako ikasleen arteko topaketak bultzatu.
Unibertsitatera lehen aldiz heltzen diren ikasleei harrera egokia egitea.	<ul style="list-style-type: none"> · BAT programa fakultate guztietara hedatu eta sendotu. · Ikasle parte-hartzaileei ikaskideei ezagutza behar bezala transmititzeko prestakuntza eta informazioa eskaini.
Ikasleen gogoetak, kezkak eta kexak entzuteko tresnak eta dinamikak garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Campusetako eta Fakultateetako leihatila bakarrak ezarri. · Urtero fakultatez fakultate edo eskolaz eskola ikasleekiko entzute-saioak egin. · Ikasleen autonomia sustatu, haiek kudeatzen dituzten espazioak sortuz eta ikasleen antolakundeak sustatuz, komunitate-atxikimendua eta unibertsitatearekiko identifikazioa indartzeari begira. · Ikasleen parte-hartzearen aintzatespenerako portfolioa sortu.

3. ERRONKA: Nazioartekotze- eta eleaniztasun- planetan hizkuntza ofizialak eta ez-ofizialak kontuan hartu, euskarazko kalitatezko eskaintza lehenetsiz.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
<p>Euskarazko irakas-kuntzaren eskaintza zabaltzen eta euskara babesten jarraitzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskarazko irakasgaiak gutxienez gaztelaniazkoak beste izatea. Izan ere, une honetan euskaraz matrikulatzen diren ikasleak erdia baino gehiago dira, baina oraindik graduen enborrezko irakasgai guztiak ere ez dira eskaintzen euskaraz. • Hautu hori egiten duten ikasle guztiei bermatu euskaraz ikasteko eskubidea. • Kirol-arloko ikasketetan eta zentroa euskalduntzeko politika sendoa abian jarri, euskara ez bakarrik eskoletan, zentroen bitartean bertan ere presente egoteko. Kirol-arloa funtsezkoa da aisialdia euskalduntzeko. • Euskarazko eskaintzarik ez duten edo eskaintza txikia duten ikastegietan, euskara sartzeko urratsak eman. • Medikuntzako graduako irakasgai kliniko guztiak euskaraz eskaintzeko epe laburrerako planifikazioa egin. • Irakaskuntza euskaraz emango duten irakasle klinikoak lortzeko nahitaezkoa den laguntza eskaini, besteak beste, euskarazko materialak edota material horiek prestatzeko hurbileko laguntza sendoa eskainiz. • <i>Venia docendi</i> duten ikertzaile eta profesionali euskarazko prestakuntza jasotzeko eta euskarazko irakaskuntza emateko aukera eman. • Hautazko irakasgaien euskarazko eskaintza bermatzeko estrategiak adostu. • Graduondokoen eskaintza euskaraz handitzeko egon daitezkeen aukerak identifikatu, eta euskarazko eskaintza zaindu eta lehentasuna eman. • Esperientzia Geletan euskarazko ikasgaiak ere eskaini. • Euskara akademikoaren garapenari eta finkapenari laguntzen dioten planak eta estrategiak garatu, dugun azpiegitura abiapuntutzat hartuta eta huts egiten duten sinergiak bultzatuz: ikasle-irakasle euskaldunak, EPGko irakasgaien irakasleek ikastegi guztietan osatzen duten sarea, TSE programaren barruan garatutako azpiegitura teknologiko eta metodologikoa, Euskara Zerbitzua... • Terminologia Plangintza sendoa egin, deskripzio eta ikerketatik hasi eta harmonizazioa eta sozializazioa jomugan dituen.

	<ul style="list-style-type: none"> · Irakasle-ikertzaileen euskara-maila zaindu, eta hutsuneak konpontzeko estrategiak diseinatu: laguntza-baliabideak, prestakuntza-tailerrak eta ikastaroak... · Kalitatezko euskarazko irakaskuntza posible egiteko irakasle euskaldunek egiten duten ahalegin handiari merezi duen aintzatespena eman: euskarazko materialak, terminologia-lana, formazio-programen parte-hartzea, euskarazko lan akademiakoak zuzentzea... · Euskarazko irakaskuntza zaintzeko (euskarazko gidak eta materialak, terminologia, fraseologia...) sailek duten erantzukizuna lehen planora ekarri, eta sailetan egiten diren ahaleginak aintzatetsi. · Unibertsitatea euskal gizartearentzako erreferente bihurtu euskararen biziberritze-prozesuan, beste eragileekiko lankidetzaz sustatuz, eta UPV/EHUK prozesu horri egiten dion funtsezko ekarpena gizarte osoari helaraziz eta transferituz.
<p>Nazioartekotze-politikek euskararen normalizazio-politika ez oztopatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Nazioartekotze-politikek euskarazko taldeetan dituzten ondorioak aztertu (hautazkoen ikasle kopuruak, euskarazko hautazkoen bideragarritasuna, euskararen prestigio-galera...), hizkuntza-plan integrala definitzeari begira. · Hizkuntza bateko eta besteko hautazkoak eta taldeak onartzeko dagoen epe laburreko urteroko begirada alde batera utzi, eta epe ertaineko plangintza egin taldeak antolatzerakoan, betiere euskarazko taldeak babesteari lehentasuna emanez. · Testuinguru akademiko eleaniztunean, eta bereziki, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan hizkuntza ofizialak eta ez-ofizialak kudeatzeko praktika onak definitu eta irakasle-ikasleen artean sozializatu. · Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO katedraren jarduna eta ekarpenak nazioartekotze-politikekin eta euskara akademiakoaren garapenarekin uztartu. · Kanpotik datozen ikasleei euskarari eta euskal kulturari buruzko ezagutza transmititzeko dauden baliabideak (euskara-eskolak, BLC irakasgaiak...) egokiro egituratu eta indartu. · Frantziako sisteman ebaluatuak diren iparraldeko ikasleek euskarazko graduatan sartzeko dituzten arazoei irtenbidea eman.

<p>Nazioartekotze-politiketan gaztelaniaren ekarpena balioan jartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gaztelaniak UPV/EHUn duen presentzia nagusia kontuan hartu nazioartekotze-politiketan. • Gaztelaniak euskaraz ez dakiten Estatu barruko eta Estatutik kanpoko ikasleak erakartzeko duen balioa aintzat hartu. • Urteetan garatutako Graduondoko Sare Latinoamerikarra balioan jarri, eta bestelako nazioartekotze-politika batzuekin batera landu.
<p>Ingelesezko prestakuntza-eskaintza berraztertu, beste herrialde batzuetako ikasleak erakartzeko helburuaren argitan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Graduetan ingelesezko ikasgaien eskaintza aztertu hizkuntza guztiak kontuan hartzen dituen hizkuntza-plangintzaren argitan. • Graduondoetan ingelesezko eskaintza handitu, atzerriko ikasleak erakartze aldera.

4. ERRONKA: Irakaskuntzaren bikaintasunerako, IKDi3 hezkuntza-eredua eta haren ezarpena aztertu, irakaskuntza-egoeren eta ikasleen aniztasuna kontuan hartzen dituen eredua garatzeko.

Helburuak	Ekintzak
<p>IKDi3 hezkuntza-eredua aztertzea UPV/EHUren bereizgarrietara (euskalduna eta publikoa) egokitzen ote zaien ebaluatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasgai bakoitzerako erreferentziazko ikasle-gida bakarra, egokitua eta adostua dagoela bermatu. • Hizkuntza- eta komunikazio-gaitasuna eta eleaniztasuna kontuan hartzen dituen eredua garatu, eta irakasleentzako praktika onak eta prestakuntza-programak definitu. • Irakasleei laguntza eta baliabideak eskaini ahozko eta idatzizko testuen kalitatea zaintzeko eta <i>translanguaging</i> teknikak aplikatu ahal izateko. • Hezkuntza-eredua irakasleen artean oro har zabaltzen eta ezartzen dela bermatu, metodologia aktiboak eta ebaluazio jarraitua eta formatiboa baldintza egokietan aplikatzeko formazio-bide ezberdinak bideratu. • Ikerketaren eta irakaskuntzaren arteko loturak landu eta zaindu. • Practicum zuzentzeagatik eta lan akademikoak zuzentzeagatik (GrAL, MAL, DT) aitortzen den kreditu kopurua handitzeko bideak topatu, oso azpitik kalkulatuta baitago horiei eskaini behar zaien ordu kopurua eta irakas-ahalegina. • Lan akademikoak zuzentzeagatik JARDUN Planean egiten den aintzatespena urtean bertan aplikatu. • Alor batzuetan behar diren irakasleen berezitasunak kontuan hartu, besteak beste, lan klinikoa egiten duten irakasleena eta nautikako irakasleei eskatzen zaien nabigaziorako akreditazioa. • Azoketan eta bestelako difusio-ekimenetan egiten den lana egokiro aintzatetsi. • Garapen Jasangarrirako helburuak eta ikuspegi ekosoziala ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan txertatzeko bideak sustatu eta formazioa eskaini.

<p>Hezkuntza-eredua irakaskuntza-egoeren eta ikasleen berezitasunetara egokitzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Hezkuntza-ereduan taldeen ikasle kopuruak eta ikasle motak kontuan hartu, irakaskuntza-egoera desberdinei aurre egiteko baliabideak eskaintzeari begira. · Ikasle/irakasle ratioak jaitsi, eta irakaskuntza-modalitateei hobeto egokitu. · Metodologia aktiboak eta ebaluazio jarraitu formatiboa aurrera eraman ahal izateko, beharrezko baliabideak eskaini. · Irakasleen plan gidaria osatu eta indarrean jarri. · Hezkuntza-eredua ikasleen berezitasunetara egokitzeko tutoretzek duten garrantzia aitortu, eta inor atzean ez uzteko helburuari begirako praktika onak definitu. · Irakaskuntzarako azpiegituren hutsuneak eta beharrian berriak aztertu eta erantzun plan bat zehazteko. · Titulazioen berezitasunak aztertu, eta bereziki unibertsitateko eskakizunak ez ezik kanpoko erakundeen eskakizunak ere bete behar dituztenak, bete ditzaten bermea eman.
<p>Irakasle hasiberrientzako dozentziari buruzko formazioa eta baliabideetan sakontzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Irakasle hasiberrientzako dozentziari buruzko orain arte egin diren formazio-programetan sakondu eta hedatu. · Irakasle berrientzako hezkuntza-baliabideetan sakondu.
<p>Irakaskuntza-lana hobeto aitortzea eta irakaslanaren banaketan dauden baldintza desorekatuei aurre egitea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Ikasle-taldeen kopuruetan dauden desorekak murriztu eta laborategietako ikasle kopuruak egokitu, irakasleon jarduna orekatuagoa izan dadin jakintza-arlo, ikastetxe, sail eta sekzio desberdinetan.

5. ERRONKA: Irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzarako ebaluazio-sistemen diseinu eta aplikazio eraginkorra egin eta ikerketarako bidea erraztu.

Helburuak	Ekintzak
<p>Ikasleen iritziari buruzko inkestak gaurkotzea eta egokitzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Inkesten formulazio orokorra gaur egungo irakas-ikas baldintzetara egokitu. • Inkestetan irakasleengandik jasotako inputaren hizkuntza-kalitateari buruzko galderak gehitu. • Ikasleen iritziari buruzko inkestetan, eleaniztasunaren kudeaketari buruzko galderak gehitu. • Inkestetan, tutoretzen erabilerari buruzko galderak gehitu. • Ikasleen iritziari buruzko inkestetan ikasle kopuruak kontuan hartu. • Ikasleen iritziari buruzko inkestak irakasgai praktikoei ere zabaldu. • Ikasleen iritziari buruzko inkestak Esperientzia Geletarako egokitu. • Ikasleen iritziari buruzko inkestak graduondokoetara egokitu.
<p>DOCENTIAZ programan birpentsatzea eta doitzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • DOCENTIAZ programa doitzea eta programan presentzia txikia duten alorrak gaineratu: hizkuntzen erabilera eta aniztasuna, tutoretzen erabilera, lan akademikoen tutorizazioa, ikasle kopuruak... • Irakasleei eta, bereziki, irakasle hasiberriek ikasleen inkesten eskakizunei eta DOCENTIAZ programan parte hartzeari eskaini beharreko denbora eta ahalegina aztertu, ebaluazio-prozesuek haien jarduna ez zailtzeko edo ez oztopatzeko. • DOCENTIAZ programan hartutako eta emandako formazioa ebaluatzeko malgutasuna handitu. Kontuan hartu irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko irakasle-ikertzaileek behar duten edota eman ahal duten formazioa askotarikoa dela, eta espezialitate-alorrek nabariki baldintzatu dezaketela. Era berean, aintzat hartu irakasleok egiten dugun ikerketak gure irakats-jardunarekiko zenbaterainoko lotura duen.

6. ERRONKA: Teknologiaren garapenak ikaskuntza-irakaskuntzaren arloan ekar-tzen dizkigun erronkei aurre egin.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
Tresna teknologikoek egu-neroko hizkuntzen era-bileran duten garrantzia aintzat hartzea, eta ustia-tzeko estrategiak lantzea.	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitateko aplikazio informatikoez defektuz euska-razko interfazeak eskaini. Ikasle-irakasle eta TEKAZELeentzako formazio-pilulak eskai-ni, erabiltzen dituzten tresna eta aplikazio teknologikoe-tan euskara lehenetsitako hizkuntza modura jar dezaten.
Irakasle-ikertzaileei, ikas-leei eta TEKAZELeizuzen-dutako formazio-progra-mak diseinatzea itzultzaile neuronalak bezalako hiz-kuntza-teknologiaren erabi-leren onurez eta arriskuez jabetu daitezen.	<ul style="list-style-type: none"> Itzultzaile neuronalak eta ortografia-zuzentzaileak beza-lako hizkuntza-teknologiaren erabileraren praktika onei bu-ruzko formazioa eskaini. Hizkuntza-teknologia horiek testu akademikoaren erabile-rarako dituzten hutsuneak aztertu eta teknologia horiek garatzen dituzten eragileei helarazi, egokitzen eta hobe-tzen joan daitezten.
Irakasleei ikaskuntza-ira-kaskuntza prozesuetan IKTen erabilerarako beha-rrizan eta egoera ezberdi-nei erantzutea.	<ul style="list-style-type: none"> Irakasleei ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan IKTen erabi-lerarako beharrezkoak ezberdinei erantzuteko dien eta irakasle bakoitzaren egoerara moldatuko den formazioa eskaini. Irakaskuntzaren kudeaketarako programa informatiko in-tegral berri bat garatzeko bidea aurkitu.
Adimen artifizialaren ga-rapena ikasleen gaitasun digitalen garapenarekin uztartzeko ekimenak lan-tzea.	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitate mailako ikaskuntza-irakaskuntza prozesu guztietan Adimen Artifizialaren erabilpenaren ardura-tsuaren eta eraginkorraren gaineko irizpideak zehaztu, gogoeta kolektiboaren bidez. Irakasleentzako Adimen Artifiziala ikaskuntza-irakaskuntza prozesuetan erabiltzeko formazioa eta tresnak eskaini. UPV/EHUK adimen artifizialeko lizentziak eskuratu ikas-leei, irakasleei eta TEKAZELEI, horiei buruzko formazioa emateko eta horien erabileran trebatzeko. Adimen artifizialeko tresna propioak garatu, irakasleek, ikasleek eta TEKAZELEk modu etiko eta legezkoan erabili ahal izateko. Adimen artifizialak ebaluazio-moduei nola eragiten dien ondo aztertu, eta ebaluazioa eraldatzeko dituen ondo-rioei buruzko formazioa eskaini.

7. ERRONKA: Eskaintzen diren graduak eta graduondokoak aztertu eskaintza hobetzeari begira.

Helburuak	Ekintzak
<p>Graduen eta graduondokoen planak berrikustea, bereziki, gradu bikoitzak eta dualak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Graduak araudia berrikusi, betetze-mailaren aldetik eta egungo egoerara egokitzeko behararen aldetik. • Graduetan eta graduondokoetan egokitzeak eta esperientzien ebaluazioan oinarritutako hobekuntzak egiteko prozedurak malgutu. • Graduen berrikusketa egin, enplegatzailen informazioa kontuan hartu, irakasleei irakasgaietan trebetasun bigunak (<i>soft skills</i>) eta zeharkako konpetentzia garatzeko baliabideak eskaini. • Gradu bikoitzak egokitu, diziplinartekotasuna lortzeari begira: diziplinartekotasuna lantzeko hautazko (irakas)gaiak, GrAL bakarra baina diziplinartekoa, etab. • Irakaskuntzarako masterraren eskaintza indartu, eskaintzak dagoen matrikula eskariari erantzun egokia emateko. • Ikastaro irekiak sustatu (OCW, MOOC, eta abar). • 2023-26 Graduondoko Ikasketen II. Plan Estrategikoaren ebaluazioa baliatu gizarte-testuinguruko prestakuntza-beharrak identifikatzeko, eskaintza-formatu berriak aurreikusteko eta TEKAZELen laguntza indartzeko. • Osasun-alorreko profesionalei eskaintzen zaizkien birgaitze-ikastaroetan eta graduondokoetan (Osakidetza, enpresak, akreditazioa...) UPV/EHU lider bihurtu, baita MIRera begirako prestakuntzan ere. • Graduondokoen tasak berraztertu, gehiegizkoak baitira ikasle askorentzat, eta gehienetan nahitaezkoak baitira enplegagarritasunari begira. • Berezko tituluak eskaini ahal izateko eskakizunak berraztertu eskaintza zabaldu ahal izateko.

<p>Online irakaskuntzarako aukerak ere lantzea, betiere irakaskuntza presentzialaren nagusitasuna mantenduta.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Aurrez aurreko irakaskuntza izan behar da nagusi UPV/EHU baina, hala ere, online irakaskuntza ere landu beharra dago, mota jakin batzuetako ikasleak ere erakartzeari begira. · Online irakaskuntzak graduondokoen eskaintza zabaltzeko dakarzkigun aukerak landu eta ustiatu. · Orain ere aurrez aurreko irakaskuntzaren euskarri modura erabiltzen ditugun online plataformak (eGela, eGelapi, etab.) eta horietan jartzen ditugun baliabideen kalitatea hobetu. · Ecampuseko zerbitzu teknikoek eGela eta eGelapi plataformak erabiltzen ditugun irakasleon iritzia kontuan hartu aldatzeko egiteko orduan, eta egindako aldaketen berri xehea eman erabiltzaileoi.
<p>Graduondoko Sare Latinoamerikarra indartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Nazioarteko ikasleak gure graduondoko eskaintzara erakarri. · Graduondoko Sare Latinoamerikarren unibertsitateen prestatuntza-beharretara egokitutako master-proposamenak garatu. · Latinoamerikako unibertsitateekin ikerketa-harremanak sustatu.
<p>Goren Ikaskuntza Guneak sortzea, ekimena Eusko Jaurlaritzarekin, Ikerbasquerekin eta Euskampusekin landu ondoren.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Campus bakoitzean Goren Ikaskuntza Gune bat sortu, diziplinartekoa eta diziplina berrien ingurukoa. · Goren Ikaskuntza Gune bat sortu Giza eta Gizarte Zientzien arlorako.

8. ERRONKA: Bizitza osoko formazioa sustatu.

Helburuak	Ekintzak
Esperientzia Gelen erabiltzaileei prestakuntza-eskaintza handiagoa ematea.	<ul style="list-style-type: none"> · Esperientzia Gelen erabiltzaileei prestakuntza-eskaintza handiagoa eman: ikasgai eta jarduera gehiago, euskarazko eskaintza...
Etengabeko formazioa (mikrokredentzialak...) sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Espezializazio handiko birkualifikazioa ahalbidetu mikrokredentzialen bitartez, unibertsitate-titulazioa eta aurretiko eza-gutzak dituzten profesionalentzat. · Lan-berrorientazioa ahalbidetu jarduera profesional berrian sartzeko mikrokredentzialen bitartez. · Unibertsitaterako sarrera ahalbidetu mikrokredentzialen bitartez. · Biztanleria kalteberaren inklusioa ahalbidetu mikrokredentzialen bitartez.

9. ERRONKA: Doktoregoaren formazio-atala indartu.

Helburuak	Ekintzak
Doktorego-ikasleei zeharkako formazioa eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Doktoregoko ikasleei ingurune sozioekonomikora transferi daitekeen zeharkako prestakuntza eskaini.
Doktorego-ikasleei formazio espezifikoa eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Doktoregoko ikasleei prestakuntza espezifikoa eskaini, enplegu kualifikatuenetara iristen laguntzeko.
Tesi-zuzendarientzako formazioa eskaintzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Tesi-zuzendariei formazio espezifikoa eskaini doktoregaiek jasotzen duten formazioa maila gorenekoa izan dadin.

Ikerketa

Baliabideak egokitu, ezagutza eta berrikuntza helburu



IKERKETA: DIAGNOSTIKOA

Eusko Jaurlaritzak hartutako erabaki batzuen ondorioz, goi-mailako ikerkuntza Unibertsitate publikotik aldentzeko arriskuan dago. Izan ere, oso baliagarriak diren egitura propioak sortu ditu ikerkuntza sustatzeko (CICak Industria Sailean, BERCak Hezkuntza Sailean eta IISak Osasun Sailean), eta ikertzaileen kudeaketarako (Ikerbasque), baina Unibertsitate publikoan egiten den goi mailako eta arlo guztietako ikerketa ez da maila berean indartzen. Eusko Jaurlaritzaren estrategia horren barruan, Unibertsitate publikoa askotan enpresa-sarearen zerbitzura ikusten da, batez ere, haren eginkizun nagusia enpresek behar dituzten profesionalak prestatzea eta lehiakortasuna areagotzeko behar duten ezagutza ematea izan beharko balitz bezala.

Kontua da gure Unibertsitatea ezin dela horretara mugatu, alde batetik, gure unibertsitateak formazioa modu integrarean ulertzen duelako, non ikerketa ezinbestekoa den profesional onak sortzeko eta, bestetik, gure unibertsitateak bere ikerketa-eginkizuna eremu zabalago batean kokatu behar dugula onartzen duelako, gizartearen zerbitzura egongo bagara. Ildo horretatik, mota guztietako enprekin akordioak sinatu eta ezagutza enpresentzat onuragarriak diren baldintzetan transferitu behar dugun hein berean, gizarteak beste arlo ugartan dituen beharrei ere erantzun behar diegu, gizarte-ehun konplexu eta anitza aintzat hartuta.

Arazo nagusia da eginkizun hori aurrera eramateko baldintza ezegokiak ditugula. Adibidez, *Times Higher Education* (THE) aldizkariak 2024. urtean egindako munduko unibertsitateen rankingaren arabera, Euskal Herriko Unibertsitatean egiten den ikerketaren kalitatea oso ona den arren (65.8/100), ikerketarako dauden baliabideen balorazioa oso txarra da, eta ez da aprobatura iristen (23.9/100). Balorazio horrek agerian uzten du gure unibertsitatean egiten den ikerketaren kalitateak eta inpaktuak gora egingo luketela bertan ikerketa egiteko baldintzak hobetuko balira. Azken datuen arabera, 372 ikerketa-talde eta 5974 ikertzaile daude gure unibertsitatean. Hortaz, ezinbestekoa da ikerketaren kudeaketa eta koordinazioa eraginkorrak izatea, maila altuko nazioarteko ikerketa egin dadin.

Gaur egun UPV/EHUan egiten den ikerketaren sisteman bederatzi gabezia azpimarratuko ditugu:

1- Finantziario falta. Horrek eragin zuzena du ikerketara bideratzen diren baliabideetan, ikerketaren kalitatean eta ikertzaileen ongizatean. Izan ere, gaur egun ikertzaileek duten arazo

larrienetako bat da ikerketaren kudeaketa administratibo eta ekonomikoari eskaini behar dioten denbora. UPV/EHUko erreferentea izatera ailegatu diren SGIKER zerbitzuek azpiegiturarako inbertsio handiak izan dituzte azken urteetan, zerbitzu horiek barneko zein kanpoko hainbat agenterentzako zerbitzuak eskaintzen baitituzte. SGIKERen gaur egun 40 TEKAZEL inguru daude, baita kontratatutako 5-6 ikertzaile ere, baina zerbitzua era eraginkorren emateko giza baliabide gehiago behar dira. Izan ere, SGIKERn dauden zenbait zerbitzuren egoera oso larria da. Adibide gisa aipatuko dugu aurten Bizkaiko animaliategian gertatutakoa. Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzaren kasuan ere gauza bera gertatzen da, eta dauzkan giza baliabideak ez dira ez nahikoak ez egokiak, taldeak, proiektuak eta ikertzaileen kontratuak ongi kudeatzeko.

2- Koordinazio eta planifikazio urriak. Ikerketara bideratutako baliabideak eta espazioak ez dira behar bezala kudeatzen. Unibertsitatean dauden ikerketa-taldeen arteko zentralizazioa eta koordinazioa egonez gero, baliabideen erabilera askoz eraginkorragoa litzateke. Horretarako, ezinbestekoa da Errektoretzak beharrianak ezagutzea eta unibertsitate-komunitate osoak ikerketan diharduten taldeen eta haien ikerketa-ildoen berri izatea, horrek diziplina ezberdinen arteko kolaborazioak sustatzen lagunduko bailuke. Hortaz, ikerketa-taldeen eta proiektuen informazio publikoa eguneratzen, osatzen eta eskuragarri jartzen jarraitu behar dugu. Bestalde, ikertzaileen aktibitatean eragina duten erabakiak ez dira ikertzaile beraiekin adosten. Adibidez, berriki erabaki da PIF deialdiak urtean bitan baino ez egitea, baita ikerketako TEKAZEL pertsonalaren antolaketa berria ere, erabaki horiek ikerketa-taldeen barne-antolaketan ekar ditzaketen arazoak eta TEKAZELen irizpidea kontuan hartu barik.

3- Diziplinartekotasuna bultzatu beharra. Unibertsitateko hainbat fakultatetako ikertzaileen arteko harremanak lausoak edo hutsalak dira. Ikerketa-talde lehiakoragoak eta anitzagoak sortze aldera, fakultate desberdinetako ikertzaileen arteko harremana erraztu beharko litzateke, zientzia desberdinetako diziplinek bat eginda proiektu aberatsagoak sortzeko eta, bide batez, unibertsitateko irakasle, ikertzaile eta ikasleen komunitatea bateratzeko. Euskararen biziberritze-prozesuari eta bereziki erregistro akademikoen garapenari begira, beharrezkoa da hizkuntza-zientzien arteko diziplinartekotasuna sustatzea, hizkuntzalaritza teorikoan eta hizkuntzaren teknologietan garatzen diren ezagutzek euskararen normalizazioarekin lotutako erronkei erantzuteko ekarpena egin dezaten hizkuntzalaritza aplikatuaren bitartez.

4- Ikertzaileen formazio eta aitorpen falta. Ikerketan berriki sartzen diren pertsonak ez dute ikerketaren inguruko formazio integralik eta, ondorioz, ibilbide zientifikoa aurrera joan ahala, arazoak izaten dituzte haien karrera eta lidergo zientifikoa garatu eta egonkortzeko. Horrekin batera, UPV/EHU jarduera akademikoaren etapak ongi definituta dauden arren, jarduera zientifikoarenak ez daude hain argi zehaztuta, eta horrek kezka eragiten du nagusiki ikerketara dedikatzen diren profesionalen artean. Azkenik, lan-baldintzak ez dira erakargarriak, batez ere, karrerako hasierako urratsetan, prekarietatea eta ordainsari ez guztiz duinak nagusi baitira. Horrek eragiten du dagoeneko arlo askotan talentua geureganatzeko zailtasunak izatea. Egoera hori are larriagoa da kontuan hartzen badugu ikerketaren etapa horiek, doktoretza

barne, beharrezkoak direla irakaskuntzan arituko direnak formatzeko ere. Ondorioz, harrobia lantzeko nahitaezkoa da ikertzaileen lan-baldintzak hobetzea.

5- Ikerketa eta generoa. Badugu oraindik zereginik. Azken urteetan egoerak hobera egin duen arren, gaur egun oraindik UPV/EHUn egiten den ikerketan genero-arrakala handia dago, batez ere ikerketa-arlo batzuetan. Datoren bat mahaigaineratu aldera, deigarria da UPV/EHUn dauden IRlen % 50 inguru emakumeak izanik 2023. urtean tesien zuzendarien % 36 besterik ez izatea emakumeak. Genero-arrakala agerian uzten duen beste datu bat da seiurtekoen banaketa. UPV/EHUren berdintasun-txostenaren arabera, UPV/EHUn seiurteko bat edo bi duten emakumeen portzentajea % 50 inguruan dago, baina hiru seiurteko baino gehiago duten emakumeen portzentajeak behera egiten du seiurteko kopuruak gora egiten duen heinean. Azkenik, genero-arrakalaren beste adierazle bat da irakasle oso, katedradun eta emerituen kopurua. Izan ere, emakumeen kopuruak figura horietan, % 18,92, % 27,35 eta % 17,86 dira, hurrenez hurren. Datu horiek argi uzten dute oraindik ere UPV/EHUn diharduten emakumeek kristalezko sabaiarekin topo egiten dutela, eta hori bereziki larria da zenbait arlotan. Areago, egiten den ikerketak beti ez du izaten kontuan genero-berdintasuna, ez ikerketa-deialdien irizpideetan, ezta ikerketa-eginkizunetan ere. Izan ere, ez da sustatzen behar beste berdintasuna helburu duen ikerketa, ez eta horrek dituen oztopoen inguruko ikerketa bera ere.

6- Ikerketa ebaluatzeko irizpide zaharkituak. Gaur egun ikerketa ebaluatzeko erabiltzen diren adierazleak zaharkituta daude, oro har inpaktu bibliometrikoan oinarrituta baitaude. Gaur egun erabiltzen diren adierazleak ez dute kontuan hartzen ikerketa-lan batek herri-onuran izan dezakeen eragina edo inpaktua. Bestalde, Unibasq ikerketaren ebaluaziorako sistema propioa edukitzeko bidean ezinbesteko erakundea izan daitekeen arren, gaur egun haren konpetentziak eta eragin-eremuak mugatuta daude Espainiako Unibertsitateen Legearen baitan. Muga horiek gure ebaluazio-agentzia propioa izatea eragozten dute.

7- Unibertsitateko ikerketa-lanak eta horiek gizartean duten eragina ez dira ezagutzen. Unibertsitateko ikerketak gizarteak jakintza sortzeko duen eskaerari erantzuten dio. Hala ere, lortutako emaitza zientifiko-teknikoak ez dira nahikoa ezagutzen. Gizarteak, ezta ikasleek ere, ez dakite unibertsitateko irakasleek ikerketa egiten dutela. "Konpromiso soziala" ardatzean zehatzago azaltzen den eran, irismen-ezintasun horri aurre egiteko transferentzia eta hedapena egiteko betekizuna berretsi eta egiteko modua eraldatu behar dugu.

8- Ikerketaren erantzukizun soziala areagotu beharra. Aurreko ardatzean aipatzen den ezagutza sortzeko xede orokor eta askotarikoari gehitu behar zaio ikerketa-lana gizartearen zerbitzura ere egon behar dela. Alegia, "Konpromiso soziala" ardatzean aztertzen den ildoari jarraiki, gizartearen beharrei lotuago eta hobeto erantzuteko prestatutako ikerketa behar da.

9- Nazioarteko ikerketa indartu beharra. Nazioarteko ikerketarako ikerketa-taldeek laguntza gutxi dute. Proiektu amaieran zuriaketarako laguntza administratiboa dagoen arren, eskaintza-fasean ez dago laguntzarik, eta baliabide propioa izan beharrean, azpikontratatu egiten

da. Horrek baliabideen galeraz gain, mota horretako ikerketa-proiektuak eskatzeko ikertzai-
leen motibazio falta dakar. Ondorioz, nazioarteko ikerketa- eta transferentzia-jarduerak mu-
rritzitu egiten dira eta zaildu egiten da unibertsitatea nazioartean ikusgai jartzea.

IKERKETA: ERRONKAK

1. UPV/EHUUn egiten den ikerketara bideratutako baliabide ekonomikoak, teknologikoak eta pertsonalekoak areagotu.
2. Ikerketaren Gestiko Zuzendaritza indartu.
3. Ikerketarako azpiegiturak (eraikinak, laborategiak eta bestelako egiturak) eta mantentze-lana bermatu.
4. Ikerketa-talde eta -baliabideen koordinazioa hobetu.
5. UPV/EHUUn izena emanda duten doktoregaiei babesa eskaini.
6. UPV/EHUko ikerketa-ibilbidea definitu eta ezagutarazi.
7. Ikerkuntzan intensifikaziorako "Tenure track" kontratazio-lerroak sustatu eta egonkortze- eta promozio-aukerak eskaini.
8. Ikerketan existitzen den genero-arrakala desagerrarazi.
9. Ikerketa ebaluatzeko irizpideak gaurkotu.
10. Gure unibertsitateak egiten dituen ikerketa-lanei eta gizartean duten eraginari zabalkunde handiagoa eman eta eraginkorra izan gure inguruko gizartean sortzen diren auzi eta erronken aurrean.
11. Nazioarteko ikerketa indartu eta nazioartekotasuna bultzatu ikertzaileen ibilbidean.

IKERKETA: HELBURUAK ETA EKINTZAK

1. ERRONKA: UPV/EHUn egiten den ikerketara bideratutako baliabide ekonomikoak, teknologikoak eta pertsonalekoak areagotu.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
UPV/EHUn egiten den goi mailako eta arlo guztietako ikerketa, erkidegoan dauden beste egitura propioen maila berean indartzea, III. Ikerketa eta Transferentzia Plana (2024-2027) behar bezala bete ahal izateko.	<ul style="list-style-type: none"> Gure Unibertsitatean egiten den ikerketak duen ahalmen eta gaitasunari dagokion mailan finantziatzeko bideak adostu Eusko Jaurlaritzarekin.
Ikertzaileei eta ikerketa-taldeei teknikari laguntzaileak esleitzea, ikertzaileek bereziki ikerketari dagozkien lanak aurrera eraman ahal izateko.	<ul style="list-style-type: none"> TEKAZELen plazak ugaritu ikerketa-proiektuen kudeaketa administratiboa eramango duten teknikariak kontratatuz. Ikerketa Talde Kontsolidatu bakoitzean kudeatzaile administratibo bat integratu. Ikerketa-lerroen jarraitutasuna bermatzeko, arlo guztietako ikerketa-taldeetan nagusiki ikerketara dedikatzen den pertsonala mantentzeko aukerak sortu.
Baliabide digital egokiak edukitzea Ikerketaren kudeaketarako.	<ul style="list-style-type: none"> Kudeaketarako tresna digitalak ikertzaileentzat egokitu eta horiek burokrazia arintzera bideratu, planifikazio tekniko eta ekonomiko ahalbideratzeari begira (adibidez tiketak mugikorraren bidez erregistratu eta egiaztatzeko tresna garatuta).
SGIKER zerbitzu bakoitzaren beharrei egokitutako plantilla izatea.	<ul style="list-style-type: none"> SGIKERen lan egiten duten teknikarien plazak emendatu.

2. ERRONKA: Ikerketaren Gestioko Zuzendaritza indartu.

Helburuak	Ekintzak
Ikerketa-taldeak, proposamenak, proiektuak eta kontratuak ongi kudeatzeko ahalmena izatea.	<ul style="list-style-type: none"> · Zuzendaritzan lan egiten duten teknikarien plazak emendatu eta espezializatu. · Elkarrizketa bidez TEKAZELen antolamendua aztertu iker-tzaile-TEKAZEL lan-talde eraginkorra bermatzeko.
Ikerketa alorrean kontratazio-politika garbena, zuzena eta eragile guztien artean adostua garatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Deialdi eta finantziazio- edo kontratazio-aukera guztien baldintzak eta irizpide guztiak publikoak eta eskuragarriak direla bermatu, ikertzaile eta ikerketa-talde guztiek aukera berdinak izateko.

3. **ERRONKA:** Ikerketarako azpiegiturak (eraikinak, laborategiak eta bestelako egiturek) eta mantentze-lana bermatu.

Helburuak	Ekintzak
Zentro guztietako azpiegiturak eta espazioak lanerako egoera egokian edukitzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Baliabide espezifikoak lortu finantziazio-programa arruntan. · Baliabideak lortzeko deialdi ezberdinen aukeren koordinazioa erraztu.
Laborategietako ekipamendu guztia aldiro errebisio/mantentze prebentiboa jasotzen duela ziurtatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · UPV/EHUko mantentze-zerbitzurako ezinezkoa den kasuetan (garantia galtzen delako edota espezializazio maila berezia behar delako), prebentzio-mantentzerako kontratuak berreskuratu ekipamenduaren hornitzaileekin.

4. ERRONKA: Ikerketa-talde eta -baliabideen koordinazioa hobetu.

Helburuak	Ekintzak
Ikerketa-taldeen arteko ezagutza eta diziplinarteko elkarlana handitzea, ikerketa sendoak lortzeko.	<ul style="list-style-type: none"> · Ikerketa-talde eta -proiektuei buruzko informazio publikoa, eguneratua eta eskuragarria eskaini. · Ikerketa-taldeen elkar ezagutzeko foroak sortu eta beraien arteko elkarlana baloratzen duten deialdiak emendatu. · Doktoregaiek beren ikerketa ezagutarazteko eta partekatze-ko jardunaldiak antolatu.
Ikerkuntzara bideratutako eraikinen eta baliabideen aprobe- txamendua hobetzea, ikerketa-taldeen behar- rizanen arabera kudeatuz.	<ul style="list-style-type: none"> · Ikerkuntzara bideratutako eraikinen eta baliabideen kudeaketa Ikerketa Errektoreordetzaren koordinaziopean jarri. · Ikerkuntzara bideratutako eraikinen eta baliabideen egoera aztertu eta dauden arazoak konpondu. · Zentroetako ikerketa-batzordeak bultzatu. · Zentroen ikerketa-baliabideen erabilerari eta potentzialtasunari buruzko gogoeta egin. · Ikerketa-espazioak kudeatzeko protokoloak sortu, eta lan-talde ezberdinen azpiegituren / baliabideen zerrenda argitaratu, elkarlana sustatzeari begira. · Kopuru handietan egiten diren erosketak modu zentralizatuan egiteko zerbitzua/biltegia sortzeko aukera aztertu.
UPV/EHUren ikerkuntza-institutu propioen kudeaketa administrazio propioa bideratzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Ikerkuntza-institutuak (ILCLI, GEZKI, HEGOA,...) kudeaketa administratiborako pertsonal partekatuaz hornitu.
BIOEF Euskal Osasun Ikerkuntza Sistemarekiko harremanak indartu eta errazteko koordinazioa hobetzea.	<ul style="list-style-type: none"> · BIOEFekiko hitzarmen markoa berritu, UPV/EHUK Osasun Sistemarekin elkarlanean egiten duen ikerketa babesteko. · Eusko Jaurlaritzako Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza arekin eta Osasun Sailburuarekin batera herri-ikuspegi batek ditugun biomedikuntza alorreko ikerketa-beharrak sustatzeko tresnak adostu.
BERCekiko koordinazioa eta elkarlana aragotzea.	<ul style="list-style-type: none"> · BERCEkin orain arte egindako elkarlanaren ebaluazioa egin, indarguneak eta ahulguneak identifikatzeari begira.

5. ERRONKA: UPV/EHU izena emanda duten doktoregaiei babesa eskaini.

Helburuak	Ekintzak
Doktorego-programetan izena emanda duten doktoregai guztiek karrera akademikoa egin ahal izatea.	<ul style="list-style-type: none"> · Ikerketa-munduan sartzen diren ikertzaile berriei formazio espezifiko eskaini. · Liburutegiko baliabide guztiak erabiltzeko aukera eman. · UPV/EHU izena emanda duten doktoregaiei argitalpenetarako zein kongresuetan parte hartzeko baliabideak eskaini.
Tutorekidetzako doktoretza-programak (Bordeaux, ...) sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Tutorekidetzako doktoretza-programetan parte hartzen duten unibertsitateek onartzen duten defentsa-prozedura bakarra izateko hitzarmenak berritu.

6. ERRONKA: UPV/EHUko ikerketa-ibilbidea definitu eta ezagutarazi.

Helburuak	Ekintzak
Nagusiki ikerketara dedikatzen direnen plantilla indartzea.	<ul style="list-style-type: none"> Formazioan dauden ikertzaileen plaza kopurua handitu, bereziki doktore falta dagoen jakintza-arloetan.
Unibertsitate mailan ikertzaile-profil ezberdinak izatea.	<ul style="list-style-type: none"> Karrera akademikoan egin den bezala, ikertzaile-karrerako profilak ere definitu.
Ikerketa-proiektuetan parte hartzeko aukerak zabaltzea kontratu mota ezberdinak dituzten ikertzaileei.	<ul style="list-style-type: none"> Ikertzaileen aktibitatea ikasleengana hurbildu, ikerkuntza eta ikertzaileen ibilbidea ezagutarazteko. Masterra ez ezik doktorego eta doktoreondoko ikerketa garatu dezaketen Ikasketa Aurreratuaren Zentroko ikertzaileen formazioa sendotu.

7. ERRONKA: Ikerkuntzan intensifikaziorako “Tenure track” kontratazio-lerroak sustatu eta egonkortze- eta promozio- aukerak eskaini.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
<p>Nazioarteko egonaldia egin dituzten doktore berriei eta bikaintasun-programetatik datozen ikertzaileei kontratu egonkorak eskaini ahal izatea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Euskal Unibertsitate Legeak aurreikusten duen ikertzaileen kontratazio-ibilbidea babestu Eusko Jaurlaritzarekin adostuta. · Ikertzaile doktore iraunkorren plaza gehiago sortu.
<p>Ikertzaile doktore motako kontratu iraunkorra dutenak promozionatu ahal izatea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Ikerketa-irakasle plazen kopuru bat sortu urtero. · Sortu den pilaketa arintzeko, lehendabiziko hiru urteetan eskainiko diren plazen plangintza berezi bat zehaztu.

8. ERRONKA: Ikerketan existitzen den genero-arrakala desagertarazi.

Helburuak	Ekintzak
Ikerketa-alar guztietan ikerketa-taldean iker-tzaile nagusien % 50 gutxienez emakumeak izatea.	<ul style="list-style-type: none"> Deialdietan ikertzaile nagusiak emakumeak izatea sustatzeko arauak ezarri.
Ikerketa-arlo guztietan tesi-zuzendarien % 50 gutxienez emakumeak izatea.	<ul style="list-style-type: none"> Beken deialdietan zuzendariak emakumeak izatea sustatzeko neurriak hartu.
Maila akademiko gorenetan (irakasle osoa eta katedraduna) emakumeen portzentajea handitzea.	<ul style="list-style-type: none"> Irakasle oso eta katedradunen plazetarako irizpideetan emakumea izatea ponderatu, batez ere emakumeen presentzia oso baxua duten arloetan.
STEM ikasketetan matrikulatzen diren eta STEM ikerketa-lerroetan ari diren emakumeen kopurua handitzea.	<ul style="list-style-type: none"> UPV/EHUren eta derrigorrezko irakaskuntzaren arteko programa sortu, STEM ikasketak ezagutarazi eta ikasle emakumeen interesa pizteko.
Genero-arrakala murrizteko ekintzak egokitzea.	<ul style="list-style-type: none"> Genero-ezberdintasunari buruzko Ikerketak sustatu eta baliolan jarri.

9. ERRONKA: Ikerketa ebaluatzeko irizpideak gaurkotu.

Helburuak	Ekintzak
Ikerketa ebaluatzeko sistema berria sortzea, hurbileko ikerketen herri-inpaktua eta generoa kontuan izango duena.	<ul style="list-style-type: none"> · UPV/EHU<i>n</i> Ikerketa nola ebaluatu modu partehartzailean hausnartu eta eztabaidatu eta lidergoa hartu estatu-mailan definitzen den foroetan bidea markatzeko. · DORA bezalako ekimenetan engaiatu.
Ikerketaren ebaluazioa gaurkotzeko eskuragarri dauden lanabesak inplementatzea, hala nola Unibasq.	<ul style="list-style-type: none"> · Unibasq-ekin dagoen lankidetzaz indartu, USLOk zabaltzen duen bidetik bere eskumenak areagotu eta indartzeko.

10. ERRONKA: Gure unibertsitateak egiten dituen ikerketa-lanei eta gizartean duten eraginari zabalkunde handiagoa eman eta eraginkorra izan gure inguruko gizartean sortzen diren auzi eta erronken aurrean.

Helburuak	Ekintzak
Ikerketaren gizarteratzea handitzea eta lurraldean duen eragin positiboa nabarmentzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarrenganako eta agente ezberdinenenganako dibulgazio-estrategia definitu, jarduerak identifikatuz eta planifikatuz: hedabideetan, herritarrekin jardunaldietan, derrigorrezko hezkuntzan, etab. • Komunikazioan formakuntza bideratu ikerketa taldeei, dibulgazio lanetan laguntzeko edota egitura ezberdinetan integratzeko. • Ikerketa talde bakoitzari komunikazio kabinetean erreferentziazko pertsona bat ezarri, dibulgazioa areagotu eta modu koordinatu eta profesionalean egiteko. • Zientzia-komunikazio egokirako dekalogoak sortu euskal komunikabideekin batera. • UPV/EHU Dibulgazio Kanala sortzea ikerketa taldeen dibulgazio bideoak editatu eta modu iraunkor eta sistematizatuan zabaltzeko.
Ikerketa-mundua gradu eta masterreko ikasleengana hurbiltzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitateko ikertzaileen eta ikasleen artean Ikerketa-aktibitatea ezagutzera emateko aktibitateak sortu. • Gradu- eta master- ikasleentzako formazio espezifikoak eskaini ikerketa-mundua modu integralean ezagutarazteko. • Ikerketa partekatzeko sortuko diren foroetan, ikasleen parte-hartzea bultzatu.
Gure ikerketa-lanak bertako garapen jasangarria bultzatzeko eta bertako arazoei irtenbideak emateko lagungarriak izatea.	<ul style="list-style-type: none"> • Hurbileko ikerketa egin, alegia, inguruan dauden erronkei eta beharrezko erantzuten dien ikerketa. • Euskal Herriko erronka emergente eta estrategikoei aurre egiteko arlo guztietako eta zeharkako ikerkuntza bultzatu, gai horiek lantzeko modua bermatzeko programa zehatzak ezarriz (ikerketa-proiektuetarako eta doktorego tesiatarako deialdi berezituak). • Industria-tesiak jakintza-arlo guztietan bultzatu, horretarako topaguneak sortuz unibertsitatearen eta inplikaturako eragile sozio-ekonomikoen artean.

11. **ERRONKA:** Nazioarteko ikerketa indartu eta nazioartekotasuna bultzatu iker-tzaileen ibilbidean.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
Nazioarteko finantzia-zioa erakartzea eta proiektuak lideratzea.	<ul style="list-style-type: none"> Ikertzaileen lidergoa sendotzeko, esperientziadun pertsonak erakarri edota haiekiko kolaborazioak ezarri.
Nazioarteko proposamen kopurua handitzea.	<ul style="list-style-type: none"> Baliabide propioak izan nazioarteko eskaintza hobetzeko. Giza baliabideak handitu (TEKAZEL kopurua) eta prozesu erdiautomatizatua sortu, eskaeren eta jarraipenen kudeaketa egiteko.
Inpaktu handiko argitalpen zientifikoaren kopurua handitzea.	<ul style="list-style-type: none"> Nazioarteko ikerketa- taldeekiko kolaborazioak bermatu deialdi lehiakor gehiagotan parte hartu ahal izateko eta inpaktu zientifiko handiko emaitza gehiago izateko.
Gure ikerketa-argitalpenen inpaktu zientifikoaren areagotzea.	<ul style="list-style-type: none"> UPV/EHUK argitaratutako ikerketak nazioarteko gordailu publikoetan eskuragarri jarri .

Konpromiso soziala eta kultura

Mundura irekita, Euskal Herritik

Euskal Herrirako unibertsitatea

KONPROMISO SOZIALA ETA KULTURA: DIAGNOSTIKOA

Gure unibertsitatearen baloreak

UPV/EHU euskal gizartearen zerbitzura dagoen eta horren premiei erantzungo dien erakundea da. Unibertsitate publikoaren funtsezko zeregina da ezagutza zientifikoa areagotzea eta arlo ezberdinetako jakintzak zabaltzea. Unibertsitatearen zeregin hori oso balio handikoa da baina etekin sozial eta ekonomikoaren parametroetan neurtzen oso zaila. UPV/EHUK, euskal jendartearen erreferentziazko erakunde akademikoa delarik, honako baloreak jaso, gorpuztu eta lehenetsi behar ditu bere baitan: egiaren etengabeko bilaketa, ezagutzaren transmisioa, kulturaren zabalkundea, euskararen balioespena, pentsamendu arrazional eta kritikoaren garapena, zientziaren metodologia, ondarearen berreskurapena, gardentasuna, genero-ikuspegia, ezberdinen arteko elkarrizketa eta errespetua, eta herritar aktiboak, sortzaileak, jakintza eta ezagutzaren mina barruan sartuta daramatenak sortzeko erantzukizuna. Balore horiek gizartean hedatzea ere bada bere xede nagusietako bat.

Testuinguru globala

Mundu mailako testuinguru orokorrak azken hamarkadetan norabide jakin bat inposatu du: arrazionaltasun neoliberalak unibertsitateak modu sakonean eraldatzen ditu. Lehen, komunitate akademikoak autonomia eta erabakimen gehiago zuen, logika produktibistatik eta interes politikoetatik independente funtzionatzen zuen espazio ireki, publiko, arrazoizko eta libre gisa. Unibertsitateak, oro har, ilustrazioko izaera zibikoa galtzen ari dira eta epe motzeko errendimenduari begiratzen dion izaera produktibista hartzen ari dira, zientzia-ezagutza pribatiza, merkaturatu eta politiza daitekeen beste produktu bat balitz bezala. Munduko unibertsitateak elkarren lehian jarri dira, norbera bere errentagarritasunari begira. Halaber, zientzia-jakintzarekiko espektatiba handinahiak eratu dira, edozein arazo edo auziren aurrean irtenbidea eman dezakeelakoan, arazoen izaera sistemikoa eta zientziagintza bera sinplifikatuz.

UPV/EHUK estrategia bat behar du testuinguru honetan bere konpromiso soziala betetzeko eta bere baloreak zaintzeko.

Eman ta zabal zazu

Unibertsitateak Euskal Herriari begira irakasten, ikertzen, ekoizten eta zabaltzen duen ezagutza zientifikoa sistematizatzen eta herrialdeko erakunde eta eragile anitzekin koordinatzen asmatu behar du, unean uneko eta tokian tokiko beharren eta aukeren arabera.

UPV/EHUK bere ekarpen herrigilea, epistemikoa, demokratikoa eta zibikoa euskal jendaratean hedatzen jarraitzea nahi badugu, bera babesten eta indartzen jarraitu behar dugu. Babestu eta indartu behar ditugu unibertsitateak herriarekin daukan lotura, bere funtzio sozial eta herrigilea, izaera autonomoa, eta bai komunitate akademikoaren erabakimena eta inplikazioa ere.

Egungo joerak gainditzeko denon artean adosten dugun UPV/EHUko estrategiak bost ardatz hauek integratu beharko ditu:

Herri-konpromisoa

XXI. mendeak ekarriko dizkigun krisiak eta erronka konplexuak gainditzeko (klima-aldaketa, adimen artifiziala edota pandemia berriak), ez da nahikoa "Euskal Herriko Unibertsitatea". Guztion artean, **Euskal HerriRAko Unibertsitatea** egiten asmatu behar dugu.

Herriko unibertsitate publikoak **herri-gobernantzan lagunduko duten ezagutzak** eman behar ditu. Ezagutzaren transferentzia lurraldean errotu behar da, bertan garatzen diren estrategietan integratu eta, euskal herritarren ongizatea hobetzeko helburuarekin, betiere berrikuntza inklusiboa, justizia soziala eta iraunkortasuna bultzatu.

Ezagutzaren garapen eta transferentziari **epe ertain eta luzerako perspektiba** erantsi behar diogu. Ikerketa eta transferentziaren ikuspegi klasikoan, unibertsitateak enpresa eta produkzio-ehunari jakintza eta ezagutza helaraztea eta unibertsitateak enpresa-ekimenak eta enpresak sortzea bultzatzen da. Horrek epe motzean konponbideak eman ditzakeen arren, epe ertain eta luzerik gabe, gaur egungo erronka teknologiko, sozial eta ingurumenekoari aurre egiteko oso motz geratzen da. Ikerketak, eta ondorioz transferentziak, berrikuntzak eta garapenak dakarzkiguten premia berriak aurreikusi eta horiek artatzeko gaitasunak sendotzea eskatzen du, gizartearen onura eta garapena bermatzeko.

UPV/EHUren baliabide guztiak **Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH) zerbitzura** jarri nahi ditugu, pertsonen arteko berdintasuna lortzeko, planeta babesteko eta oparotasuna ziurtatzeko agenda globalaren norabidean, Euskal Herriaren etorkizuna eredu bilakatzeari begira. UPV/EHU lehen urratsak ematen ari da gaur egun duen inpaktu soziala neurtzeko, baina inpaktu soziala zer den ere argitu beharra dago. Euskal Herriari begira ari bagara, ezagutzaren ekoizpenaren ondorioz gure lurraldean bertan gure gizartearen onurarako eragiten dituen mota ezberdinetako eraldaketak ditugu hizpide. Inpaktu soziala nazioarteari begirakoa denean ere, lehen pausoak behintzat gure lurraldean bertan egin beharko genituzke.

Herri-hazkundera

Edozein gizartek dituen beharrei aurre egiteko, beste baldintza batzuez gain, ekonomia-sistema indartsua behar du. **Garapen ekonomikoa ezagutzan eta ikerketan egindako inbertsioekin lotuta dago gaur egun.** Hortaz, unibertsitatea toki ezin hobean kokatuta dago ekonomiak behar dituen ekarpenak sortzeko, bere laborategi eta ikerketa-taldeek garatutako ezagutzaren transferentzia babestuz. Horregatik, unibertsitate publiko bezala, ezagutzak dakarren garapen ekonomikoa gizartearen zerbitzura jartzen jakin behar dugu. Transferentzia hori hainbat modutara egin daiteke, besteak beste, enpresekiko lankidetzak antolatuz, sortutako jakintzari etekina ateraz edota eragile publiko zein pribatuen ezagutza-beharrei erantzunez. Gainera, transferentzia tresna egokia izan daiteke, baloreetan oinarritzen bada, eta gizartearen eta lurraldearen mesederako egiten bada.

Unibertsitatean ikertzen diren arlo eta ezagutza guztiak kontuan izanda, UPV/EHUK gaur egun egiten duen **transferentzia askoz ere zabalagoa eta eraginkorragoa izan** liteke, aktibitatearen aitorpena egingo balitz, honetan aitzindari diren unibertsitateetan egiten den bezala. Nahitaezkoa da gaur egun UPV/EHUK egiten duen transferentziaren azterketa sakona egitea, neurri berriak zuzen identifikatu eta gizartearen eta lurraldearen onurarako egingo den transferentzia nabarmenki biderkatzeko.

Elkarlana

Ezagutza zientifikoa zaindu, sortu, zabaldu eta aplikatzeko gaitasun horiek guztiak mihiztatzea, koordinatzea eta auzi konkretuen inguruan askatzea unibertsitate publikoaren zeregina izatea nahi dugu. Lurralde-gobernantza eta ezagutza-sistema hurbiltzeko unibertsitate publikoak **baloreetan oinarritutako kooperazio- eta elkarlan-espazioak ireki eta zaindu** behar ditu. Unibertsitate berriak zientziaren eta teknologiaren mugetatik haratago begiratu behar du, horiek ezinbesteko izanik ere ez baitira nahiko berrikuntza bultzatu edota jakintza gizarteari zabaltzeko. Unibertsitateak lurralde-erronketan lurreratu behar du.

Ezagutzaren transferentzia norabide anitzekoa da. Diziplina bakoitzak bere moduan izan dezake inpaktu handia unibertsitatearen paretetatik kanpo. Potentzial hori aztertuz, gure unibertsitateak komunitateari ekarpenak biderkatu ahal izateko tresnak eta aliantzak sortu behar ditu. Ideia zaharkitua da elite akademiko batek gizartera ezagutza noranzko bakarrean bideratzen duela. Ezagutzaren transferentzia norabide anitzeko prozesu gisa ulertzen dugu, unibertsitatearen eta askotariko eragileen artean gertatzen den prozesu gisa, ezagutzak, gaitasunak eta aditutasunak elkar-trukatuz, auzi konplexuen inguruan irtenbide posibleak elkarrekin irudikatu eta proposatzeko. **Euskal HerriaREKIN Unibertsitatea** egiten asmatu behar dugu.

Unibertsitate publikoak mihiztatzen du lurralde bateko ezagutza-sistema. Azken 40 urteetan euskal lurraldeak ezagutza-gaitasun itzelak garatu ditu. Unibertsitate publikoak lurraldeko ezagutza-sistemako eragile guztiak mihiztatu behar ditu. Lurraldeko ezagutza-sistemako

eragileak (ikertzaileak, herritar afektatuak, erakundeak, hedabideak edo enpresak) elkarrekin lankidetzan jartzea proposatzen dugu, auzi konplexu bakoitza hobeto ulertzeko eta ekin-tza-lerro posibleak proposatzeko, erakunde publikoekiko eta erakunde pribatuekiko auzo-lan-harremanak aztertuz. Ildo horretatik, Euskal Herriaren garapenerako funtsezkoak diren erronketan (Garapen Iraunkorreko Helburuak, hezkuntza, orotariko osasuna, euskara eta euskal kultura, berdintasuna, jendartearen zaharkitzea, etab.), unibertsitatearen eta gizarte-eragileen arteko lankidetzak bultzatu behar dira.

Kultura zientifikoaren hedapena

UPV/EHUK **dibulgazio zientifikoaren** bidean sakondu behar du, bere ikerketa eta esperientzia erakutsiko duten hitzaldi publikoak, tailerrak, erakusketak eta eztabaidak antolatzen, eta ahalik eta komunitate zabalena diskurtso intelektualean eta ...eta ezagutza gogoeta-sustatzailean murgiltzen, eta, aldi berean, gizarte-eztabaidaren eragile edo sustatzaile izaera hartu behar du, **gizarte mailako jakintza sortzeari begira**.

UPV/EHUK, urtetan daraman ildo beretik, **kultura zientifikoa zabaltzen eta balio akademi-koak sozializatzen jarraitu** behar du. Kultura zientifikoa indartzeko, emaitzei ez ezik, zientziagintza errealari ere arreta gehiago eskaini behar zaio, gizartearen zientziarekiko espektatibak neurrian mantentzeko. Elitismo intelektualean edo zientifismoan eroriko ez den kultura zientifikoa lantzeak balio behar du baita ezagutza zientifikoarekin bat datozen funtsezko baloreak lantzeko ere, besteak beste, kritikotasuna, ezagutzaren behin-behinekotasuna, ez dakigunaren kontzientzia, lankidetzako kooperatiboaren balioa, nazioartekotasuna, ezagutzaren izaera praktikoa edo ebidentziaren garrantzia.

UPV/EHUren **“ezagutzaren transferentzia”** modu desberdin batean ulertzea proposatzen dugu, auzien konplexutasuna jasotzen duen herri-ikuspegi anitz eta integratuagoan, ekonomia sozial zabalago, jasangarriago eta orokorrago bat sortuko duena, bide batez enpresa-berrikuntza ere ahalbidetuz, eta zientziaren eta teknologiaren indar eraldatzaileaz baliatuz, baita adimen artifizialaz ere. Hots, “etorkizuneko erronken laborategia ... ikerketa askearen gunea ... herritar libreen lantegia” sortu nahi dugu, “burokraziaren zamatik ahalik eta askeen”.

Euskara eta Euskal Kultura

UPV/EHU unibertsitate publikoa da eta, haren estatutuetan zehazten den bezala, **euskara eta euskal kultura bultzatzea** da haren funtsezko konpromisoetako bat. Zehazkiago, EAEn 1982. urtean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Legea indarrean sartu zenetik, UPV/EHUK duen konpromiso edo erantzukizun funtsezko eta berariazkoeneko bat da **gizartea behar dituen denetarikoa profesional euskaldunekin hornitzea**, zehazkiago, gizarteari euskaraz komunikatzeko gaitasun gorenak dituzten profesionalak eskaintzea. Edozein gizartetan goi mailako tituludunengandik espero dena da hizkuntza(k) zuzen eta egokiro erabiltzeko gaitasuna, baina hizkuntza-gaitasun horien garapena ez da ikasle-irakasleen zeregin indibiduala bakarrik,

zeregin komunitarioa ere bada, besteak beste, **euskara hizkuntza gutxitua** delako eta irabazten doan erabilera-eremu guztietarako hizkuntza-baliabideak (lexikoa, esamoldeak, estiloak, etab.) garatu behar dituelako.

Unibertsitateak konpromisoa du hizkuntza-baliabide espezializatuak (lexiko eta fraseologia akademikoa eta terminologia) **garatzeko, deskribatzeko, ikertzeko eta horien hedapena egiteko unibertsitateko kideen artean eta, oro har, gizarteko beste eragile batzuei helarazteko**, hala nola euskararen normalizaziorako erakundeei, itzultzaileei, zuzentzaileei eta hizkuntza-teknologiak garatzen dituzten ikertzaileei. **Euskara estandar formalerako finkatzen doazen arauak unibertsitateko kideen erabileretan ezartzen laguntzeko ardura** ere badu.

Euskara hizkuntza gutxitua izateak ere badakar **unibertsitateak prestatzen dituen profesional euskaldun horiek euskararen normalizazioan eragile aktiboak izateko hizkuntza-kontzientzia izatea**, eta ikasle-irakasleek kontzientzia hori gara dezaten ere bada unibertsitatearen erantzukizuna. Herritarren eskubideen ikuspuntutik, UPV/EHUk bermatu beharko lieke **euskaraz ikasteko eskubidea** aukera hori egiten duten ikasleei, gutxienez, graduoko ikasketetan baina, ahal delarik, graduondokoetan eta Esperientzia Geletan ere.

Ezagutzaren transferentzia ere bada Euskal Herriak munduari egin diezaiokeen ekarpen zientifikoa, bai ezagutza-subjektu edo ezagutza zientifikoaren ekoizle gisa, baina batez ere, edo bereziki, euskal gaiei dagozkien alorretan. Azpimarratu behar dugu UPV/EHU dela unibertsitate-mailako **hainbat gradu euskaraz irakasten dituen munduko unibertsitate bakarra**, besteak beste, Matematika, Filosofia, Antropologia, Fisika, Kimika, Informatika, Historia, Soziologia, Pedagogia edo Arkitektura. Esklusibitate horrek, ordea, ez du zertan norabide bakarreko ezagutza-jasotzaile edo ezagutza-itzultzaile pasiboaren izaera hartu. Norabide anitzeko transferentzia-harremanak sustatu behar dira, **euskaratik ere badugulako munduari ezagutza-ekarpen bat egiteko**.

KONPROMISO SOZIALA ETA KULTURA: ERRONKAK

1. UPV/EHUK Euskal Herriko garapen soziokulturalean eta gobernantzan betetzen duen rola indartu.
2. Garapen sozial eta ekonomiko eta lehiakortasuna hobetzeko, ezagutza tekniko lurraldera transferitzeko bideak irekitzen jarraitu eta UPV/EHUren lidergoa indartu.
3. Lurralde-erronketan eta baloreetan oinarritutako kooperazio- eta elkarlan-espazioak ireki.
4. Zientzia-dibulgazioa indartu eta kultura akademikoa gizarteratzen lagundu.
5. UPV/EHUK euskararen biziberritzean eta euskal kulturaren garapenean dituen funtsezko zereginak erantzukizun osoz bete.
6. Kultura politika eta ekintzak garatu eta hedatzeko oinarriak ezarri, dagokion protagonismoarekin, baldintza egokietan, irakaskuntzarekin eta ikerkuntzarekin batera, unibertsitatearen eta kulturaren hirugarren misioa garatzeko: kultura.
7. Herri-gobernantzan lagundu eta ongizatea bultzatuko duen unibertsitatea izateko, jakintza-arlo bakoitzak gizarteari egin ahal dion ekarpena indartzeko tresnak garatu.
8. Berdintasunaren eta inklusibitatearen printzipioak jakintza-arlo guztietatik sustatu.
9. Nazioartekotzea sustatu.

KONPROMISO SOZIALA ETA KULTURA: HELBURUAK ETA EKINTZAK

1. **ERRONKA:** UPV/EHUK Euskal Herriko garapen soziokulturalean eta gobernantzan betetzen duen rola indartu.

Helburuak	Ekintzak
Ezagutzaren adar guztietan garatutako ikerketa gizartearen erronkekin lotzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Gure gizarteak aurre egin beharko dien erronka nagusiak identifikatu. • Jasangarritasuna eta krisi soziala gizartearen erronka nagusienetarikoa izanda, horietaz UPV/EHUK duen ezagutza baliatu eta barne-bideorria diseinatu erreferente bilakatzeko. • Gure lurraldeek eta hiriek dituzten beharrak identifikatu, tokiko politika publikoetarako proiektu, proposamenak, etab. eskainiz dagozkien instituzioei.
Berrikuntzaren kultura sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Berrikuntza-proiektuak finantziatu. • Innobasque erakundearekiko lankidetzeta indartu. • Nazioarteko mailan hezkuntza-berrikuntzan lan egiten duten taldeen kopurua handitu. • Unibertsitate/Gizarte gelak garatu eta zabaldu, kolaborazioa eta transferentzia zentzu zabalago batean ulertu eta praktikatzeke

2. ERRONKA: Garapen sozial eta ekonomikoa eta lehiakortasuna hobetzeko, ezagutza teknikoa lurraldera transferitzeko bideak irekitzen jarraitu eta UPV/EHUren lidergoa indartu.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
UPV/EHUren ezagutza eta gaitasun zientifiko-teknologikoak ehun sozioekonomikora hurbiltzea ezagutzaren adar guztietan.	<ul style="list-style-type: none"> UPV/EHU-Enpresa lankidetzak bultzatu eta erraztu. Ikerketa-taldeei eskaintza teknologikoa merkaturatzen lagundu, enpresekiko kontratuak eta patenteen lizentziamendua areagotzeko.
Ezagutza- eta jakintza-arloen eskaintza zabalbermatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Eragile sozioekonomikoekiko aliantzak sortu jakintza-arlo guztietan. UPV/EHUko parke teknologikoa indartu ahulezien eta indarguneen diagnostikoan oinarrituta.
Tokiko enpresekin lankidetzan aritzea, batez ere enpresa txiki eta ertainekin, eskualdean berrikuntza eta garapen ekonomiko iraunkorra sustatuko duten prestakuntza, aholkularitza- eta laguntza-zerbitzuak emateko.	<ul style="list-style-type: none"> Tokian tokiko eta elkarlaneko ikerketa-proiektuak bultzatu. Estrategia diseinatu, beharrezko zerga-abantailekin, herritarrek, enpresek edo erakundeek proiektu zientifiko espezifikoei ekonomikoki lagundu ahal izateko. Graduondoko eskaintza interes ekonomiko handia duten eremuetara bideratzen lagundu.
Enplegarritasunari lotutako zeharkako gaitasunen garapena bultzatzea.	<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitate-komunitate osoan kultura ekintzailea sortu. UPV/EHUtik sortutako enpresak babestu eta enpresa berrien sorreran lagundu. UPV/EHUen enplegu-azoka bat sendotu. UPV/EHUko praktiken unitatea guztiz digitalizatu.
Etengabe autoebalua-tzea eta eguneratzea eta kultura zientifikoa aplikatzea transferentzia-egitasmoei.	<ul style="list-style-type: none"> Ezagutzak transferitzeko ekimenen eraginkortasuna aldian-aldian ebaluatu, eta beharren bilakaeran transferentzia-estrategiak egokitzen joan.

3. **ERRONKA:** Lurralde-erronketan eta baloreetan oinarritutako kooperazio- eta elkarlan-espazioak ireki.

Helburuak	Ekintzak
UPV/EHUren baloreak partekatzen dituzten eragile akademiko, sozial eta ekonomikoak identifikatzea, eta horiekin elkarlanean aritzeko bideak ezartzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Aliantza estrategikoak sinatu euskal alorreko zientzia- eta kultura-eragileekin. • Ikerketa-zentro, erakunde, enpresa eta bestelako gizarte-eragileekin epe luzerako lankidetzak ezartzeko esparruak eta tresnak diseinatu. • Hezkuntza-maila guztietarako ikasmaterialak sortzen lagundu. • UPPArekiko doktorego arloko harremanak mantendu eta sendotu. • Mugaz gaindiko Euskampus bikaintasun-campusa finkatzen eta garatzen jarraitu, UPNA, UPPA eta UBMrekin lankidetzak handitzeko aukeren azterketatik abiatuta.
UPV/EHUK ingurunean duen eragina ebaluatzea eta zabaltzea.	<ul style="list-style-type: none"> • UPV/EHUKo langileek komunikabideetan duten presentzia areagotu. • Gizarte-eragileekin eta komunikabideekin aldizkako topaketak egin. • Komunikazio Bulegoa erabili UPV/EHUK ingurunean duen eragina gizaritari jakinarazteko.
Boluntarior-tza-programak sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Boluntarior-tza-sareetan modu koordinatuan parte hartu Estatu-ko zein nazioarteko unibertsitateekin. • Unibertsitatearen boluntarior-tzako ekintzei eta programei buruzko informazioa zabaltzea irakasleek eta ikasleek ekimenetan parte har dezaten bultzatzeko. • Irakasleek ikasle-taldeekin egiten dituzten boluntarior-tza-ekintzak irakaskuntza-jarduera erregularizat hartzea eta larrialdi-egoeretan, hala nola hondamendiak gertatzen direnean, UPV/EHUKo langileak aditu gisa mugitzeko baldintzak erraztea, besteak beste, baimenak azkar bideratuz.

4. ERRONKA: Zientzia-dibulgazioa indartu eta kultura akademikoa gizarteratzen lagundu.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
Dibulgazioa areagotzea eta aitortzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Ikerketa-taldeei komunikaziorako dituzten beharrei aurre egiteko tresnak eta formazioa eskaini. · Aitortza eman UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileek <i>The Conversation</i> edo halako plataformetan egiten duten dibulgazio-lanari. · Aitortza eman UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileek Euskal Herriko komunikabide eta plataformetan egiten duten dibulgazio-lanari.
Ezagutza eta jakintzen dibulgazioa egiten duten lurralde-eragileekin hobeto koordinatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Euskal komunikabideekin batera jakintza-arlo guztien dibulgaziorako aliantza estrategikoak indartu, UPV/EHUko irakasleen parte-hartzeari jarraikortasuna emanez, eta dibulgazio-lanak egiten dituzten unibertsitateko kideak prestijiatuz. · Euskal aldizkariekin lankidetzaz indartu euskarazko zientzia-dibulgazioa sustatzeko. · Zientzia-dibulgaziorako Elhuyarrek atondu berri duen dekalogo UPV/EHUko erreferentzia gisa proposatu. · Wikilarien Elkartearekin elkarlana indartzen jarraitu.
EHUgune indartzea, Euskal Herrirako auzien eztabaida- eta deliberrazio-gune erreferentzial gisa.	<ul style="list-style-type: none"> · Baliatu EHUgune Euskal Herriko eragile sozial eta kulturekin harremanak sendotzeko. · Baliatu EHUgune hiru campusetan hitzaldi eta mintegi sortak antolatzeke, euskal jendarteari interesatu dakizkiokeen auzien inguruan.
Uda Ikastaroerori norabide estrategikoa ematea.	<ul style="list-style-type: none"> · Baliabideak jarri Uda Ikastaroetako hitzaldiak publikak daitezzen, batez ere publiko zabalagoari interesa dakizkiokeen gaiei buruzkoak. · Indartu euskarazko ikastaroak, eta euskal historia, literatura, artea, kultura eta pentsamendua jorratzen dutenak. · UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzuarekiko loturak estutu, Udako Ikastaroen eduki guztiak bideo formatuan ez ezik, liburu modura ere argitaratu daitezzen.

Katedrak aktibatzea.	<ul style="list-style-type: none"> • UPV/EHUK Katedren funtzionamendurako urteko aurrekontu bat esleitu. • Katedrek lortzen duten kanpo-finantziazioa osorik Katedrentzat bideratu. • Katedren eta Uda Ikastaroen arteko lankidetzaren sendotzen jarraitu, Katedrei Uda Ikastaroak antolatzeko baldintzak erraztuz.
EGOKiTU udako campusa egonkortzea, indartzea eta zabaltzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Metodologia pedagogiko eta ludikoen profesionalekin lan egin eskaintza definitzerakoan. • JAKIUNDEko Jakin-Mina ikastaroekin koordinatu.
Zientzia-kultura propioa babesten eta zabaltzen laguntzea.	<ul style="list-style-type: none"> • “Kultura Zientifikoa” master propioa berriz ere eskaini. • Zientzia-dibulgaziorako ekimenak babesten eta indartzen jarraitu, baliabide pertsonal eta profesionalizatuak biderkatuz. • Sare sozial korporatiboen erabilera sustatu eta Webgune erakargarria garatu. • Zientzia-dibulgaziorako UPV/EHUren aldizkariak eta Argitalpen Zerbitzua indartu eta zientzia dibulgaziorako euskarazko beste aldizkari batzuekin elkarlanean aritu. • Campusetako “kanpo-hedapenerako” deialdiak indartu.
Unibertsitateko azpiegiturak ireki eta ezagutzaren euskal jendartearen eskura jartzea.	<ul style="list-style-type: none"> • UPV/EHUko Liburutegietako liburu, baliabide eta orientazio-tresnak eskuragarri jarri ikasle ez direnentzat ere. • Campusetako zerbitzu publikoak eta komertzioa sustatu: kafetegiak, dendak,... • Ikasleei esparru fisikoen erabilera ahalbidetu.

<p>Campusetako bizitza soziala eta kulturala sustatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Ikasleen partaidetzarekin kirol-eta kultur jardueren mapeoa egin, eskaintza ikasleen lehentasun eta premietara egokitzeko. · Ordutegi akademikoetan eskola ordurik gabeko tarteak ezarri, kultura jarduerak ordu horietan planifikatu eta ikasle eta irakasleen partehartzea errazteko (ZTFen jada abian jarritako eredia beste fakultateertara hedatu). · Inguruko erakundeekin lankidetzaren esparru egonkorrak bultzatu, kalitatezko kirol-eskaintza erakargarria prezio egokian eskaintzeko. · Inguruko kultura-eragileekiko eta erakunde publiko eta pribatuekiko sinergiak areagotu, kultura-jarduerak sustatzeko. · Kultur eragileekin hitzarmenak sinatu unibertsitatea ekintza kultural ezberdinak plazaratzeko eta gazteei hurbiltzeko oinarrizko espazio bihurtzeko (EHAZE Euskal Herriko Antzerki Elkarte, Euskal Herriko Musikarien Elkarte, Game Erauntsia Bideojokoen Euskal Komunitatea eta abar). · Ikasleekin komunikatzeko bideak bultzatu (adibidez Agora Digitala) kultura- eta kirol-politikak elkarrekin diseinatzeko. · Ikasleentzako Kultura Bekak sortu. Diziplina desberdinetako ikasleek elkarlanean kultura jarduerak sortzeko dirulaguntzak eman. Ikasle-talde horiek, dirulaguntzaz gain, diziplina bakoitzeko profesionalek gidatutako akonpainamendua eskaini. Azkenik, Kultura Astea antolatu sortu lanak erakusteko kanpoko ekitaldiekin batera. · Kultura Batzordea sortu Campus bakoitzean, kolektibo guztietako kideak biltzen dituen eta kultura programazioaren lerro orokorrak garatuko dituen ondoren EHU Kulturak garatzeko. · UPV/EHUko Abesbatza eta Orkestra Sinfonikoa sustatu. · Jarduera bereziak bultzatu, hala nola lasterketa mistoa, Zuztza Abentur, estropada akademikoa, Zabalki, Tipi-tapa. · UPV/EHU sortzen den kultura hedatu eta ezagutzera eman. · Kultur adierazpen berri eta berriztatzaileak bultzatu ekimen pribatuek eta sustatzaileek heltzen ez diren alorretan. · Abangoardiako Lengoia Eszeniko Berriak bultzatu eta horien aldeko apustua jakintza alor ezberdinetako irakasle eta ikasleekin koordinazioan.
---	---

<p>EHUalumni motako lkasle-ohiekin hartu-emanetan jarraitzeko komunikazio-kanalak eta datu-baseak eratzten hastea.</p>	<ul style="list-style-type: none">• Prestakuntza Eskolaren bidez EHUalumni taldearen enplegagarritasuna hobetuko duten jardueren katalogo erakargarri bat diseinatu.• Mentoring, Enbaxadore eta Cicerone programak sendotu.• EHUalumni UPV/EHUren barruan eta euskal gizarte osoan indartu, erregistro eta lankidetzak berriak atzeman.• Campusetako ikasleen elkarteei erabilera partekatuko espazioak eskaini.
--	---

5. ERRONKA: UPV/EHUK euskararen biziberritzean eta euskal kulturaren garapenean dituen funtsezko zereginak erantzukizun osoz bete.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
<p>Euskal gizartea behar dituen denetarik profesional euskalduneh hornitzea: hizkuntza-gaitasun gorenak dituzten hiztun kontzientziadunak.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleek irakasle euskaldunengandik jasotzen duten idatzizko eta ahozko inputa eredugarria izatea zaindu, ikasle-gidetatik hasi, eta apunte, aurkezpen, praktika-protokolo, hitzaldi eta azterketetaraino. Euskara Plan Gidariko (EPG) irakasgaiak zaindu, gainerako irakasgaien osagarri izan daitezen ikasleen hizkuntza-kontzientzia garatzeari begira. Ikasle, irakasle, ikertzaile eta TEKAZELei hizkuntza-gaitasuna eta hizkuntza-kontzientzia garatzen laguntzen dieten ekimenak abian jarri: kanpainak, laguntza-zerbitzuak, laguntza-tresnak...
<p>Espezialitate alorrez alor garatzen doazen hizkuntza-baliabide espezializatuak (lexiko eta fraseologia akademiko eta terminologia) deskribatzea, ikertzea eta horien hedapena egitea unibertsitateko kideen artean eta euskararen normalizazioan inplikaturako gizarteko beste eragileei.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Testu akademikoak, terminologia eta fraseologia deskribatzeko eta kontsultagai jartzeko UPV/EHUK garatu dituen tresnak eta programak sustatu, baliabide horiek gero eta aberatsagoak eta adierazgarriagoak izan daitezen: Garaterm corpora, TZOS terminologia-datubase, HARTA/TAILA testu akademikoen idazketarako laguntza-tresna, Terminologia Sareak Ehundu (TSE) programa... Euskararen normalizazioan ardura duten erakundeekiko (Euskaltzaindia, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren pean dagoen Terminologia Batzordea, Elhuyar Fundazioa...) hitzarmenak egin edo berri, deskribaturako lexiko akademiko eta terminologia helarazteko kodifikazio-prozesuetan kontuan har ditzaten.
<p>Euskal herritar guztiei euskaraz ikasteko aukera eskaintzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> Orain arte graduetan eta graduondokoetan euskarazko eskaintza handia egitea posible egin duen kontratazio-politikari eutsi: kontratu iraunkorrak dituzten irakasleei euskaldunak izatea eskatu. Hizkuntza guztietako taldeak mantentzea posible ez den kasuetan euskarazko taldeak lehenetsi.

<p>Euskara bultzatzea eta euskal ondarea ezagutzera ematea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Transferentzia-seiurtekoetan balioetsi euskal jendarteari egindako inpaktuzko ekarpenak eta euskaraz egiten diren ezagutza eta kultura zientifikoaren zabalkunde-lanak. • Transferentzia-seiurtekoetan balioetsi euskal ondarearekin lotutako zabalkunde-lanak. • Orain arteko ildotik jarraitu euskal kultura eta pentsamendua sustatzen duten Katedrak indartzen, hala nola Joxe Azurmendi Katedra, Mikel Laboa Katedra, Joxe Migel Barandiaran Katedra edo UPV/EHUren Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra. • Euskararen erabilera indartu jardunaldi zientifikoetan.
<p>Euskararen erabilera soziala sustatzea unibertsitate-bizitzaren eremu guztietan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Unibertsitateko aplikazio digital guztietako interfazeak defektuz euskaraz eskaini. • Unibertsitateko kideek tresna eta aplikazio digitaletan euskara lehenetsitako hizkuntza modura sustatzeko kanpainak egin.
<p>Euskararen erabilera soziala sustatzea irakaskuntzaren eta unibertsitate-bizitzaren eremuetan.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasle bisitariarentzako euskarazko ikastaroen egungo eskaintza sistematizatu eta zabaldu. • Beste unibertsitate publikoekiko harremanak sendotu, bereziki, euskara komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzen dutenekin, irakaskuntza-ikaskuntza esperientzia berritzaileak partekatze helburuarekin.
<p>Euskal artearen eta kulturaren prestakuntzan, ikerketan eta hedapenean erreferente izatea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Euskal artearen eta kulturaren adierazpenen ikerketarekin eta proiektio sozialarekin lotutako jarduerak bultzatu eta zabaldu. • Euskal kulturaren adierazpenen arloan prestakuntza eta ikerketa bultzatu: ahozko tradizioa, literatura, artea, dantza, musika, kirola... • Kultur ekintzak sustatu, hala nola euskal artea eta kultura aztertzen duen komunitate zientifikoa egituratzeko sare zientifikoak sortu, eta horren emaitzak nazioartean zabaltzeari arreta berezia eskaini. • Euskal artea eta kultura aztertzen diharduten nazioarteko beste erakunde eta entitate batzuekin elkarlanean aritu.

6. ERRONKA: Kultura-politika eta ekintzak garatu eta hedatzeko oinarriak ezarri, dagokion protagonismoarekin, baldintza egokietan, irakaskuntzarekin eta ikerkuntzarekin batera, unibertsitatearen hirugarren misioa garatzeko: kultura.

itzuli aurkibidera

Helburuak	Ekintzak
Kultura-politika eta ekintzak garatzea	<ul style="list-style-type: none"> · Kultura-ekintzaren, hedapenaren eta proiektzioaren arloak birplanteatu. · Hiru campusetako kultura-ekintza egitura egonkor, sendo, argi eta bateratu batean bildu eta antolatu, ekintza adostu eta koordinatua lortzeko beharrezko mekanismoekin. · Baliabide pertsonalez (TEKAZEL) hornitu, berariazko aurrekontu-esleipenarekin. · Kultura-politikak gauzatu, programazio, produkzio eta erakusketa plangintza batekin (erakusketak, kontzertuak, arte eszenikoak, etab.), baliabide ekonomiko egoki eta koherenteekin, eta erreferentziarako espazio duinak esleituz hiru campusetan. · Bizkaia Aretoa erreferentzia-leku bat den heinean, bere baliabideen erabilerak birdefinitu eta birnegoziatu. · Kulturaren estatutu-batzordea sortu, unibertsitateko erabaki-organoetan eta plan estrategikoetan presentzia izateko, eta horrekin batera, horren mende dauden antolaketa- eta ekonomia-programetan. · Web gune egokia eduki kulturalak eta horiek komunikatzeko eta transferitzeko gaitasunarekin. · Hiru lurraldeetako kultur ikastaroen eta proiektio/hedapen laguntzen deialdien kudeaketa koordinatua. · UPV/EHUren kultura-politiken aholkularitza-, ebaluazio- eta jarraipen-tresnak eratzea, kultura-behatoki edo kanpoko aholku-batzorde gisa.

7. ERRONKA: Herri-gobernantzan lagundu eta ongizatea bultzatuko duen unibertsitatea izateko, jakintza-arlo bakoitzak gizarteari egin ahal dion ekarpena indartzeko tresnak garatu.

Helburuak	Ekintzak
Euskal Erakundeen gobernantzan laguntzeko baldintzak sortzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Politika publikoak diseinatzeko ebidentzia zientifikoak ekoizteko erraztasunak eman. • Zientzialarien edo irakasleen aholkularitza politikoa eta aditu-lanak aitortu, garatu eta saritu ahal izateko marko legalak bultzatu. • Inpaktu sozial frogagarria duten ikerketa eta ekimenak sustatu eta saritu, bereziki, osasun publikoa, justizia soziala eta kultura-aniztasuna bezalako gaiei buruzkoak. • Tokiko eta eskualdeko giza garapen iraunkorreko politika berriak diseinatzeko eta ezartzen lagundu. • Politika publikoen edo legerien kontsulta publikoko deialdi guztietan komunitate zientifikoaren eta irakasleen parte-hartzea sustatu eta saritu.
Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda unibertsitate-jardueraren erdigunean kokatzea, aztergai, ikerketa eta eztabaidagai gisa.	<ul style="list-style-type: none"> • Elkarlaneko eta garapenerako lankidetzako ekimenak egin daitezten sustatu. • Garapenerako lankidetzaren esparruan lan egiten duten erakundeekiko lankidetzaren ikusarazi. • Unibertsitatearen eta tokiko komunitateen, Gobernu Kanpoko Erakundearen eta erakunde publikoen arteko lankidetzaren sustatu, lurraldeko arazo larrienak elkarrekin identifikatzeko. • Osasun arloko jarduerak gizarteari egiten dioten ekarpen soziala aitortzen jarraitu eta haien eginkizuna bermatzeko hitzarmenak landu. • Unibertsitatearen barruan konpromiso komunitarioaren kultura sustatu, ikasleak eta irakasleak komunitatean oinarritutako ikerketa-ekimenetan parte hartzera animatuz. • Osasun alorreko agenteekin elkarlanean aritu ongizateari bideratutako formazio-programa, egitasmo edota ikastaroak antolatuz.

<p>UPV/EHUren Inpaktu Soziala biderkatzeko tresnak garatzea eta sustatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · UPV/EHUK gaur egun inpaktu soziala non lortzen duen identifikatzeko diagnostikoa egin. · Inpaktu Soziala aitortu eta duen balioa onartu, eta · Inpaktu Soziala izatea helburu duten proiektuak babesteko deialdi espezifiko bat sortu. · UPV/EHUK gaur egun euskal jendarteari egiten dion ekarpen positiboa (inpaktu soziala) komunikabideetan agertzeko eta erreferentzialtasuna lortzeko estrategiak garatu.
<p>Sinergian eta orientazio partekatuetan oinarritutako antolaketak-kultura sustatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Zentro guztietan kohesioa eta barne-identifikazioa bultzatu. · Sail eta dekanotza-taldeen zein zuzendarien arteko aliantzak bultzatu, koordinatu eta babestu. · Ikastetxeen barne-dinamika babestu eta indartu: EHUndu programa.

8. **ERRONKA:** Berdintasunaren eta inklusibitatearen printzipioak jakintza-arlo guztietatik sustatu.

Helburuak	Ekintzak
'Inor bazter utzi gabe' lelopean jardutea, EHUagenda 2030 garapen iraunkorraren arabera.	<ul style="list-style-type: none"> • Berdintasunean oinarritutako kalitatezko hezkuntza eskaini. • Ikuspegi feminista txertatu gure jardunean, genero-berdintasuna bermatzeari begira. • Desberdintasunak murriztu. • Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna bermatu.
Berdintasun eta inklusibitatearen egitasmoak gizartean txertatzeko UPV/EHU eragile aktiboa izatea.	<ul style="list-style-type: none"> • UPV/EHU-k lanpostu publikoetan zein pribatuetan emakumezkoen presentzia handitzeko lidergo-programak sustatu. • Enpresa edo agenteekin hitzarmenak edo kontratuak sinatu baino lehen beraien inpaktu soziala aztertu: klausula sozialak. • Ezagutza transferitzeko ekimenak inklusiboak eta jendarteko kide guztien eskura egon daitezen bermatu, hizkuntza, ezgaitasuna eta maila sozioekonomikoa kontuan hartuta.

9. ERRONKA: Nazioartekotzea sustatu.

Helburuak	Ekintzak
Nazioarteko lankidetzak sustatzea.	<ul style="list-style-type: none"> · ENLIGHT Europako Unibertsitatea eraikitzen jarraitu. · EUA erakunde europarrekin harremanak sendotu. · Euskal diasporarako erreferenteak izateko bideak sustatu.
UPV/EHU unibertsitate publikoaren prestigioa handitzea.	<ul style="list-style-type: none"> · Nazioarteko ekimenak sustatu eta nazioartean diharduten irakasleen eta ikertzaileen lana aintzatetsi.

UPV/EHU
denon artean_

Un proyecto compartido

bengoetxea.eus | @   @bengoetxeaEHU

UPV/EHU
denon
artean_

Un proyecto compartido